

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux eta actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language



EUSKERA



2020
65, 1
1-210
BILBO
ISSN 0210-1564



EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Telefonoa: 94415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44

posta elek.: info@euskaltzaindia.eus • webgunea: www.euskaltzaindia.eus

Aldizkari hau beste agerariekin trukutzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s' échange avec d' autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

Testuen hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo copyrigharen jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564 (inprimatutako bertsioa)

ISSN: 2792-2278 (bertsio elektronikoa)

Lege gordailua: BI-1244-58

EUSKERA AGERKARIA

Euskera Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da eta 1920. urtetik aurrera argitaratzen da. Urteko lehen zenbakiak (buletinak) Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen ditu, eta bigarrenak Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak jasotzen ditu. Zenbakiak urtea bukatu eta hurrengo sei hilabeteetan argitaratzen dira. Ikerketa artikuluak argitaratzeko, Idazketa kontseiluak, anonimotasuna bermatuz, kanpo ebaluatzaileen iritzia jasoko du.

Euskera agerkaria honako aurkibide, zerrenda eta datu-baseetan dago:

- Azkue Bibliotekaren katalogoan
- Euskaltzaindiko webgunean
- Latindex Katalogoan
- Emerging Sources Citation Index-en (ESCI)
- Inguma datu-basean
- ISOC datu-basean
- Linguistic Bibliography datu-basean

Kalitate adierazleak:

CIRC (2020): C maila

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

La revista *Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindia y se publica desde 1920. El primer número del año (el boletín) recoge los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales, reseñas de libros y similares. Los números se publican dentro del semestre posterior a finalizar el año. Para publicar artículos de investigación, el Consejo de redacción, garantizando el anonimato, recurre a expertos externos.

La revista *Euskera* está disponible en los siguientes catálogos y bases de datos:

- Catálogo de la Biblioteca Azkue
- Página web de Euskaltzaindia
- Catálogo Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de datos Inguma
- Base de datos ISOC
- Base de datos Linguistic Bibliography

Indicadores de calidad:

CIRC (2020): Categoría C

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

La revue *Euskera* est l'organe officiel de l'Académie de la Langue Basque - Euskaltzaindia ; sa publication a démarré en 1920. Le premier numéro de l'année (le bulletin) présente les travaux et la vie de l'Académie ; le second quant à lui publie des articles concernant des travaux de recherche, des comptes rendus de livres, ou autres sujets similaires. Les numéros sont publiés au cours du semestre qui suit la fin de l'année. En ce qui concerne la publication d'articles de recherche, le Comité de rédaction s'entoure d'experts extérieurs à qui il garantit l'anonymat.

La revue *Euskera* est présente sur les catalogues et bases de données suivants :

- Catalogue de la Bibliothèque Azkue
- Page web d'Euskaltzaindia
- Catalogue Latindex
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Base de données Inguma
- Base de données ISOC
- Base de données Linguistic Bibliography

Indicateurs de qualité :

CIRC (2020): Catégorie C

MIAR (2020): 8.0 (ICDS)

Euskera is the official journal of Euskaltzaindia and has been published since 1920. The first number or bulletin published each year reflects the Academy's work and academic activities, while the second one contains original research articles, book reviews and the like. Issues are published in the six month period following the end of the year in question. For the publication of research articles the editorial board seeks the opinions of external evaluators, while preserving their anonymity.

The *Euskera* journal appears in the following indexes, lists and databases:

- Catalogue of the Azkue Library
- Website of Euskaltzaindia
- Latindex catalogue
- Emerging Sources Citation Index (ESCI)
- Inguma database
- ISOC database
- Linguistic Bibliography database

Quality indicators:

CIRC (2020) : Group C

MIAR (2020) : 8.0 (ICDS)

EUSKALTZAINDIA

EUSKERA AGERKARIA



IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA, Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO, Euskaltzaindia. Bilbo

Teknikaria: JON ARTZA, Euskaltzaindia. Bilbo

Kideak

ADOLFO AREJITA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JEAN-BAPTISTE COYOS

Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

JOSEBA ANDONI LAKARRA

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANDONI SAGARNA

Euskaltzaindia. Donostia

PATXI SALABERRI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

MIKEL ZALBIDE

Euskaltzaindia. Donostia

Aholkulariak: JOSEBA ZABALETA eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).

AHOLKU BATZORDEA

MIXEL AURNAGUE

CNRS, J. Jaurès Unibertsitatea

Tolosa, Okzitania

MIREN AZKARATE

Euskaltzaindia. Donostia

JOXE AZURMENDI

Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

MARTINE BERTHELOT

Perpignango Unibertsitatea. Perpignan

CHARLES BIDEGAIN

Paueko eta Aturiko herrialdeetako Unibertsitatea.
Baiona

JOSU K. BIJUESCA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

GIDOR BILBAO

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

IÑAKI CAMINO

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

ANA ETXAIDE

Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea

JOSE RAMON ETXEBARRIA

Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE

Universitat de València. Valentzia

PATXI GOENAGA

Euskaltzaindia. Gasteiz

RICARDO GÓMEZ

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MANUEL GONZALEZ

Real Academia Galega. Coruña

MARTIN HAASE

Bambergo Unibertsitatea. Bamberg

JOSE IGNAZIO HUALDE

Illinoiseko Unibertsitatea. Illinois

ITZIAR IDIAZABAL

Euskal Herriko Unibertsitatea.
Gasteiz

XABIER ITZAINA

CNRS, Centre Emile Durkheim

Sciences por Bordeaux. Bordele

JOSEBA INTXAUSTI

Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA

Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JACINTO ITURBE

Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

JABIER KALTZAKORTA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JON LANDABURU

CNRS, Paris. Kolonbiako Kultura Ministerioa

ALBERTO LOIZATE

Basurtoko Ospitalea. Bilbo

JUAN MADARIAGA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

JOAN MARTÍ

Institut d'Estudis Catalans. Secció Filològica. Bartzelona

ENEKO OREGI

Eusko Jaurlaritz. Gasteiz

JON ORTIZ DE URBINA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ROSA MIREN PAGOLA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSE ANTONIO PASCUAL

Real Academia Española. Madril

TXOMIN PEILLEN

Euskaltzaindia. Baiona

IBON SARASOLA

Euskaltzaindia. Donostia

JOAN MARI TORREALDAI †

Euskaltzaindia. Donostia

MIRIAM URKIA

Euskaltzaindia. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea

E U S K E R A

AURKIBIDEA

[9-15] "Euskera agerkariak Euskaltzaindiaren webgunean atari berria"

SAGARNA, Andoni, MARITXALAR, Aitor

AGIRIAK

- **Euskaltzaindia. Batzar-agiriak**

[18-22] *Osoko bilkura*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2020ko urtarilaren 31n

[23-26] *Ageriko bilkura*

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2020ko urtarilaren 31n

[27-31] *Osoko bilkura*

Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundian, 2020ko otsailaren 28an

[32-36] *Osoko bilkura*

COVID-19 dela eta, era telematikoan, 2020ko maiatzaren 29an

[37-43] *Osoko bilkura*

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2020ko ekainaren 26an

[44-49] *Osoko bilkura*

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2020ko uztailaren 17an

[50-54] *Osoko bilkura*

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2020ko irailaren 25ean

[55-60] *Barrengo bilkura berezia*

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2020ko urriaren 23an

[61-64] *Osoko bilkura*

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2020ko urriaren 23an

[65-70] *Osoko bilkura*

Donostian, udaletxean, 2020ko azaroaren 27an

[71-76] *Osoko bilkura*

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2020ko abenduaren 18an

- **Euskaltzaindiaren Arauak**

[78-81] *2020ko araugintza*

IRIZPENAK ETA TXOSTENAK

- **Onomastika**

[84-108] "Sobre el río *Urogena* (conocido como *Uragona*)"

MARTÍNEZ de MADINA SALAZAR, Elena

- **Sustapena**

[110-128] "Immigrazioarekiko ikuspegia. Herrietako esperientziak biltzeko egitasmoa. Euskara non dago?"

AIERDI URRAZA, Xabier

[129-147] "ANHITZAK: Gasteizko hizkuntza-aniztasuna. 2020ko topaketa"

VADILLO Álex, URZELAI, Elena

[148-168] "Índice Sintético de Inclusión e Integración Social: un instrumento para el diseño de políticas públicas. El lugar del euskera"

IKUSPEGI - OBSERVATORIO VASCO de INMIGRACIÓN

HITZARMENAK

[170] *Euskaltzaindiak 2020an zehar sinatu dituen lankidetzak-hitzarmenak*

BERRIAK

[172-185] *2020ko albisteen kronika*

OMENALDIAK

[187-188] *2020an omenduak izan diren Euskaltzaindiko kideak*

HILBERRI TXOSTENAK

[190-194] Juan Antonio Letamendiaren hilberri txostena (1940-2019)

MUJICA, Jose Antonio

[195-196] Jean-Baptiste Etxarrenen hilberri txostena (1928-2020)

DIRASSAR, Jean-Baptiste

[197-200] Angel Ibisateren hilberri txostena (1932-2020)

MARTÍNEZ de MADINA MADINA, Elena

[201-203] Piarres Andiazabalen hilberri txostena (1923-2020)

ARBELBIDE, Xipri

[204-210] Joan Mari Torrealdairen hilberri txostena (1942-2020)

AGIRREBALTZATEGI, Paulo

Euskera agerkariak Euskaltzaindiaren webgunean atari berria

SAGARNA, Andoni

Euskaltzain osoa

MARITXALAR, Aitor

Infomatika aholkularia

Euskera agerkaria Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala da. Hiru aldi izan ditu historian zehar:

- Lehen aroa (1919-1979). Euskaltzaindia 1919an sortu zen eta *Euskera* 1920an. Aldi horretan aldizkakotasun aldakorra izan zuen; batzuetan hilabetekari izan zen, beste batzuetan lau hilabete argitaratu zen, sei hilabete behin ere bai, inoiz urtean zenbaki bakarra kaleratu zen. Gerrak eragindako etenaldiaren ondoren, 1956tik aurrera hiru hilabete behin argitaratu zen. Lehen epe horretan agerkariak bi atal izan zituen, bata bilkuren berri ematen zuena eta bestea ikertzaileek egiten zituzten ekarpenei eskainia. Hor argitaratu ziren, besteak beste, Azkueren *Morfologia* eta Gipuzkera *Osoa*, Altuberen *Erderismos* eta *La vida del euskera* eta garai hartako beste euskalari askoren lanak, hizkuntzalaritzaren hainbat arlotakoak.
- Bigarren aroa (1980-2008). Aldi honetako edukiak garrantzi handikoak izan ziren euskara batua taxutu zuen araugintzaren ikuspegitik, eta, aurreko aldi bezalaxe, euskarari buruzko hainbat lan argitaratzeko aukerako plataforma izan zen *Euskera*. Hala ere, ikerketa-lanek pisua galdu zuten arauen mesedetan. Formatu aldetik aurreko aldikoaren antzekoa izan zen. 1996an, aurreko garaietako ale asko agortuta zeudela eta paperezko hainbeste liburukitan informazioa aurkitzea zaila gertatzen zela ikusirik,

Euskaltzaindiak *Aurten bai* fundazioarekin hitzarmen bat sinatu zuen, aldizkari osoa informatizatu eta aurkibideak antolatzeko. Edukiak eskaner bidez digitalizatu ziren irudi formatuan eta CD-ROM diskoetan ipini ziren. 1997ko Durangoko Azokan aurkeztu zen 1920-1978 urteen bitartean agerturiko zenbakien diskoa, Bergarako kongresua bitartekoa. 2000. urtearen inguruan Euskaltzaindiak ahalegin handia egin zuen bere jarduerak informatizatzeko, herri-aginteen laguntzarekin, eta Euskaltzaindiaren informatika eta telekomunikazio zerbitzua sortu zen. Orduan sareratu zen webgunea, batez ere erakundeari buruzko informazioz hornitua. 2007an egin ziren XV. Barne Jardunaldietan aurkeztu zen "Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta Euskaltzaindiaren edukiak" txostenean egiturazko batzorde berri bat sortzea proposatzen zen, Informazio eta Komunikazioaren teknologiak (IKT batzordea), eta *Euskera* agerkariaz esaten zen ordura arte irudizko PDFetan zeuden edukiak eta datu-base batean zeuden haiei buruzko aurkibideak webgunean jartzea nahiko lan erraza izan zitekeela. Urte hartan bertan *Euskera* agerkariako informazioa eskuratzea errazten zuen programa informatikoa aurkeztu zen Osoko bilkura batean. Gaiak, autoreak eta gako-hitzak bilatzeko aukera ematen zuen programa berriak.

- Hirugarren aroa (2008-...). 2008an erabaki zen handik aurrera *Euskeraren* hiru zenbaki aterako zirela urtero, horietatik lehena eta hirugarrena izango zirela Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa bilduko zituztenak; bigarrenak, aldiz, ikerketa-lanak eta bestelakoak jasoko zituela. Berrikuntza hori era bereko argitalpen zientifiko akademikoen irizpideekin bat etortzeko asmoarekin egin zen. Horretarako, aldizkariaren egitura, barne-sailkatzea, atalkatzea, indexazioa, etab. birmoldatu ziren, bai eta aldizkariaren ebaluazioa egiteko arauak ipini ere. Azala eta barrua aldatu ziren. Nazioartean hedadura handiagoa eta errazagoa lor zezan, handik aurrera lau hizkuntzatan idatziko zela erabaki zen: ordura arte bezala euskaraz, espainieraz eta frantsesez gainera, baita ingelesez ere. Gutxienez artikuluko zientifiko guztien laburpenak lau hizkuntzotan eskaintzea ere erabaki zen. *Latindex* irizpideak jada betetzen ziren, eta, ondorioz, agerkaria indexazio bidean jarri zen. Horretan sakonduz, *Euskera* agerkariaren Idazketa batzordeak agerkariaren kalitate adierazleak hobetzea izan du helburu. Ahalegin horretan, kalitate-agentziek

agerkariak atari propioa eta erabilgarria izatearen premia azpimarratu dute. Betekizun horri ere erantzuten dio atari berriak.

Hurrengo pasarteetan ataria berria nola egituratu den eta, halaber, bere ezaugarriak zeintzuk diren azaltzen ditugu.

Hartara, 2019ko urtarrilean IKT batzordeak *Euskera* agerkariaren hemerrotekako bilaketak errazago eta modu eraginkorragoan egiteko lanak abian jartzea erabaki zuen. Une horretan faksimilean zeuden 22 tomoak OCR bidez tratatzea eta bilatzaile berri bat garatzea komeni zela ikusi zen. Lan horiek Elkarmedia enpresari enkargatu zitzaizkion. Egitasmo horri honako helburu hauek jarri zitzaizkion:

- 1) Lehengo artikulubilatzailea hobetzea,
- 2) zenbaki zaharrak, argitalpen-katalogoan ez zeudenak, osatu eta jasotzea,
- 3) indexatzailea hobetzea, eta
- 4) webgunean ikusgarritasuna hobetzea.

Beharrezkoa ikusten zen horretarako artikulua zatitzea eta berriro katalogatzea. Interfazea berritzea ere onartu zen. Hori guztia 2020rako, *Euskerak* ehun urte beteko zituenerako prest edukitzea pentsatu zen. Bertsio berriaren prototipoa prest zegoen 2019ko abenduan.

***Euskera* agerkari elektronikoaren berritze prozesua**

Agerkariaren berritze prozesua martxan jarri zenean, IKT batzordeak finkatutako lau helburuak izan ziren tresna berrituaren diseinurako gidalerro nagusiak.

Lehen azterketa sakon baten ostean, bigarren mailako helburu gehigarriak finkatu ziren, agerkariaren berritzea aberasteko asmoz:

1. Agerkariaren izaera bikoitza islatzea: *Euskera* agerkariak duen funtzio bikoitza, hau da, ikerketa aldizkaria eta bizitza akademikoaren aldizkaria, errespetatzea eta argi markatzea.
2. Bilatzaile aurreratu baten garapena: testu librean bilatu ahal izateaz gain, emailtzak zenbait ezaugarriren arabera iragazi ahal izatea (artikulu-mota, saila, urtea, liburukia, pertsonak...).

3. Datuak Azkue Biblioteka eta Artxiboaren (ABA) datu-basetik erauziko ziren: ABAn *Euskera* agerkariaren artikulua guztiak katalogatuta eta deskribatuta daude. Datutegi hori izango zen tresna berriaren oinarri.
4. Zenbaki guztien aurkibidea eskaintzea.
5. Itxura moderno eta erakargarria ematea: agerkariaren estetika lerroa errespetatuz, modernotasun itxura transmititu, egungo ikerketa aldizkariaren estandarrak jarraituz.
6. Aldizkariaren proiektzio internazionala hobetzea: sareko tresnan laburpenak (sinopsiak) lau hizkuntzetan irakurtzeko aukera.
7. Aldizkari osoa deskargagarri jartzea: hiru aroetan argitaratutako artikulua guztiak PDF formatuan deskargatzeko aukera egotea. Funtzionalitate gehigarri bezala, zenbaki osoak PDF formatuan deskargatzeko aukera ere emango zen. Horrela, *Euskera* agerkaria oso-osorik edonorentzat kontsultagai egongo da.
8. Bizitza akademikoaren zenbakietan dokumentuak topatzeko erraztasunak ematea: *Euskeran* argitaratutako bizitza akademikoari buruzko dokumentuak, historikoak zein egun argitaratzen direnak, garrantzi handikoak dira, izaera normatiboagatik, garrantzi historikoagatik... Agiri hauek modu azkar eta ordenatuan aurkitu ahal izatea zen helburua.
9. Ekarpenak bidaltzeko prozesua erraztea: horretarako formulario berezitu bat jarriko zen.
10. Idazketa arauen eguneraketa: aipatu ezaugarri berriekekin bat etortzeko, idazketa arauen eguneraketa egingo zen.

Konplexutasun eta anbizio handiko proiektua zen. Finkatutako helburu guztiak bete nahi izan ziren, eta, ustez, baita betetzea lortu ere. Jarraian, proiektua aurrera eramateko lanen deskribapen laburra egingo da.

Lehen fasean, *Euskera* agerkariaren lehen aroko (1919-1979) aldizkari guztien digitalizatzeko lanak egin ziren. Nahiz eta zenbaki hauek lehendik ere digitalizatuta zeuden, egungo estandarrak betetzen dituen digitalizazioa egin zen: irudiak kalitate altuan, irudien garbiketa prozesua, OCR prozesua artikulua guztietan...

Bigarren fasea datutegia osatzea izan zen. Helburuetan aipatu bezala, ezinbestekotzat hartu zen ABAn datu-base bibliografikoa oinarri bezala hartzea. Horretarako, ABAn oinarrian dagoen Absys sistema baliatuz, MARC estandarrean esportazio bat sortu zen, eta esportazio hori izan zen sareko bertsio berrituaren oinarritzko datutegiaren oinarri. Arazo bat zegoen, ordea: ABAn artikuluen katalogazioa egiten da, eta jatorrizko datutegia ikuspegi bibliografikoarekin/artxibistikoarekin osatuta zegoen. Honek bi oztopo zekartzan nahi genuen emaitza lortzeko orduan: lehenik, ez zegoen zenbaki osoen informaziorik (ABAn datu-basea artikuluen da), eta bigarrenik, katalogazioa artxibistikoa zen, eta zenbait eremu eta katalogazio-item ez ziren zuzenean sareko bertsiorako erabilgarri.

Aurreko fasean aipatu arazoei aurre egitea izan zen hirugarren fasean egiteko nagusia. ABAtik lortutako MARC esportazioa oinarri hartuta, lanketa berezitu bat egin zen:

1. Zenbaki osoen erregistroa osatu: modu erdi-automatikoan egin zen, ABAtik zetorren informazioa erabilita.
2. Artikuluak eskuz orraztu: aipatu bezala, datu-base artxibistikoaren ikuspegi ez zetorren beti bat eskaintzen zenarekin. Adibide esanguratsuak ziren, adibidez, zenbaki batean baino gehiagotan zatika argitaratutako artikuluak. ABAn, artikuluen horiek erregistro bakarra dute (eta horrela behar du), baina sarean jartzeko, agerkariaren zenbaki bakoitzean zegokion artikuluen zatia eskaini behar genuen. Irizpide desberdintasun hauek konpontzeko, tresna berezi bat sortu zen, eta emaitza bezala sortutako erregistro guztien eskuzko gainbegiratzea egin zen.
3. Zenbakien aurkibideak osorik eskuz orraztu.
4. Bilatzailean iragazki bezala erabiliko ziren eremuak eskuz gainbegiratu.
5. Datu-basea osatu: aurreko bi lanketetan oinarri hartuta, aldizkaria sarean jartzeko datu-base berri bat osatu zen.

Laugarren eginkizuna edo fasea artikuluen eta zenbaki osoen PDF dokumentuak sortzea izan zen. Digitalizazio prozesuaren irteera bezala, zenbaki osoen PDFak gelditu ziren gure eskura. Zenbaki hauek artikuluka zatitzeko prozesu bat jarri zen martxan. Prozesu erdi-automatikoa izan bazen ere, ABAn datu-basea oinarri hartuta, eskuzko gainbegiratze sakona egin behar izan zen, zatiketa fidela izan zedin.

Sarerako tresnaren diseinu estetiko eta funtzionala izan zen hurrengo urratsa.

Helburuetan finkatu bezala, diseinu moderno eta erakargarria nahi zen, betiere agerkariaren izaera bikoitza mantenduz, ikerketaren parte eta bizitza akademi-koarena. Hori gauzatzeko, honako erabakiak hartu ziren:

1. Sarrera-orri edo *home* berri bat garatu: bisualki erakargarria, eskaintzen diren atal guztietara atzipen azkar eta garbia eskainiz.
2. Ikerketa zenbakien atal berezitua sortu.
3. Bizitza akademikoaren atal berezitua sortu. Bereziki landu zen atal hau. Hemerrotekaren ikuspegi klasikotik haratago joan nahi izan zen, eta, Osoko bilkuretako agiri guztiak kontsultatu ahal izateko, urtekako eta agiriaren gaiaren araberrako nabigazioa eskaini zen.
4. Hemerroteka osoa kontsultatzeko atal berezia sortu. Hiru aroak bereizi egin dira, eta hiru aroetako zenbaki guztiak kontsultagai jarri.
5. Ekarpinak egiterako orduan informazio guztia eskuragarri jarri. Hiru atal eskaintzen dira: "Zure ekarpena bidali", ekarpen berriak bidali ahal izateko, eta "Idazketa arauak" eta "Jarraibide etikoak" atalak, bete beharreko ezaugarrien berri ematen dutenak.

Azken fasea bilatzailearen garapena izan zen. Testu libreko bilatzailea nahi zen, baina *Euskera* agerkariaren bolumena eta konplexutasuna kontuan hartuta, lehen prototipoetan jada argi gelditu zen testu libreko bilaketa soila ez zela nahikoa. Irtenbide gisa, emaitzen iragazketa sistema bat jarri zen martxan. Testu librean bilaketa egin ostean, lortutako emaitzak zenbait ezaugarriaren arabera iragazteko aukera dago: zer dokumentu-mota den (araua, adierazpena, gutuna, bilera-akta...), zein liburukitan argitaratu den, Euskaltzaindiko zein saili dagokion (lantaldea, batzordea...), pertsona-izenen araberrakoa (edozein roletan: egilearen izena, aipamena...), urtea, jardunaldiren bateko partaide edo entitatearen araberrakoa (edozein roletan: antolatzailea, sustatzailea...).

Maila teknikoagoan, bilatzaileak *Solr* izeneko teknologia erabiltzen du. Testu libreko indizea osatzerako orduan, informazio guztia hartzen da kontuan, informazio organikoa (metainformazioa) izan zein dokumentuaren testua bera. Indizearen barruan, ordea, informazio guztiari ez zaio balio bera ematen. Asko sinplifikatuz, izenburuari, egileari eta datari, adibidez, pisu handiagoa ematen zaie, baina artiku-

luaren testu osoari, nahiz eta osorik egongo den bilaketa motorrean, pisu txikiagoa ematen zaio. Hau da, garrantzi handiagoa ematen zaio artikuluen metainformazioari testu osoari baino. Horrela, bilaketaren garrantziaren arabera emaitzak eskaini ahal dira, hau da, bilatu den termino(ar)ekin erlazio handiena duten emaitzak gorago agertuko dira beti.

Hau izan da *Euskera* agerkari berritua sareratzeko prozesua. Azaldutako urratsak osatu eta gero, esan dezakegu, ez direla bakarrik IKT batzordeak finkatutako helburuak bete, finkatutako helburu gehigarri guztiak ere bete baitira tresna eguneratu honetan.

Euskera agerkari digital berritua helbide honetan ikus dezakezue: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskera>.

Agiriak

Euskaltzaindia. Batzar-agiriak

Osoko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian

2020ko urtarrilaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Ezin etorria adierazi dutenak: Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Txomin Peillen, Patxi Salaberri eta Xarles Videgain.

Ahalak: Adolfo Arejitak ahala Andres Urrutiari; Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2020ko urtarrilaren 31n, ostiralean, 10:00etan, egin da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urtarrileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

Hasteko, E. Osa idazkariordeak argibideak eman ditu. Izan ere, 12:00etan, 2019an hildako euskaltzainei omenaldia egiteko, Ageriko bilkura egingo da Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi aretoan. Beraz, Osoko bilkura hamabost minutu lehenago amaitzea komeni da.

1. Osoko bilkurako (2019-12-20) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

P. Zabaleta euskaltzainak hiru iruzkin egin ditu. Alde batetik, 3. puntuan, 2. paragrafoko azken esaldiaren ordeztu, hauxe jartzea proposatu du: “garbi laga beharko litzateke elkarte atxikia izateak erakarri ote lezakeen ala ez UZEIko langileak Euskaltzaindiko langile bihurtzea enpresa segidaren bitartez”. Onetsi da.

Beste aldetik, 3. paragrafoaren bukaeran, “lankidetzatza izaerako harremanen bidez” gehitzea proposatu du. Onetsi da.

Azkenik, 4.3. puntua dela eta, honela gera dadin proposatu du: “4.3. Patxi Galék Euskaltzaindiarekin lan-harremana izango du. A. Urrutiak aditzera eman duenez, 2020ko urtarilaren 1etik aurrera Patxi Galé Euskaltzaindiko langilea izango da”. Hau ere onetsi da.

A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2019ko abenduaren 20ko bilkurako bilera-agiria onarturik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XVIII). Aurkeztu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak hitza hartu du eta, M. Azkarate, A. Iñigo eta X. Videgain euskaltzainek eginiko oharra eta egitasmoa kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen txostena aurkeztu du.

A. Iñigok *Chaho/Xaho* grafiari buruz eginiko oharra Onomastika batzordera bideratzea proposatu eta onartu da. Bileran bestelako oharrik egon ez denez, aurkeztutako txostenari oharra egiteko epea zabaldu da, otsailaren 16ra arte.

3. Exonomastika. 36. araua eguneratzea. Aurkeztu.

Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak eguneratu nahi den 36. araua aurkeztu du. Hasteko, testuingurua azaldu du. Araua 1995ekoa da, eta 2006an eguneratze bat eta zuzenketa txiki batzuk egin zitzaizkion. Arauak baditu inkoherentzia batzuk hasieratik, baina 2006ko eguneratzean ez ziren zuzendu. Duela gutxi, Frantziako banaketa administratiboa aldatu egin da, eta, ondorioz, araua

eguneratu beharra dago. Eguneratze horrekin batera, Exonomastika batzordeak arauaren hasierako inkoherentziak konpontzea proposatu du, dauden bezala utziz gero, areagotuko bailirateke banaketa administratibo berriarekin. Inkoherentziak konpontzeko proposamenaren funtsa hau da: araututa dauden ibai-izenak grafia berarekin erabiltzea ibaiaren izenean eta departamendu edo eskualdearen izenean. Eta, horrekin batera, eskualde eta departamenduen izendapenetan toponimoekin batera erabiltzen diren lexiko arrunteko hitzak itzultzea (*ipar, hego, garaia, beherea, itsas...*), inguruko hizkuntzetan egin ohi den moduan.

Araugaiaren dokumentu berrituak bi atal ditu. Alde batetik, eskualdeen banaketa berriari dagozkion izen berriak euskaraz emateko proposamena dago. Beste aldetik, hasierako inkoherentziak konpontzeko proposamena. Bigarren atal hori departamenduen izenei dagokie. Aurkezpenaren ondoren, zenbait galdera egin eta iritzi batzuk eman dituzte euskaltzainek.

A. Inñigok galdetu du *Loira Harana* izendapenean *Harana* hitza zergatik idatzi den letra larriz hasita. Adierazi zaio toponimo geografikoa balitz minuskulaz idatziko litzatekeela, baina toponimo administratiboa dela, izaera juridikoa duen zerbait dela eta horregatik idazten dela letra larriz hasita. Antzera gertatzen da, adibidez, *Marshall Uharteak* kasuan, estatuaren izenaren parte delako idazten da *uharteak* letra larriz hasita.

B. Coyosek *Hauts-de-France* eskualdearentzat proposatutako *Frantzia Garaia* izendapenaren ordezt, *Frantziako Garaiak* proposatu du, jatorrizkoan plurala baita (*Hauts*) eta jatorrizkoaren egiturari jarraitzeko (*de-France* > *Frantziako*). Adierazi zaionean *garai* hitza izenondoa dela, *Frantziako Gainak* proposatu du. Bestalde, *Pays de la Loire* eskualdearentzat proposatutako *Loireria* izendapenaren ordezt, *Loirako Herria* proposatu du, jatorrizko egiturari jarraitzeko. Halaber, *Provence-Alpes-Côte d'Azur* eskualdearentzat proposatutako *Proventza-Alpeak-Kosta Urdina* izendapenaren kasuan, *Urdina* izan beharrean *Azurra* izatea proposatu du, *urdin* hitza frantseztzko *azur* hitzaren ordain egokia ez delakoan. Azkenik, *Seine-Saint-Denis* departamenduarentzat proposatutako *Sena Saint Denis* izendapenaren ordezt, *Sena San Denis* proposatu du, hitz arruntak itzultzea alegia.

P. Zabaletak *eskualde, garai* eta *zentro* hitzei buruz, hau adierazi du: *eskualde* hitza hedadura txikiko lur-eremuak izendatzeko erabiltzen dela eta ez dela egokia eremu handietarako. *Garai* hitzari buruz, ez dela izen moduan erabiltzen. Amaitzeko, *zentro* hitzari buruz, *erdialde* hitza ez ote den egokiagoa iradoki du.

M. Azkaratek *Loira Harana* eta kidekoen kasuan, izen generikoa letra larriz hasita zergatik idazten den arauan esplizitatzeko eskatu du, erabiltzaileek irizpidea zein den jakin dezaten.

Beste alde batetik, B. Oihartzabalek adierazi du izendapen batek pluraleko artikulua izatea eta izendapena bera plurala izatea ez direla berez gauza bera, eta batzuetan zalantzak izaten direla deklinatzeko orduan (adibidez, *Pirinio Atlantikoak*). Hori dela eta, galdetu du ea Exonomastika batzordeak hori aztertua duen.

M. Zalbidek eskatu du, Rhin ibaia Alemaniako ibai nagusia denez eta ibaiaren izena Frantziako bi departamenduren izendapenetan ageri denez (*Bas-Rhin* eta *Haut-Rhin*), arauan, azalpen osagarri gisa, *Rhin Garaia* eta *Rhin Beherea* izendapenak ematen direnean, alemanezko formak ere zehaztea beste hizkuntzetako formak ematen badira.

Azalpenen eta iritzi-trukearen ondoren, otsailaren 17ra arteko epea jarri da oharrak egiteko. Dokumentua formatu elektronikoan bidaliko zaie hala egitea eskatu duten euskaltzainei.

4. Esku artekoak.

4.1. Juan Antonio Letamendia euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. 2019ko abenduaren 24an zendu zen Hondarribian, 79 urte zituela. Donostian jaio zen, 1940ko urriaren 8an. Filologia Erromanikoan lizentziaduna zen (Deustuko Unibertsitatea) eta Hondarribiko Talaia Institutuko katedradun izatetik erretiroa hartuta zegoen. 1975ean euskaltzain urgazle izendatuta, Euskaltzaindiko Gramatika batzordeko idazkaria izan zen (1978-1980); baita Dialektologiakoan ere (1980-1982). Hilberri txostena 2021eko urtarrilean irakurriko da.

4.2. Jean Baptiste Etxarren euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri. Jean Baptiste Etxarren euskaltzain urgazlea zendu da urtarrilaren 30ean, 91 urterekin. Gaur izango da ehorzketa, Nafarroako Auritz herrian, 16:00etan. Donazaharren (Nafarroa Beherea) jaio zen Etxarren, 1928ko irailaren 26an. Espainierako Goi Ikasketetan lizentziaduna (Bordeleko Unibertsitatea). Donibane Garaziko Jean de Maiorga Ikastegiaren zuzendari izatetik erretiroa hartuta zegoen. *Les Amis de la Vieille Navarre* elkarteko kidea zen. Euskaltzain urgazle izendatua izan zen 1979ko abenduaren 20an.

4.3. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak.

- Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxean, otsailaren 27an, “Euskara Ibiltaria” aurkeztuko da hedabideen aurrean. Erakusketa otsailaren 28an, 19:00etan, aurkeztuko da jendartearen Oihaneder Euskararen Etxean.
- Bilbon, otsailaren 28an, 10:00etan, Osoko bilkura egingo da, Bizkaiko Foru Aldundian. Izan ere, 1920ko otsailaren 16an, Euskaltzaindiak lehenengo Osoko bilkura egin zuen Bizkaiko Foru Aldundian, beraz, hori kontuan hartuz, Osoko bilkura han egingo da.

5. Azken ordukoak.

P. Zabaletak hitza hartu du eta A. Urrutia euskaltzainburuari zorionak eman dizkio, Sabino Arana Saria eman diotela eta. Osoko bilkuran beste horrenbeste egin dadin erabaki da.

Era berean, P. Zabaletak kezka agertu du Iruñeko Udalak haur-eskoletako euskarazko eskaintza murriztu duela eta. Halaber, proposatu du Euskaltzaindiak zerbait egin ote lezakeen azter dezan. Zuzendaritzak gaia aztertuko du hurrengo bilkuran.

A. Urrutiak Euskaltzaindiak argitaratu berri duen Jose Agerre Santestebanaren *Biografía de Arturo Campión* liburuaren aipamena egin du. Argitalpen hori *Euskaltzainak bilduman* argitaratu da eta liburu horren hitzaurrea S. Aleman eta P. Zabaleta euskaltzainek paratu dute.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi Aretoan

2020ko urtarrilaren 31n

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, aurreko urtean hil ziren Jon Lopategi, Angel Aintziburu eta Txomin Solabarrieta ohorezko euskaltzainen eta Alan Roy King euskaltzain urgazlearen hilberri-txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Xabier Amuriza, Xipri Arbelbide, Luis Baraiazarra eta Julen Urkitza.

Euskaltzain urgazleak: Juan Luis Goikoetxea, Elisabete Perez Gaztelu eta Xabier Mendiguren.

Erramun Osa euskaltzain urgazlea eta idazkariordea.

Markel Olano, Gipuzkoako Foru Aldundiko diputatu nagusia, eta Garbiñe Mendizabal, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko foru zuzendaria.

Euskaltzaindikoko langileak: Ibon Usarralde egitasmoen bateragilea, Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria, Iñaki Mendizabal Komunikazio eta Irudi arduraduna eta Maixa Goikoetxea Gipuzkoako ordezkariatzako administraria.

Gaur omenduriko euskaltzainen hainbat senide eta lagun.

Euskaltzaindiak urtarrileko Ageriko bilkura baliatu du aurreko urtean hildako euskaltzainei gorazarre egiteko. Horrela, iaz zendutako Jon Lopategi, Alan Roy King, Angel Aintziburu eta Txomin Solabarrieta omendu ditu Akademiak Gipuzkoako Foru Jauregian.

Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak hurreratu diren guztiak agurtu ditu, bereziki, gaur omenaldia jasoko duten euskaltzainen senideak. Era berean, gogorarazi du iaz ospatu zen Euskaltzaindiaren Mendeurreneko azken ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundian egin zela eta azpimarratu du erakundearen eta Euskaltzaindiaren artean urte luzetan egon dela lankidetzaren emankorra euskara biziberritzearen eta euskal kulturgintza sustatzaren inguruabarrean. Era berean, joan den urtean hil ziren euskaltzainek herri honen alde eginiko lana gogorarazi du.

Andres Urrutia euskaltzainburuak nabarmendu du zendutako euskaltzainek euskararen eta euskal kulturaren alde erakutsi zuten konpromisoa, eta goraipatu du gure hizkuntza sustatzeko guztiek egin zuten ahalegin eskerga, zeinek bere alo-
rean, nork bere lurraldetik Euskal Herri osoa xede zuela.

Ostean, Xabier Amuriza ohorezko euskaltzainak irakurri du Jon Lopategiren hilberri-txostena; Luis Baraiazarra ohorezko euskaltzainak aletu du Txomin Solabarrietaren biografia; Miren Azkarate euskaltzain osoak Alan Roy King-ena; eta, azkenik, Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainak Angel Aintzibururena. Peio Ospital, Mixel Ducau eta Paul Smet musikariek girotu dute ekitaldia; hiru kantu ezagun abestu dituzte: *Arnasak gurutzatuz*; *Zu eta ni*; eta *Bake-mina*.

Xabier Amurizak urte luzetan bidelagun izan zuen Jon Lopategi Lauzirikaren (1934-2019) bizitza aletu du. Muxikako Ariatza auzoko Aldauri baserrian jaio zen Lopategi bertsolaria. Hamabi urterekin sakramentinoetan sartu zen, eta hogeita birekin utzi zion fraide izateko asmoari. 1960an hasi zen Bizkaiko bertsolari-txapelketetan parte hartzen: 1962tik 1987ra bitarteko laurak irabazi zituen. Euskal Herriko sei final jokatu zituen, 1982an eta 1986an txapeldunorde, eta 1989an txapeldun izatera iritsi zen. 1965etik 1990era bitartean, bat-bateko bertsogintzaren eredu nagusietako bat izan zen Euskal Herri osoan. 80ko hamarkadaren bigarren erditik erretiratu zen arte, eragilerik garrantzitsuena eta emankorrena izan zen Bizkaiko eskolak eta gazteen bertso-eskolak sustatzen.

Luis Baraiazarrak Txomin Solabarrieta Etxaburu (1927-2019) izan du hizpide. Ondarroako semea; apaiza; euskaltzalea, kantu eta musikazalea. Ondarroako arrantzale-familiakoa zen Solabarrieta, halako giroan hazia eta bizi izana, batez ere, umezaroan; horrek arrastoa utzi zion bizitza osoan. Luis Baraiazarrak Solabarrietaren hitz hauek gogoratu ditu gaurkoan: “Ondarroa herri kantaria izan da. Tabernetan, fabriketan... baporetan ere bai, diotenez. Guk ume-umetatik, entzunaren entzunez, bertso zahar asko ikasi genituen eta mota askotako abestiak”. Bestelako kontuak ere nabarmendu ditu Baraiazarrak: “Herrian eta herriko kulturen sartu-sartua egon zen beti Txomin; guztiei on egiten, laguntzen. Taldean lan egitea zuen batez ere maite. ‘Bostak bat’ taldean, azpimarratzekoa da Txominen zorrotasun eta fintasuna eta, arlo batzuetan, batez ere (itsasoaz zerikusia dutenetan, adibidez), taldeari eman zion ziurtasuna”.

Miren Azkaratek Alan Roy King izan du gogoan. Zendutako euskaltzain urgazlea Lytham St. Annes-en jaio zen (Ingalaterra, Erresuma Batua) 1954ko urriaren 24an, eta Hizkuntzalaritzan doktorea zen (Londresko Unibertsitatea). Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeko kide izan zen 1985etik, eta Akademiak urgazle izendatu zuen 2003ko urtarrilaren 31n. Bere idazlanen artean daude *Atalase maila* (1988), *The Basque language* (1994) eta *Colloquial Basque* (1996). Gaurko ekitaldian, Miren Azkaratek gogoratu du “gramatikaz eta hizkuntzen bizitzaz arduratua eta konprometitua” egon zela beti euskaltzain urgazlea, hizkuntzekiko miresmena baitzen Roy King-en ezaugarri nabarmenetako bat. “Eta miresmenak zekarren ondoren konpromisoa. Alanek argi zuen hizkuntza batek kultura islatzen duela”, adierazi du Azkaratek. Hala berean, adierazi du “Alani hizkuntzek nola funtzionatzen duten aztertzea” interesatzen zitzaioela, hau da, “gramatikak eta hizkuntzak nola irakatsi lantzea”. “Ondo-ondoan izan dugu euskara deskribatzeko ahaleaginean; gai zen, gainera, gai edo puntu jakin bat beste hizkuntza batzuekin konparatzeko, eta, hartara, gure deskribapena aberasteko”.

Xipri Arbelbidek Angel Aintziburu hartu du hizpide. Aintziburu Luzaiden jaio zen, Nafarroan, 1930eko uztailaren 3an. Euskaltzaindiak 2014an izendatu zuen ohorezko euskaltzain, euskararen mesedetan egindako lanengatik. Aintziburuk

2002an argitaratu zuen Luzaideren inguruko lehen liburua, *Luzaiden gaindi* (Elkar), Jean-Baptiste Etxarrenekin batera, eta 2009an berak bakarrik argitaratu zuen lehengoaren segidako lana *Luzaiden gaindi II* (Elkar). Lan horietan, Nafarroako udalerri horren historia aztertu zuten egileek, eta bertako ohitura, bizilagun eta biztanle ezagunenen inguruan idatzi zuten (tartean, Juan Etxamendi *Bordel* bertso-laria gogoratuz). Xipri Arbelbidek Aintzibururen bestelako jardunak ere aletu ditu, urte luzez kazetari lanetan ibili zela gogoratuz. Irulegiko irratian, Luzaideko berrie-mailea izan zen urteetan, eta, horrezaz gain, Irati irratian (Aezkoa) eta Euskalerria irratian (Iruñerria) ere jardun zuen.

Ekitaldiari 13:00etan amaiera eman zaio Peio Ospital, Mixel Ducau eta Paul Smet musikariek kantaturiko *Bake-mina* kantuarekin eta A. Urrutia euskaltzainburuaren esker oneko berbekin.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundian

2020ko otsailaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun, zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Beñat Oihartzabal eta Patxi Salaberri.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari (10:20-13:20 bitartean); Patxi Salaberri ahala Andres Urrutiari.

Batzarra 2020ko otsailaren 28an, os-tiralean, 10:00etan, egin da Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundian. Bilkura hasi aurretik, 09:45 direnean, Unai Rementeria Bizkaiko ahal-dun nagusiak, Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol saileko foru diputatuak eta Xabier Arauzo Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusiak harrera egin diete euskaltzainei.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, otsaileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-01-31) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko urtarrilaren 31ko bilkurako bilera-agiria onetsirik gelditu da.

2. *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak.* Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XVIII). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak hitza hartu du. Aditzera eman duenez, urtarrileko bileran aurkeztutako oharrei inork ez die iruzkinik egin. Nolanahi ere, *haize* eta *heze* formak direla eta, oharrak egin ditu P. Zabaletak. Batzorde Ahaldunduko arduradunak eta idazkariak egitasmoko kideen proposamena azaldu dute (*haize* sarreran adiera berria jasotzea, ohargileak eskatu duen bezala, eta *heze* bere horretan mantentzea), eta onartu egin da.

Bestalde, urtarrileko bileran *Chaho/Xaho* grafia erabaki gabe geratu zen, eta Onomastika batzordeari egin zaio kontsulta. Batzordeak hiri-toponimiarako zehaztu duen irizpidearen arabera, hau da, “XX. mendea baino lehen zendutako Euskal Herriko pertsonen deiturak idazteko, euskal grafia akademikoa erabiltzea, euskaratuaren grafia alegia, salbuespenak salbuespen”, *Xaho* proposatu eta onartu da.

3. *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak.* Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XIX). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu dute Batzorde Ahaldunduko A. Sagarna arduradunak eta M. Urkia idazkariak, M. Azkarate eta A. Iñigo euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituenak. Aurkeztepe-naren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, martxoaren 16ra artekoa.

4. Exonomastika. 36. araua eguneratzea. Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Alfontso Mujika Exonomastika batzordeko idazkariak hitza hartu eta txostena banatu du. Txosten horretan, egindako ohar guztiak eta ohar bakoitzari Exonomastika batzordeak emandako erantzunak jasotzen dira.

M. Azkaratek, P. Zabaletak eta X. Videgainek egin dituzte oharrak. Ohar horiei erantzuteaz gainera, urtarrileko bilkuran, aurkezpena egin zenean, A. Iñigok, B. Coyosek, M. Azkaratek eta B. Oihartzabalek ahoz egindako ohar-galderentzako erantzuna ere prestatu du batzordeak. Oharrak eta erantzunak banan-banan entzun, eztabaidatu eta ebatzi dira, batzuetan bozkatu beharrik gabe eta, beste batzuetan, iritzi nagusia zein den jakiteko, bozkatuta. Bozkatu diren guztiak gehiengo zabal batez onartu dira.

Horrela, ondokoak onartu dira: Hauts-de-France, Frantzia Garaia; Pays de la Loire, Loirerria; Côte d'Azur, Kosta Urdina; Seine-Saint-Denis, Sena Saint Denis.

Bestalde, botoetara eraman beharrik izan gabe, bestelako erabaki hauek hartu dira: Loira Harana eta gisako leku-izenetan, izen generikoa hasierako letra larriz zergatik idazten den azaltzeko, ohar hau jarriko da arauaren bertsio berrian: “Leku-izena elementu geografiko hutsa denean, izen generikoa letra xehez hasita idatzi ohi da: Anboto mendia Bizkaian dago, Ebro ibaiak Nafarroa zeharkatzen du, Kanaria uharteak Atlantikoan daude eta abar. Leku-izenak izaera administratiboa duenean, estatu baten izena denean edo estatu baten lurralde-antolaketaren atala denean eta hori adierazi nahi denean, izen generikoa izendapenaren parte da, eta letra larriz hasita idazten da: Marshall Uharteak Mikronesiako estatu bat da, Rodanoren Ahoak eskualdea, Loira Harana eskualdea eta abar”.

Centre eskualdea, Erdialdea geratu da; jatorrizko *Terres Australes et Antarctiques Françaises* leku-izenean, berriz, orain arte araututako antzeko izenetan nola jokatu den ikusi ondoren, “lurralde” hobetsi da: Frantziaren Lurralde Austral eta Antartikoak; jatorrizko Val de Marne eta Val d'Oise leku-izenak Marne Harana eta Oise Harana moduan emango dira, Loira Harana leku-izenaren molde berean, hain zuzen; azkenik, pluralezko forma duten leku-izenetan subjektuaren eta aditzaren arteko komuntadurari buruz B. Oihartzabalek urtarrilean ahoz egindako oharren harira, Exonomastika batzordeak gaingiroki aztertu du, eta adierazi du zailantza izan litekeela atribuzio-perpauzetan aditz jokatuak singularra edo plurala izan be-

har duen (**Pirinio Atlantikoak dira** Akitaniako bigarren departamendua, biztanleriari dagokionez / **Pirinio Atlantikoak** Frantziako 64. departamendua da), kontuan izanik gaztelaniaz eta frantsesez bietara erabiltzen dela. Gaia ez dagokio berez onomastikari. M. Azkaratek gaia aztertzeko engaiamendua hartu du.

Oharrak eztabaidatu eta ebatzi ondoren, onartuta gelditu da arauaren bertsio berria. P. Zabaletak eta P. Uribarrenek ontzat emandako araua nola gelditu den osotasun batean ikusteko eskaria egin dute. Ondorioz, araua argitara eman aurretik, hartutako erabakiekin euskaltzainei araua berriz igortzea onetsi da.

5. Esku artekoak.

5.1. Andres Iñigo euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. 2020ko otsailaren 17an, 75 urte egin dituen gero, Arautegiaren laugarren bis artikulua eta Barne-erregelen 5.1 xedapenaren arabera, Andres Iñigo euskaltzaina euskaltzain emeritu izatera igaro da. Horiek horrela, hutsarte iragartzen da Arautegiaren 33. artikulua arabera.

Hutsarte "hornitzeko proposamenak hurrengo bi batzarretan aurkeztu ahal izango dira" (Arautegiaren 33. artikulua eta Barne-erregelen 64.3 xedapena). Horrela, gogorarazi da Arautegiaren 34. artikulua dioena: "Euskaltzain osoa izateko proposamena hiru euskaltzain osok izenpetu behar dute. Proposamenaz batera, zerrenda bat egin behar da, hautagai bakoitzak dituen merezimenduak xeheki aipatuz".

5.2. R. M. Azkue Sariak 2019. Epaimahaikoak izendatu ditu Zuzendaritzak, 2020ko urtarrilaren 14an eginiko bilkuran. Hona hemen izendaturikoak:

A maila: Miren Billelabeitia, Igone Etxebarria eta Manuel Lopez Gaseni.

B maila: Yolanda Arrieta, Amaia Jauregizar eta Patxi Zubizarreta.

5.3. Aurkezpenak eta bilkurak. Hurrengo Osoko bilkura bitartean begiz jotako aurkezpenak eta bilkurak aditzera eman dira.

Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxean, "Euskara Ibiltaria" erakusketa aurkeztuko da otsailaren 27an, gaur, 19:00etan.

Donostian, martxoaren 4an, *Gipuzkoako herrien izenak* liburuaren eta horren bertsio digitalaren aurkezpena egingo da, Gipuzkoako Foru Aldundian, 11:30ean. Patxi Salaberrik eta Luis Mari Zalduak paratu eta Izenak bildumaren barruan argitaratu da liburua.

Gasteizen, martxoaren 27an, 10:00etan, Osoko bilkura egingo da, Eusko Legebiltzarrean.

6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Uriarte,
idazkaria

Osoko bilkura

COVID-19a dela eta, era telematikoan

2020ko maiatzaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia
Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”,
Joseba Lakarra, Txomin Peillen, Patxi
Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala
Xarles Videgaini; Jose Irazu “Bernardo
Atxaga”k ahala Andres Urrutiari;
Joseba Lakarrak ahala Miren Lourdes
Oñederrari; Mikel Zalbidek ahala
Andres Urrutiari.

COVID-19a dela eta, herri-agintariei hartutako erabakiei eta emaniko jarraibideei men eginez, batzarra era telematikoan egin da, 2020ko maiatzaren 29an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu ditu, modu telematikoan eginiko deialdiaren arrazoiak azaldu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-02-28) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko otsailaren 28ko bilkurako bile-

ra-agiria onetsirik gelditu da.

2. Ageriko bilkuretakeo (2019-03-30 eta 2019-05-04) bilera-agiriak onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, bi ageriko bilkuretakeo bilera-agiriak onetsirik gelditu dira.

3. COVID-19a dela eta, Euskaltzaindian hartutako erabakien berri.

COVID-19ari aurre egin ahal izateko herri-agintariak hartutako erabakiak kontuan hartuz, A. Urrutiak aditzera eman du Euskaltzaindiaren egoitza eta ordezkariak itxita egon direla eta Euskaltzaindikoko langileek telelana egin dezaten sustatu dela. Orain, poliki-poliki, langileak egoitzara eta ordezkarietara bueltatzen ari dira eta telelana sustatzen ari da langile batzuen kasuan, osasun-arrazoiak tarteko, telelanean segitzea komenigarri denean, bai eta adineko edo umeak zaintzeko premia dutenen kasuan ere. Osoko bilkurei dagokienez, martxoan eta apirilean ezin izan dira egin. Maiatzekoa, ordeza, egiteko aukera izan da, ezohiko moduan, era telematikoan, hain zuzen. Ekainekoa aurrez aurre izateko aukerarik egonez gero, halaxe egingo da, eta bestela, modu telematikoan.

Bilkurak luzaroan era telematikoan egin behar izanez gero, egon badago arazo bat Osoko bilkurak erabakiak hartu ahal izateko eraren inguruan. Ondorioz, egoera luzatuz gero, Zuzendaritzak gaia aztertu eta proposamen bat ekarriko du Osoko bilkurara.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XIX). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak hitza hartu du. Aditzera eman duenez, otsaileko bileran aurkeztutako oharrei inork ez die iruzkinik egin. Ondorioz, otsaileko Osoko bilkuran aurkeztutako proposamenak, bere horretan, onetsi dira.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XX). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu dute Batzorde Ahaldunduko A. Sagarna arduradunak eta M. Urkia idazkariak, M. Azkarate eta A. Iñigo euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 15 artekoa.

6. Onomastika: Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak arauaia. Aurkeztu.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak azaldu du santutegiko izenen arauak emendatu eta eguneratu ondoren, Nafarroako errege-erreginen izenak landu dituela batzordeak eta gaurkoan araugai gisa aurkezten duela. Alfontso Mujika Onomastika batzordeko idazkariari hitza eman dio araugaiaren azalpen teknikoa egiteko.

A. Mujikak azaldu du Exonomastika batzordeak munduko pertsona-izenak landu dituela 2013az geroztik eta, langintza horretan, munduko errege-erreginen izenak ere landu direla. Zehazki, 2017an, 186. araua onartu zuen Euskaltzaindiak, eta hartan eman zituen Akademiak errege-erreginen izenen grafiari buruzko irizpide-gomendioak. Arau horretan, munduko hainbat izen eman ziren, tartean gure inguruko (Aragoi, Gaztela, Frantzia, Espainia...) errege eta erregina askorenak. Nafarroakoak, ordea, nahita ez ziren eman, bi arrazoiengatik: batetik, Euskal Herriko pertsona-izenak eta ezaugarri berezikoak izanik, Onomastika batzordeak landu behar zituelako, eta bestetik, hemengo pertsona-izen garrantzitsuak direnez, kanpoko pertsona-izenak baino modu xeheagoan landu eta aurkeztu nahi zirelako.

Bilketa-lana egin ondoren, izenen gaineko irizpideak aztertu zituen batzordeak: izen horiek santu eta santen izenekin bat datozenean, santutegiko izenen grafia berak erabili dira, eta, santutegiko zerrenda arautuan agertzen ez diren izenak direnean, Onomastika batzordeak landutako *Euskal izendegia* erabili da. Azkenik, identifikatzaile patronimikoak agertzen direnean, P. Salaberrik egindako azterketatik ateratako ondorioak aplikatu dira; alegia, Onomastika batzordeak landutako *Deituren izendegia* lanean erabilitako berak.

Araugaiaren parte nagusia taula da: ordena kronologikoan aurkezten dira errege-erreginak, dinastia ere zehaztuta (dinastien izenatarako, 182. arauan —*Dinastien izenak*— emandako irizpideak erabili dira). Izenaz gainera, izengoitia ere paratu da, dagoenean, eta erreinaldi-urteak eta noiz jaio zen eta noiz hil. Horretaz gainera, ezkontide(ar)en izena(k) eta seme-alabena ageri dira. Gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko ordainak ere jaso dira.

Zalantza egin du batzordeak taulari amaiera emateko orduan. Zehazki, zalantza da ea Gaztelak eta Aragoik 1512an Nafarroa inbaditu ondoren izan ziren errege-erreginak zerrendan bildu behar diren ala ez: Fernando I.a sartu behar den edo han eman behar zaion amaiera taulari (Nafarroako Erresumak 1530etik 1620ra bitartean Nafarroa Beherean izan zuen jarraipena, bestalde, ageri da taulan), eta horri buruzko iritzia eskatu dio Osoko bilkurari. Banatu den taulan oharretarako zutabe bat dago, eta oin-ohar asko daude, izenak nondik atera diren jakiteko eta datuen iturriak ikusteko. Zutabe lagungarri hori eta oin-ohar gehienak barne-erabilerakoak dira, eta ez dira argitaratzekoak.

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 15 artekoa.

7.1. Esku artekoak.

7.1. Pierre Andiazabal ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Urruñan 1923an sortua, Kanboko Arditeya zahar-etxean zendu zen, maiatzaren 16an, 97 urte zituela. 1964. urteaz geroztik, euskaltzain urgazle zen eta 2000ko urriaren 27an ohorezko euskaltzain izendatua izan zen.

Garrantzi handia izan zuen meza euskaraz ematearen aldeko mugimenduan. Bere idazlanen artean, aipatu izan dira *Meza denborako deiak* (1961), *Igandetan elizan [prest]* (1988) eta *Mezatako deiak* (1986-1988). Azkenetakoa, *Igande eta bestetako irakurgaiak*, 2008an argitaratu zuen.

7.2. Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko urteko bilkuraren berri. Euskaltzaindiaren Ipar Euskal Herriko urteko batzarra martxoaren 30ean, astelehenean, egiteko bazen ere, azkenean, izurritearen ondorioz, atzeratu beharra suertatu zen. Urteko batzar hori era telematikoa egin zen maiatzaren 11-15 bitartean. Horrela, bozketan parte hartu zuten euskaltzain osoek eta emerituek urteko Oroitza eta 2019ko Kontuen txostena onartu zituzten.

7.3. Euskaltzaindiak eta UZEIk bi erakundeon arteko lankidetzahitzarmen berria izenpetu zuten 2020ko apirilaren 24an. A. Urrutia euskaltzainburuak eta UZEIko lehendakari Jon Etxabek sinatu zuten bi erakundeen arteko hitzarmen berria. Orain arteko lankidetzaren sendotu eta zabaltzen duen hitzarmena telematikoki sinatu zuten, COVID-19aren pandemiari aurre egiteko hartutako neurriak direla eta. Hitzarmen berriak hiru arlo hauetan lankidetzaren areagotzea du helburu: batetik, abian diren ikerketetan sakontzea eta ildo berriak irekitzea, bestetik, eza-gutzaren transferentzia, eta, azkenik, egitasmo eta aplikazio berriak abian jartzea, bereziki, eremu digitalean.

7.4. Hurrengo Osoko bilkura. Ekainaren 26an egingo da, ahal dela, aurrez aurre eta, ezin bada, era telematikoan.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:40 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Uriarte,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2020ko ekainaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Toledo, Ana,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiarri; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean egin da, 2020ko ekainaren 26an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, ekaineko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-05-29) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

Oharrik ez da jaso. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko maiatzaren 29ko bilkurako bilera-agiria onetsirik gelditu da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduen oharra (XX). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Batzorde Ahaldunduko idazkariak, M. Urkiak, maiatzeko bilkuran aurkeztutako aztergaiari M. L. Oñederra, P. Zabaleta eta P. Salaberri euskaltzainek eginiko oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak aurkeztu ditu.

Ia denak onartu dira. P. Zabaletak *epe* sarrerako ‘patxada’ adieran (aztergaitik kanpoko) ezezka osatutako adibide bat gehitzea eskatu du, eta hala onartu da. Bestalde, egitasmoko kideek Onomastika batzordeari eskatu diote argi ditzala santu- edo errege-izendegietatik ez datozen izen arruntak erabiltzeko irizpideak, EODAn aldaera modura ageri direnak, alegia, *Henrike* forma arautuarekin batera *Endrike* eta *Endika* aldaera gisa datoz, baina ez noiz eta nola erabil litezkeen horiek.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak aditzera eman du gaia berariaz aztertuko dutela eta, dezaketen neurrian, erantzuna ekarriko dutela.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduen oharra (XXI). Aurkeztu.

Zerrenda berria aurkeztu du Batzorde Ahaldunduko M. Urkia idazkariak, A. Iñigo, M. Azkarate eta X. Videgain euskaltzainek egindako oharra eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Horiekin batera, aparteko dokumentu batean, *husna* auziari buruzko datuak jaso eta aurkeztu dira. Ez dago adostasunik etxe barruko argitalpenetan forma honen erabilera-zuzentasunari buruz, eta behingoz erabaki bateratua hartzea komeni dela uste dute egitasmoko kideek.

Aurkezpenaren ondoren, oharra egiteko epea zabaldu da, uztailaren 10era arte.

4. Onomastika: Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak araua. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak eta Alfontso Mujika batzordeko idazkariak M. Azkarate eta P. Zabaleta euskaltzainek eginiko oharra eta Onomastika batzordeak landutako erantzunak aurkeztu dituzte.

Azalpenen aurretik, euskaltzainburuak esan du P. Zabaletak oharrak egiteko epea luzatzea eskatu duela eta, horrenbestez, uztailaren 10era arte zabalik mantenduko dela oharrak egin ahal izateko.

Lehenik, M. Azkarateren oharrak aztertu dira.

Lehen oharrean, batzordekideek azaldu dute *Gartzeitz* forma proposatzen dela kasu guztietarako, eta ez *Gartzeiz*; alegia, *Gartzeiz* agertzen den bi kasuetan *Gartzeitz* behar duela, errorea izan baita.

Bigarren oharrean, batzordea ados dago: *Gartzia I.a* (edo *II.a*) *Santxitz* jartzea eta oin-ohar batean auziaren berri ematea.

Hirugarren oharrean, *Ines/Aines* kasuan, batzordea ados dago: bitan agertzen da, eta bietan berdin jarri behar litzateke. Zer jatorri zuten eta non bizi izan ziren kontuan izanik, aldaera bakarra jartzekotan *Aines* aldaera jartzea proposatu du batzordeak. Ontzat eman da.

Laugarren oharra galdera da. Batzordeak adierazi du *Trastámarako etxea* 182. arauan ageri dela eta arauari jarraituz idatzi dela grafia horrekin. Horren harira, gogorarazi da diakritikoen gaiari buruzko bateratze-lan bat egiteko eskatu ziola Osoko bilkurak Onomastika batzordeari iazko uztailan eta lan hori ia amaitu dagoela eta laster aurkeztuko zaiola Osoko bilkurari.

Azken oharrean, M. Azkaratek Fernando I.a zerrendan ez sartzearen aldeko iritzia eman du. Batzordea ados dago, baina gai horri buruzko erabakia Osoko bilkurak hartzeko eskatu zuen. P. Zabaletak ere horri buruzko oharra egin du, eta ohar guztiak ebatzi ondoren erabaki beharko da.

Ondoren, P. Zabaletaren oharrak aztertu dira.

Lehen oharrean, eztabaidatzeko epea luzatzea eskatzeaz gainera, proposatu du errege-erreginen zerrenda nagusiaz gain beste bi eranskin egitea: Ipar Euskal Herrikoa edo kontinentala, Nafarroako Henrike III.aren hasita, Frantziako Luis XIV.ak “Nafarroako errege” tituluari uko egin zion arte; eta Hego Euskal Herrikoa edo penintsularra, Joana II.a Gaztelakoarekin hasita, 1839ra arte. Halaber, proposatu du zerrenda osagarri bat egitea Gaskoiniako Dukerriarekin. Batzordeak gogorarazi du Euskaltzaindiaren egitekoa izenen grafia finkatzea dela, eta infor-

mazio historikoak ematea ez dela Akademiaren berezko eginkizuna. P. Zabaletak proposatutako bi eranskinetan sartuko liratekeen errege-erreginen izen guztiak araututa daude jada 186. arauan, Nafarroakoak ez ezik, Espainiako edo Frantziako errege-erreginak ere izan zirelako. Horregatik, batzordearen ustez, izenen grafia finkatzeari dagokionez, ez da beharrezkoa. Gaskoiniako Dukerriko dukeen zerrendari dagokionez, badira batzuk arautuak Erdi Aroko pertsona-izenen arauetan: *Lupo*, *Oto*, *Hunaldo* (180. araua), *Amando*, *Genial* (181. araua). Exonomastika batzordean landu ziren, eta izen entzutetsuenak bakarrik hartu ziren. Osoko bilkurak uste badu hala ere komeni dela eranskinak eta Gaskoiniako dukeen zerrenda osagarria prestatzea eta arau honetan sartzea, dagokion batzordeak landu beharko ditu eta Osoko bilkurara ekarri.

Kontu hori hurrengo bileran erabakitzeke gelditu da.

Bigarren oharrean, batzordea ados dago izenburua moldatzearekin, garbi uzteko erresuma bat izan zela eta ez bi. Beraz, arauaren izenburua < *Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak* > izan beharrean, < *Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak* > jartzea proposatu du. Hala onartu da.

Hirugarren oharrean, errege-erreginen izenetan kardinalak adierazteko puntua kentzeari dagokionez, batzordeak esan du Euskaltzaindiak 1994an, 18. arauan, arautu zuela kardinalen idazkera eta arau horren arabera idatzi direla orain arteko arau guztiak. Araua aldatzen ez den bitartean, hala idatziko dira. Proposamena, beraz, ez dagokio orain aztertzen ari den araugaiari.

Laugarren proposamenean, *Eneko* Aristaren ordeztasun *Eneko* Aritza jartzea proposatu du P. Zabaletak. Batzordeak izen-aldaeren azterketa xehea egin du (banatutako dokumentuan ageri da), eta garbi ageri da testigantza historikoetan *Arista*, *Aresta* eta *Ariesta* formak ageri direla iturririk zaharrenean eta *Arista* dela aldaera nagusia. *Aritza* forma XIX. mendearen amaieran agertu zen, Arturo Campiónek asmatua, antza denez.

Gai hori ere hurrengo bileran erabakitzeke gelditu da. Horrela, denbora faltagatik, azken oharra ezin izan da eztabaidatu, eta hurrengo bilerarako utzi da.

5. Esku artekoak.

5.1. Andres Iñigo euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko hautagaiak. Hutsartea betetzeko bi hautagai aurkeztu dira. Alde batetik, S. Aleman, R. G. de Viñaspre, A. Iñigo, P. Salaberri eta M. Urkia euskaltzain osoek Paskual Rekalde Irigoien euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Beste aldetik, M. Azkarate, M. L. Oñederra eta P. Zabaleta euskaltzain osoek Paula Kasares Corrales euskaltzain urgazlea aurkeztu dute.

Bi hautagaien aurkezpen laburra:

Paskual Rekalde Irigoien: Amaiur, 1963. Euskal Filologian lizentziaduna da EHUUn. Gaur egun, Nafarroako Gobernuko euskara itzultzailea da eta Eusko Jaur-laritzako Terminologia batzorde bereziko kidea.

Zenbait lan eta artikulua argitaratu ditu euskara batuaren eta euskalkien eta Baztango euskararen inguruan. Horien artean daude Mariano Izeta zenaren *Baztango Hiztegia* eta *Dirua galgarri* lanen edizioa, eta Baztango, Malerrekako eta Bortzirietako agiri zaharretako zenbait toponimo eta oikonomoren inguruko lanak, Andres Iñigorekin batera prestatuak.

Euskaltzain urgazle 2003an izendatua eta Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkariorde, 2018an. 2000. urtean hasi zuen ibilbidea Akademian, eta gaur egun zenbait batzorde eta lantaldetako kide da (Corpus, Euskalkiak, Euskaltzaindiaren Hiztegia, EBE, Gramatika eta Onomastika) eta, orobat, HIZBEA (Hizkuntza Kalitatearen Behatokia) zerbitzuaren arduraduna.

Paula Kasares Corrales: Iruñea, 1969. Soziolinguistika arloan garatu du ikasketa eta lan ibilbidea. Doktorea da eta graduak nahiz graduondoak egin ditu euskal filologian, antropologian eta hizkuntza plangintzan.

Lan jarduna euskararen normalizazio teknikari lanetan hasi zuen, 1994an. 2001etik 2003 bitartean, Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendaria izan zen eta egun, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuko zuzendaria da eta, orobat, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza eta Hezkuntza Zientzien Sailean irakasle dihardu.

Ikerketari dagokionez, soziolinguistika, hizkuntza eskubide eta hizkuntza antropologia alorretako hiru libururen eta hainbat artikuluren egilea da. Komunikazio eta hitzaldi ugari eman ditu Euskal Herriko nahiz atzerriko biltzar-mintegietan eta,

hondar hamarraldian, familian haurrak euskaldun haztearen gaineko hedapen eta sentsibilizazio jarduerari loturik ibili da. 2006tik euskaltzain urgazlea da.

5.2. 2020ko urte bukaerarako Euskaltzaindiaren diruzaintzaren aurreikuspenak. A. Urrutiak azaldu duenez, 2020ko dirulaguntzak bideratuta daude, eta kasu batzuetan gauzatu dira lehen kobrantzak. Aurreko urteekin alderatuz gero, ez dago aparteko atzerapenik. Horrela, urtero egiten den legez, maiatzaren 12an izenpetu zen kreditu lerroa Kutxabank-ekin. Izan ere, finantza erakunde horrek, Eusko Jaurlaritzaren urteko dirulaguntza aurreratzen dio Euskaltzaindiari, urteko ordainketak gauzatzeko moduan egon dadin. Beraz, egungo diruzaintzaren egoerarekin eta hurrengo hilabeteotako kobrantzen eta ordainketen aurreikuspenekin, Euskaltzaindiak segurtatuak ditu heldu den urteko Aste Santu arteko ordainketa guztiak.

5.3. Gaur banatu diren liburuak. Hiru argitalpen banatu dira:

Anton Ugartek idatzitako *Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala (1936-1954)*. Argitalpen hau Euskaltzaindiaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren emaitza da. Euskaltzaindiaren *Iker* bilduman argitaratu da.

Patxi Salaberrik eta Luis Mari Zalduak idatzitako *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia*. Argitalpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzari esker argitaratu da. Euskaltzaindiaren *Izenak* bilduman argitaratu da.

Hainbaten artean idatzitako *Euskara Batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak*. Argitalpen honek, Aralar alderdiko Ezkerraberri Fundazioarekin batera, Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 2018ko ekainaren 1ean izen berarekin antolaturiko jardunaldietako txostenak jasotzen ditu. Euskaltzaindiaren *Jagon* bilduman argitaratu da.

5.4. Hurrengo bilkurak:

- Osoko bilkura. 2019ko azaroan onartutako egutegia kontuan hartuz, uztailaren 17an egingo da Bilbon, egoitzan, 10:00etatik aurrera.
- “Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak” mintegia egingo da uztailaren 21ean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Mintegi hau Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da.

6. Azken ordukoak.

P. Zabaleta euskaltzainak konfinamenduan amaitutako *Nafarroa euskal epikan* Olerkizketa liburuaren zenbait ale banatu du. Euskaltzainek zorionak eman dizkiote argitara emaniko liburu berriagatik.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan

2020ko uztailaren 17an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Davant, Jean-Louis,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Joseba Lakarra, Andoni Sagarna, Pello Salaburu eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Miren Azkaratek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Pello Salaburuk ahala Miren Lourdes Oñederrari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari. Batzarra Bilbon, egoitzan egin da, 2020ko uztailaren 17an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, uztailleko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-06-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

R. González de Viñaspre euskaltzainak bi iruzkin egin ditu, bi-biak onartu dira. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko ekainaren 26ko bilkurako bilera-agiria onetsirik gelditu da.

2. Andres Iñigo euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsartea: hautagaiak bozkatzea.

A. Urrutiak gogorarazi duenez, hutsarterako bi hautagai aurkeztu dira. Alde batetik, Paskual Rekalde euskaltzain urgazlea. Beste aldetik, Paula Kasares euskaltzain urgazlea.

Bozketa egin aurretik, Osoko bilkuran erabaki da bi hautagaiei eskerrak ematea hautagaitza onartzeagatik. Segidan, A. Urrutiak gogora ekarri du euskaltzain oso hautatua izateko, hautagaietako batek euskaltzain osoen bozen gehiengoa erdietsi behar duela.

Ondoren, bozketa egin da (guztira, zuzenean eta ordezkatuak, 23 euskaltzain). Eraitza ondokoa izan da:

Paskual Rekalde hautagaiaren alde: 16 boto.

Paula Kasares hautagaiaren alde: 6 boto.

Boto zuriak: 1.

Ondorioz, Arautegiak eta Barne-erregelek diotena betez, Paskual Rekalde euskaltzain oso izendatu da.

Euskaltzain osoen botoak jasota daudela, boto-kontaketa egiten ari den bitartean, B. Oihartzabal euskaltzaina bilera-aretoan sartu eta, ondorioz, ezin izan du bozketan parte hartu. Era berean, J. Lakarra euskaltzain osoaren ahala kontaketa-
ren ostean iritsi da.

3. Onomastika: Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak arau-gaia. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak eta Alfontso Mujika batzordeko idazkariak azaldu dutenez, ekainaren 26ko Osoko bilkuran ez zen astirik egon ohar guztiak aztertzeko, eta, gainera, oharra egiteko epea luzatzea erabaki zen. Ondorioz, aurreko bilerarako aurkeztu ziren oharrez gainera, beste hiru jaso dira, X. Videgain, X. Kintana eta M. L. Oñederra euskaltzainek paratuak.

Onomastika batzordeak oharra aztertu eta erantzun arrazoituak prestatu ditu. P. Zabaletaren laugarren proposameneraino –*Eneko Aristaren* ordeztu, *Eneko Aritza* jartzea— aztertu zen aurreko bileran. Gai horretan, X. Kintanak oharra egin du, *Arista* formaren ordeztu *Aresta* proposatzeko. Batzordeak izen-aldaeren azterketa xehea egin du (banatutako dokumentuan ageri da), eta garbi ageri da testigantza historikoetan *Arista*, *Aresta* eta *Ariesta* formak ageri direla iturriarik zaharretan, baina *Arista* forma nagusitu zela eta hori dela gaur egun erabiltzen den aldaera. Hala proposatu, erabili eta zabaldu du Onomastika batzordeak, hala nola 2017an Iruñeko karriken izenatarako Iruñeko Udalari bidalitako proposamenean, eta 2019an kale-izenen irizpideei buruzko liburuan. *Aritza* forma XIX. mendearen amaieran zabaldu zen, Oihenartek XVII. mendean formulatutako hipotesi bat, Moretek 1766an berriz hartua, Arturo Campiónek 1892an zabaldu zuenean. Eztabaidatu ondoren, adostasunik ez dagoenez, bozkatu da. Emaita ondokoa izan da (guztira, zuzenean eta ordezkatuak, 25 euskaltzain): *Arista* jartzearen alde 17 boto, *Aritza* jartzearen alde boto bat, *Aresta* jartzearen alde boto bat eta 6 boto zuri. Beraz, arauan *Eneko Arista* forma jartzea nagusitu da.

P. Zabaletak, bosgarren oharrean, *Antso* formaren ordeztu *Santxo* forma onartzea proposatu du, izen hori euskaraz erabili delako, patronimikoa *Santxitz* proposatzen denez, logikoa delako *Santxo* izena hautatzea eta *santxete* diru-izena ere *Santxo* izenetik eratorria delako. Onomastika batzordeak, erantzunean, argudiatu du *Antso* eta *Santxo* izenak erabili direla tradizioan, baina orain arte 8 aldiz arautu duela Euskaltzaindiak *Antso* izena, 66. arauan, 181. arauan eta 186. arauan, Aragoiko, Gaztelako eta Portugalgo erregeak ere badirela izen horretakoak eta *Antso* forman arautu direla. Eztabaidatu ondoren adostasunik ez dagoenez, bozkatu da. Emaita ondokoa izan da: *Antso* jartzearen alde 14 boto, *Santxo* jartzearen alde 9 boto eta bi boto zuri.

X. Videgainek ohar bat egin du Frantzisko Febo erregearen jaiotze-urteari buruz, 1469an izan beharrean lehenago behar duela iritzita. Onomastika batzordea ados agertu da, eta, dokumentazio osagarria erakutsi ondoren, aldatzea eta jaiotze-urtea 1467 jartzea onartu da.

M. L. Oñederrak bi ohar egin ditu araugaiaren sarrerako testuari buruz: “afrikari” dagoen tokian, “afrikatu” jartzea proposatu du, eta, “erdarak ez dituen txistukari afrikariak” esaldiari buruz, adierazi du gaztelaniak izan zituela txistukari afrikatuak XVI. mendera arte hizkera zainduan. Batzordea ados agertu da, baina, esaldi hori Euskaltzaindiak 1988an argitaratutako liburu baten aipu bat denez, zuzenketa egiteko, aipua kendu eta aipuari erreferentzia eginez berridatziko da esaldia, honela: “gaztelaniak ez dituen txistukari afrikatuak (bazituen, baina duela zenbait mende galdu zituen)”.

Errege-erreginen zerrenda non amaitu eta *Fernando I.a* zerrendan sartu behar zen ala ez galdetu zion Onomastika batzordeak Osoko bilkurari. M. Azkaratek *Fernando I.a* zerrendan ez sartzearen aldeko iritzia eman zuen ekainean, baina idatziz adierazi du bi historiagileri galdetu diela eta honela esan diotela:

1. “(...) egia da [dinastia edo etxe aldaketak ezkontzaz egin zirela] Behe Erdi Aroan, baina 905.ean edo 1134.ean halako aldaketak egon ziren (lehenengoan Jimenotarrek Enekotarrak ordezkatu zituzten, bigarrenean Nafarroako baroiek euren arteko bat, euren arteko boteretsuena, aukeratu zuten errege, Gartzea Ramirez, suzesio-krisi baten testuinguruan). (...) erabakitzeko irizpiderik argiena hau da, Nafarroako Gorteen uneren batean erregetzat hartu ote zuten, edo Fernandok berak bere agirietan titulua erabili zuen jakitea”.
2. “En mi opinión, Fernando de Aragón (guste o no guste) debe figurar en la lista de los reyes de Navarra. Sin entrar en la forma en que obtuvo la corona, si esta era legítima o no (se discutió muchísimo de ello) de acuerdo con las ideas de la época, la verdad es que las Cortes de Navarra le juraron como rey en marzo de 1513. Es verdad que algunos nobles exiliados no participaron, pero de buena o mala gana allí estaban los representantes de los “brazos” que componían la asamblea representativa del reino. Así que sí, Fernando de Aragón o *El Católico* reinó en Navarra (también en Baja Navarra) de hecho y de derecho entre 1512 y 1516. Usó el título de rey de Navarra y así se le intituló también en la documentación emanada de todos los órganos del reino, empezando por el Real Consejo de Navarra. También emitió moneda de oro con ese título”.

Horiek horrela, atzera egin du lehenago emandako iritzian, eta historiagileek diotenari jarraitzearen alde agertu da. P. Zabaletak esan du historiagile guztien iritzia hartu behar direla aintzat eta proposatu du Nafarroa kontinentalean jarraitu zuen Nafarroako errege-erreginen ildo historikoa gogoan izatea zerrenda hau egiterakoan, besteak beste, euskararen historiarekiko izan zuten garrantziarengatik. Onomastika batzordeak, aurreko bileran, adierazi zuen P. Zabaletak proposatutako bi eranskinetan sartuko liratekeen errege-erreginen izen guztiak araututa daudela jada 186. arauan, Nafarroakoaz gainera Espainiako edo Frantziako errege-erregina ere izan zirelako. Horregatik, batzordearen ustez, izenen grafia finkatzeari dagokionez, ez dira beharrezkoak. Ondorioz, gaia hurrengo bilkuran erabakitzeko utzi da. Onomastika batzordeari eskatu zaio lehen egindako proposameneari gehiago zehaztea aukerak, Osoko bilkuraren eztabaida errazteko. Era berean, A. Urrutiak Patxi Zabaletari bere zehaztapenak idatz ditzala iradoki dio eta honek hala egingo duela esan du.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XXI). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Batzorde Ahaldunduko M. Urkia idazkariak ekaineko bilkuran aurkeztutako aztergaiari bi euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak aurkeztu ditu. Onomastika batzordeak *Etxahunea* eta *Ipurua* formei buruz helarazitako argibideak ere aurkeztu dira. Ontzat eman dira guztiak, salbu *husna* sarrerari buruzkoak. Iraileko bilkuran berriro helduko zaio kontu honi.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XXII). Aurkeztu.

Aztergai berria, OEHko P letrari dagokiona, aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigo eta M. Azkarate euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Horrela, oharrak egiteko epea zabaldu da, irailaren 14ra arte.

6. Esku artekoak.

6.1. 2020ko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria. 2020. urteko edizio-rako hautagaitzak aurkezteko epea 2020ko uztailaren 1etik irailaren 6ra izango dela iragarri du A. Urrutia euskaltzainburuak. Osoko bilkura jakitun geratu da.

6.2. Hurrengo bilkurak. Hurrengo bilkuren berri eman da:

“Etorkizuneko euskal gizartea: euskara erabiltzeko eremu berriak” mintegia egingo da uztailaren 21ean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Mintegia Euskaltzaindiaren Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza da.

Osoko bilkura. Irailaren 25ean egingo da Gasteizen, hasteko eta bat, udaletxean. Osasun-agintariek ezarritako baldintzak bete ahal izateko, gerta daiteke beste eremu fisiko batean egin behar izatea. Nolanahi ere, xehetasunak irailean emango dira.

7. Azken ordukoak.

Bilkurari amaiera eman aurretik, gaurko bilkuran euskaltzain oso izendatu berri den Paskual Rekalde batzar-aretoa sartu da. Euskaltzainek txalo artean ongi etorrria egin diote. Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak zorionak emateaz gainera, gogorarazi dio euskaltzain oso izendatu berri denari izendapena Euskaltzaindian lan egiteko eta engaiamendua indartzeko deia dela. P. Rekaldek, aldiz, esker oneko hitzak izan ditu, bai eta aditzera eman ere lanean jarraituko duela, Euskaltzaindiaren xede eta helburuak albait hobekien gara daitezen.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Uriarte,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan

2020ko irailaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oihartzabal, Beñat,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso eta
Osa, Erramun,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Jose Irazu “Bernardo Atxa-

ga”, Miren Lourdes Oñederra, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak ahala Miren Azkarateri; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbon, egoitzan, egin da, 2020ko irailaren 25ean, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, iraileko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-07-17) bilera-agiria onestea, hala erabakiko baltz.

P. Zabaleta euskaltzainak hiru iruzkin egin ditu, eta hirurak onartu dira. A.

Urrutia euskaltzainburuak ahoz bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko uztailaren 17ko bilkurako bilera-agiria onetsirik gelditu da.

2. Onomastika: *Iruñeko eta Nafarroako erresumetako errege-erreginen izenak* araugaia. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak eta Alfontso Mujika batzordeko idazkariak aditzera eman dutenez, uztailaren 17ko bilkuran, Onomastika batzordeari eskatu zitzaion araugaian egindako proposameneko aukerak gehiago zehazteko. Bestalde, irailean, M. Azkaratek bi historialariren idazkiak aurkeztu ditu, eta J.-L. Davantek eta P. Zabaletak beren oharra aurkeztu dituzte. Onomastika batzordeak, guztiak aztertu ondoren, txosten bakarrean prestatu ditu erantzunak.

R. González de Viñaspre Onomastika batzordeko buruak eta A. Mujika batzordeko idazkariak eman dituzte azalpenak. Lehenik, *Fernando I.a* zerrendan sartu ala ez sartu gaiari buruz, batzordeak proposatu du, oinarri gisa, gogoeta historikoetan ez sartzea eta errege-erreginen izenen grafia finkatzeari dagokiona bakarrik lantzea. *Fernando I.a*ren eta ondoko errege-erregina guztien izenen grafiak lehendik arautuak daudenez gero (186. araua), batzordeak proposatu du izen horiek berriz ez arautzea eta, zerrendari amaiera emateko, arrazoibidea adierazteko azalpen-testu bat jartzea. Hala, zerrenda kronologikoan, Katalina erreginarene lekuaren ondoren, testu eta segidan datorren oin-ohar hau ezarriko litzateke (bide batez, testu hori moldatzean, kontuan hartu da J.-L. Davantek egindako oharra: alegia, <Dena dela, 1530ean, Karlos I.ak Henrike II.ari Nafarroa Beherea eman zion> zegoen tokian, <Dena dela, 1530ean, Karlos I.ak Nafarroa Beherea bazter utzi zuen> jarri da):

“Gaztelak eta Aragoik Nafarroa inbaditu eta konkistatu ondoren (1512), Fernando II.a Aragoiko erregeak “Aragoiko eta Nafarroako errege” izendatu zuen bere burua. 1513an, Nafarroako Gortek Nafarroako errege izendatu zuten Fernando. 1515ean, Gaztelako Gortean aurrean, Nafarroako Erresuma eman zien oinordetzan bere alaba Joana I.a Gaztelakoari eta bere biloba Karlosi; hala anexionatu zuen Gaztelak Nafarroa, eta habsburgotarrek Nafarroa beretu zuten. Dena dela, 1530ean, Karlos I.ak Nafarroa Beherea bazter utzi zuen, eta Henrike II.a Nafarroako erregeak berreskuratu zuen. Konkistaren ondoren, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginak izan ziren Nafarroa Garaiko errege-erregina titullarrak,

Nafarroako Erresuma ofizialki 1841ean desagertu zen arte*. Haien izenak araututa daude jada 186. arauan, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginen zerrendan”.

Azalduko den oin-oharra berriz, hauxe litzateke: “*1841eko abuztuaren 16ko Legeak Nafarroako Erresuma abolitu eta *Nafarroako errege/erregina* izendapenak Espainiako Koroaren titulu gisa iraun du”.

Horretaz gainera, J.-L. Davanten oharra kontuan hartuta, Katalina erreginarene erreinaldia ere zuzentzea proposatu du batzordeak: 1483-1512 ez, baizik eta 1483-1517 ezarriko da, 1512-1517 bitartean erbestean izan zela zehaztuta. Bestalde, 1517-1572 bitarteko aldian, Nafarroa Beherean erreinatu zutenak zehaztu ondoren, zerrendari amaiera emateko Luis II.aren lekuaren ondotik, testu hau ezarriko litzateke:

“1620ko urriaren 19an, Luis II.a Nafarroakoak (Luis XIII.a Frantziakoa), Paueko ediktuen bidez, Nafarroako koroa Frantziako koroari atxikia utzi zuen. Harrezkero, *Nafarroako errege/erregina* izendapena Frantziako errege/erreginen noblezia-titulua baino ez zen izan. Haien izenak araututa daude jada 186. arauan, Frantziako errege-erreginen zerrendan. Erresuma 1790ean desagertu zenez, orduan desagertu zen *Nafarroako errege/erregina* titulua”.

Horretaz gainera, batzordeak proposatu du, P. Zabaletaren oharrari erantzunez, zerrenda osagarriarik ez egitea, zerrenda horietan agertuko liratekeen errege-erreginen izenak jada araututa baitaude 186. arauan.

P. Zabaletak egindako proposamen zehatzei dagokienez, Onomastika batzordeak banan-banan aztertu ditu eta, proposamen batzuen alde eta beste batzuen kontra eginez, erantzunak prestatu ditu, txostenean ageri den moduan. Onartzea proposatu dituen puntu zehatzak hauek dira:

- < Antso VI.a edo Antso *Jakituna* > formaren ordezkari < Antso VI.a Gartzetiz edo Antso *Jakituna* > jartzea.
- < Antso *Azkarra* > formaren ordezkari < Antso *Azkarra* edo Antso *Entzerratua* > jartzea.
- < Karlos II.a > formaren ordezkari < Karlos II.a edo Karlos *Gaiztoa* > jartzea.

Azalpenen ondoren, B. Oihartzabalek eta M. Azkaratek adierazi dute egoki deritzotela batzordearen proposamenari. P. Zabaletak adierazi du proposamen berrian badirela hobekuntzak aurreko bertsioaren aldean eta aintzat hartu direla

zenbait iradokizun baina, hala ere, berak eusten diola bere proposamen orokorriari. Horrela, bi proposamen daudenez, gaia botoetara eraman da: P. Zabaletaren proposamenak 3 boto jaso ditu, Onomastika batzordearen proposamenak, berriz, 16, eta bi boto zuri izan dira. Horrenbestez, batzordearen proposamena onartu da, gorago adierazitako aldaketak eginda, < *Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak* > izena izango duen arauarentzat.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (XXII). Jasotako oharrak aztertu eta erabakiak hartu.

Batzorde Ahaldunduko M. Urkiak aditzera eman duenez, uztailleko bilkuran aurkeztutako aztergaiari inork ez dio oharririk egin eta, beraz, ontzat eman dira proposamen guztiak. Nolanahi ere, X. Videgain euskaltzainak epez kanpo bidali zituen oharrak eta, salbuespen gisa -hurrengoan, epez kanpo iristen direnak ez baitira bideratuko- bileran aurkeztu dira. Azaltzeko astirik izan ez bada ere, dokumentazioan banatu direnez, oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 13ra arte.

Bestalde, ekaineko bileratik erabaki gabe zegoen *husna* sarrerari buruzko datu guztiak dokumentu bakarrean aurkeztu ditu Batzorde Ahaldunduko idazkariak. Horrela, datuak zein iritziak berriro azalduta, adostasunik ez dagoenez, gaia botoetara eraman eta emaitza ondokoa izan da: sartzearen alde 14 boto, kontrako botorik ez, eta 7 boto zuri. Sarrerari bi ohar egin zaizkio. Alde batetik, batez ere, kirol-arloan erabiltzen dela aipatuko da. Beste aldetik, ematen den adibidea aldatzea eta pilotari erreferentzia eginez egitea onartu da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduenaren oharrak (XXIII). Aurkeztu.

Aztergai berria, OEHko S, T eta U letrei dagokiena, eraman du Batzorde Ahaldunduko idazkariak bilerara, A. Iñigo eta M. Azkarate euskaltzainek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituenak. Oharrak egiteko epea zabaldu da, urriaren 13ra artekoa.

5. Esku artekoak.

5.1. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria. Euskaltzainek hautagairik aurkeztu ez dutenez, Zuzendaritzak Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazlearen

hautagaitza babestea erabaki du, 2020ko irailaren 8an eginiko bilkuran.

5.2. Hurrengo bilkurak.

Baionan, Herriko Etxean, urriaren 7an, asteazkenean, 15:00etan, "Euskara Eskuz Esku" tresna digitala aurkeztuko da. Ekitaldira hurreratu ahal direnen kopurua urria denez gero, euskaltzainei tresna hau aurkeztuko zaie Iruñean, urriaren 23an egingo den Osoko bilkuran.

2016ko urriaren 28an izendaturiko Zuzendaritzaren agintaldia 2020. urtearen bukaeran amaitzen denez gero, A. Urrutia euskaltzainburuak Arautegiaren 32. artikulua dioena gogora ekarri du: "Zuzendaritzako lagunen hautatzea eta kargu hartzea urtearen azken laurdenean egingo dira". Horrela, Zuzendaritzak, 2020ko irailaren 22an eginiko bilkuran erabakitakoari jarraikiz, aditzera ematen da Barrengo bilkura berezia egingo dela Iruñean, Nafarroako Parlamentuan, 2020ko urriaren 23an, ostiralarekin, goizeko 10:00etan, eta gai bakarra Euskaltzaindiaren Zuzendaritza hautatzeko bozketa izango dela.

Karguen hautatzea Arautegiaren 5., 28., 29., 30., 31. eta 32. artikuluen eta Barne Erregelaren 13., 65., 66., 67. eta 68. artikuluen arabera egingo da.

Urriaren 23an, Barrengo bilkura bereziaren ondoren, Osoko bilkura egingo da Nafarroako Parlamentuan. Egun horretan, Zuzendaritzak Euskaltzaindiaren 2021eko egutegi-proposamena aurkeztuko du.

6. Azken ordukoak.

Aurreko asteburuan, Eusko Ikaskuntzak presidente eta Zuzendaritza berria aukeratu dituenaz gero, Zuzendaritzak zorionak emanez gutuna igorri duela aditzera eman da.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:00etan.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Uriarte,
idazkaria

Barrengo bilkura berezia

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2020ko urriaren 23an

Arejita, Adolfo,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean-Louis,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Kintana, Xabier,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Urrutia, Andres,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
zegozkion gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagrario Aleman, Jose Irazu "B. Atxaga", Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri eta Pello Salaburu.

Ahalak: Sagrario Alemanek ahala Andres Iñigori, Jose Irazu "B. Atxaga"k ahala Andres Urrutiari, Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari, Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari, Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari, Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari eta Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri.

Batzarra, 2020ko urriaren 23an, ostiralean, egin da Donostian, 10:00etan hasita, Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Gai bakarra Euskaltzaindiaren Zuzendaritza hautatzeko bozketa izan da.

Barne-erregelen 66.3 xedapenean honako hau jasotzen da: <<Bozketarako orduan, Euskaltzaindian izendatu za-

harrena buru eta izendatu berriena idazkari izango dira mahaia osatzean>>. Gauzak horrela, J.-L. Davant buru eta P. Rekalde idazkari izan dira.

J.-L. Davantek euskaltzain guztiak agurtu ditu eta P. Rekaldek etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, urriko Barrengo bilkura bereziari hasiera eman zaio.

Batzar deian aditzera eman denez, karguak hautatuko dira Arautegiaren 5., 28., 29., 30., 31. eta 32. artikuluen eta Barne-erregelen 13., 65., 66., 67. eta 68. artikuluen arabera.

A. Urrutiak hitza eskatu eta eskertu nahi izan du gaur arte zuzendaritzan aritu direnen lana. Bere hitzetan, zuzendaritza talde berriaren lanak 5 printzipio izan behar lituzke: (1) Digitalizazioa, (2) Nazioarteko proiektzioa, (3) Profesionalizazioa bultzatzea, (4) Gizarteratzea eta (5) Gizarteari zerbitzu ematea. Halaber, 2021eko udaberrian Barne jardunaldiak egingo dira eta haietan izango da aukera gai horietaz-eta eztabaidatzeko.

Segidan, M. Azkaratek hitza eskatu eta adierazi du lehen ere eskatu izan duela zuzendaritzako karguak beste modu batez hautatu beharko liratekeela eta, orobat, hautagaiak zein diren ez dela jakiten bilkura egin baino lehenago. Bere ustez, hautatzeko prozedura aldatzeko ez da beharrezkoa arautegia eta barne-erregelak aldatzea. A. Urrutiak erantzun dio badagoela Akademian gai hori arduratzat duen batzorde bat.

Galderen txandari bukaera emateko, P. Zabaletak hitza eskatu eta adierazi du bere burua aurkezten duela idazkari kargurako. Bere ustez, Akademia berritu beharko litzateke, aldaketak egin beharko lirateke eta, orobat, berraztertu beharko litzateke lan egiteko modua, esaterako, ohorezko euskaltzainak eta euskaltzain urgazleak gehiago inplikatzeko Akademiaren eguneroko lanetan. Idazkari hautatuz gero, langintza horretan arituko dela esan du.

Segidan, J.-L. Davant bilkuraren buruak adierazi du karguak hurrenkera honetan hautatuko direla: Jagon sailburua, Iker sailburua, diruzaina, idazkaria, buruordea eta euskaltzainburua.

Jagon sailburuaren hautaketa:

J.-L. Davantek galdetu du Jagon sailburu izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du S. Alemanek Jagon sailburu izateko bere hautagaitza aurkezten duela. Bilkurara etortzerik izan ez duenez, hark idatzitako lerro bakan batzuk irakurri ditu.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Beste hautagairik ez dagoenez gero, S. Alemanen hautagaitza botoetara eraman da eta emaitza ondorengoa izan da:

Boto-kopurua	Alde	Zuri	Kontra
26	22	4	0

J.-L. Davantek zorionak eman dizkio S. Alemani.

A. Urrutiak hitza eskatu du eta, S. Alemanen partez, eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik.

Iker sailburuaren hautaketa:

J.-L. Davantek galdetu du Iker sailburu izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du M. Urkia aldi berrian Iker sailburu izateko hautagaitza aurkezten duela. M. Urkiak hautagaitza onartu du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Beste hautagairik ez dagoenez gero, M. Urkiaren hautagaitza botoetara eraman da eta emaitza ondorengoa izan da:

Boto-kopurua	Alde	Zuri	Kontra
26	22	4	0

J.-L. Davantek zorionak eman dizkio M. Urkiari.

M. Urkiak eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik.

Diruzainaren hautaketa:

J.-L. Davantek galdetu du Euskaltzaindiaren diruzain izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du R. González de Viñaspre aldi berrian diruzain izateko hautagaitza aurkezten duela. R. González de Viñasprek hautagaitza onartu du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Beste hautagairik ez dagoenez gero, R. González de Viñasprek hautagaitza botoetara eraman da eta emaitza ondorengoa izan da:

Boto-kopurua	Alde	Zuri	Kontra
26	19	7	0

J.-L. Davantek zorionak eman dizkio R. González de Viñasperi.

R. González de Viñasprek eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik.

Idazkariaren hautaketa:

J.-L. Davantek Euskaltzaindiaren idazkari izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du A. Arejita aldi berrian idazkari izateko hautagaitza aurkezten duela. A. Arejitak hautagaitza onartu du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Segidan, P. Zabaletak bere burua aurkeztu du idazkari kargurako.

Bi hautagaitzak botoetara eraman dira eta emaitza ondorengoa izan da:

Boto-kopurua	Hautagaia	Alde	Zuri	Kontra
26	A. Arejita	17	0	0
	P. Zabaleta	9	0	0

J.-L. Davantek zorionak eman dizkio A. Arejitari.

A. Arejitak eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik.

Buruordearen hautaketa:

J.-L. Davantek Euskaltzaindiaren buruorde izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du J.-B. Coyos aldi berrian buruorde izateko hautagaitza aurkezten duela. J.-B. Coyosek hautagaitza onartu du.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Beste hautagairik ez dagoenez gero, J.-B. Coyosen hautagaitza botoetara eraman da eta emaitza ondorengoa izan da:

Boto-kopurua	Alde	Zuri	Kontra
26	19	6	1

J.-L. Davantek zorionak eman dizkio J.-B. Coyosi.

J.-B. Coyosek eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik.

Euskaltzainburuaren hautaketa:

J.-L. Davantek euskaltzainburu izateko euskaltzainen batek bere hautagaitza aurkezten duen galdetu du.

A. Urrutiak hitza eskatu eta adierazi du aldi berrian bere burua aurkezten duela euskaltzainburu kargurako.

J.-L. Davantek besterik dagoen galdetu du. Beste hautagairik ez dagoenez gero, A. Urrutiaren hautagaitza botoetara eraman da eta emaitza ondorengo izan da:

Boto-kopurua	Alde	Zuri	Kontra
26	19	6	1

J.-L. Davantek zorionak eman dizkio A. Urrutiari.

A. Urrutiak eskerrak eman dizkie euskaltzainei erakutsiriko konfiantzagatik. Euskaltzainburu hautatu berriak adierazi du Akademiaren berritze-prozesuak egunerokoa eta etengabekoa behar duela izan eta horretan euskaltzain guztiek partaide izan behar dutela.

Eta besterik ez dela, goizeko 11:00etan eman da bukatutzat Barrengo bilkura berezia.

Jean-Louis Davant,
Barrengo bilkura bereziko burua

Paskual Rekalde,
Barrengo bilkura bereziko idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean

2020ko urriaren 23an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Davant, Jean-Louis,
González de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
zegozkion gaitan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Sagra-
rio Aleman, Jose Irazu “Bernardo Atxa-
ga”, Jabier Kaltzakorta, Joseba Lakarra,
Andoni Sagarna, Patxi Salaberri eta
Pello Salaburu.

Ahalak: Sagraio Alemanek ahala An-
dres Iñigori; Jose Irazu “Bernardo Atxa-
ga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier
Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari;
Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arko-
txari; Andoni Sagarnak ahala Miriam
Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres
Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Miren
Azkarateri.

Batzarra Donostian, Luis Villasante
Euskararen Ikergunean egin da,
2020ko urriaren 23an, ostiralean,
11:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak eus-
kaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen
zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ho-
rrela, quoruma badela egiaztatu on-
doren, urriko Osoko bilkurari hasiera
eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-09-25) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

P. Zabaleta euskaltzainak bigarren orrialdeko bosgarren paragrafoko azken esaldia ezabatzea eskatu du. Izan ere, bere iritziz, bi paragrafo gorago azaltzen denarekin kontraesanean dago eta Osoko bilkuran horretaz ez zen zehazki eztabaidatu. A. Urrutia euskaltzainburuak erantzun dio testu hori arauan jasotzea erabaki zela, arauaren parte dela eta desegokia dela aurreko bilkuran onartutako araua bilera-agiri baten bidez aldatu nahi izatea.

P. Zabaletak epaitegietako prozedurak aipatu ditu eta emandako epaietan kontraesanak atzematen direnean, zuzendu ohi direla azpimarratu du. Bestalde, R. González de Viñaspre Onomastika batzordeburuak nabarmendu du ez duela kontraesanik ikusten eta esaldia arauaren testuinguruan irakurri eta ulertu behar dela.

Horrela, aurkeztutako iruzkinaren gaineko adostasunik ez dagoenez, gaia botoetara eraman da. Bozketaren emaitza hauxe izan da: iruzkina onartzearen alde 5 boto eta bilera-agiriko pasarte hori bere horretan lagatzearen alde 15 boto.

A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz bestelako oharririk egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko irailaren 25eko bilera-agiria onetsi da.

2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXII). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak aditzera eman du iraileko bilkuran aurkeztutako X. Videgainen oharrei iruzkin bakarra egin zaiela, *puska* sarrerako adibide bati buruzkoa. Izan ere, “*Ostalerrari eman zizkion bere puska, gau hartan gakoturik atxiki litzan*” adibidearen Arbelbideren aldaera bat ageri da *Euskaltzaindiaren Hiztegian* bertan, *gakotu* sarreran (“*Ostalerari eman zizkion bere puska, gau hartan gakoturik atxiki zitzan*”). *Gakotu* sarrerako adibidea *puska* sarrerara ekartzea onartu da, baina *ostalerari* forma zuzenduta, *ostalerrari* behar du eta.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXIII). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Aztergai honi dagokionez, M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu du iraileko bilkuran aurkeztutako OEHko S, T eta U letrei dagokien aztergaia-ri Batzorde Ahaldunduko bi kidek egindako oharrei bi ohargilek egin dizkietela

iruzkinak. Horiek eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak aurkeztu dira bilkuran. *hanka(-)hots* arautuarekin batera *hanka(-)soinu* azpisarrera jasotzea ez da onartu, lekukotasun idatzien kopurua ez delako iristen esanguratsua izatera. *Frantzi(a)(-)ipar* / *frantzia(-)ipar* / *frantzi(-)ipar* / *frantziipar* / *frantzipar* ere oraingoz isiltzea erabaki da, hemen ere datuak oso urriak direlako. Baina haize-motak modu sistematikoan aztertzeke eskatu zaio lantaldeari.

Azkenik, *korroka* (eta *korroka egin*) formekin batera *zorroka* (eta *zorroka egin*) onartzea hurrengo bilkurarako utzi da.

4. Euskaltzaindiaren 2021eko egutegia. Aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak Euskaltzaindiaren 2021erako egutegi-proposamena aurkeztu du, Zuzendaritzak, 2020ko urriaren 14an, prestatutakoa. Horrela, oharrak eta proposamenak jasotzeko aldia ireki da azaroaren 16ra arte.

5. "Euskara Eskuz Esku" tresna digitala. Aurkeztu.

Denborarik ez dagoenez gero, aztergaia hurrengo Osoko bilkurarako uztea erabaki da.

6. Esku artekoak.

6.1. Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria. A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman du Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazleak Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2020 jasoko duela. Osoko bilkurak zorionak ematea erabaki du.

6.2. Joan Mari Torrealdai euskaltzain emerituaren hilberri-txostena. Paulo Agirrebaltzategi ohorezko euskaltzainak paratuko du, Zuzendaritzak 2020ko urriaren 14an hartutako erabakiaren arabera.

6.3. Koldo Mitxelena Sariak. Guztira 74 tesi aurkeztu dira, inoiz jaso den kopururik handiena. Bestalde, Euskaltzaindiari dagozkion epaimahaiko kideak izendatu ditu Zuzendaritzak. Honako hauek:

- Nerea Mujika (Artea eta Giza Zientziak).
- Andoni Sagarna (Ingeniaritza eta Arkitektura).
- Santiago Larrazabal (Gizarte Zientziak).
- Jazinto Iturbe (Zientziak).
- Alberto Loizate (Osasun Zientziak).

6.4. Hurrengo bilkurak.

Azaroaren 6an, ostiralean, XXV. Jagon Jardunaldia egingo da Donostian, Miramonen, Teknologia Elkartegian. S. Aleman Sustapen batzordeko buruak etortzeko modurik izan ez duenez, E. Osa Sustapen batzordearen idazkariak egitaraua aurkeztu du. Halaber, jardunaldian egongo den pertsona kopurua zaintzeko, izena ematea behar-beharrezkoa dela aditzera eman du.

Azaroaren 27an, ostiralean, goizeko 10:00etan, Osoko bilkura egingo da Donostian, udaletxean, herri-erakundeek izurriteari aurre egiteko hartzen dituzten neurriak ahalbidetzen duten neurrian.

7. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Donostian, udaletxean

2020ko azaroaren 27an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Iñigo, Andres,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun,
zegozkion gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Patxi Goenaga, Roberto González de Viñaspre, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”, Jabier Kaltzakorta, Andoni Sagarna eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Patxi Goenagak ahala Miren Azkarateri; Roberto González de Viñasprek ahala Andres Urrutiari; Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Andoni Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostian, udaletxean, egin da, 2020ko azaroaren 27an, ostiralean, 10:00etan.

Eneko Goia hiriko alkateak harrera beroa egin die euskaltzainei. Alkatearekin batera izan dira udalean ordezkaritza duten alderdietako ordezkariak: Reyes Carrere (EH Bildu), Marisol

Garmendia (PSE-EE), Aitzole Araneta (Elkarrekin Donostia) eta Mikel Lezama (PP). Ondoren, udal ordezkariekin eta euskaltzainekin talde-argazkia egin da. Udal ordezkariak euskaltzainak Osoko bilkuren aretora lagundu dituzte. Bertan, alkatetik eta euskaltzainburuak esker oneko hitzak adierazi dituzte, bai eta adierazi ere bi erakundeen arteko lankidetzaren areagotzeko duten borondate sendoa.

Harreraren ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, azaroko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Barrengo bilkurako (2020-10-23) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osa idazkariordeak oharririk ez dela jaso aditzera eman du. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharririk egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko urriaren 23ko Barrengo bilkurako bilera-agiria onetsi da.

2. Osoko bilkurako (2020-10-23) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osa idazkariordeak oharririk ez dela jaso aditzera eman du. A. Urrutia euskaltzainburuak ahoz oharririk egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2020ko urriaren 23ko Osoko bilkurako bilera-agiria onetsi da.

3. "Euskara Eskuz Esku" tresna digitala. Aurkeztu.

J.-B. Coyos egitasmoaren zuzendariak eta Aitor Maritxalar informatikariak tresna digital berria aurkeztu dute. Tresnaren helburua da Euskaltzaindiak batasun bidean emaniko arauak-eta era didaktiko eta eskuragarrian azaltzea, bai eta eredu bateratuan azaltzen diren Ipar Euskal Herriko askotariko formak nabarmentzea ere, besteak beste, Ipar Euskal Herriko hiztunek balia ditzaten. Era berean, euskararekiko hainbat pertsona ezagunen testigantzak ere jaso dira.

P. Zabaleta euskaltzainak kezka agertu du eskuorrian ageri den "Iparraldeko formei lehentasuna emanez" esaldiaren inguruabarrean. Egitasmoaren zuzendariak erantzun dio esaldia eskuorriaren testuinguruan ulertu behar dela eta forma horiek guztiak eredu bateratuan ageri direla, beraz, tresna digitalean ez dagoela ba-

tasunetik aldentzen den ezer. M. Azkarate euskaltzainak eginiko lana azpimarratu eta eskertu du. M. L. Oñederrak eginiko lana eskertzeaz batera, ahoz eskaintzen diren testigantzetan hitz solteak edo esaldiak ere eskaintzen diren galdetu du. Egitasmoaren zuzendariak esan du hitz solteak ageri direla, ez besterik.

Gaiarekin amaitzeko, gaur aurkeztu den tresna zaharkituta gera ez dadin, arian-arian eguneratzeko urratsak egin behar direla azpimarratu du egitasmoaren zuzendariak.

4. Euskaltzaindiaren 2021eko egutegia. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, Osoko eta Ageriko bilkurak egiteko tokiei eta egunei buruz inork ez du oharrik aurkeztu. Horrela, Euskaltzaindiaren 2021eko egutegia onetsirik geratu da.

P. Zabaleta euskaltzainak, euskaltzain urgazleen eta ohorezkoen parte hartzea sustatzeko eta errazteko asmoz, beste hiru bilkura ireki egin daitezen proposatu du, aurreko egutegiaren osagarri diratekeenak. Eginiko proposamena dela eta, Osoko bilkuran denak bat etorri dira urgazleen eta ohorezkoen parte hartzea bultzatzeko gogoarekin eta horri buruz gogoeta egitea garrantzitsua dela aditzera eman dute. Proposatzaileak Arautegiaren 26. artikulua baliatuz (“Axola handikotzat jo gabeko arazoetan, aski izanen da euskaltzain oso batek hori eskatzea, arazo hura hurrengo batzarrera arte mahai gainean utz dadin”) hurrengo batzarra izan arte mahai gainean uztea eskatu du. Horrela, egindako proposamenari buruz erabakia hartzea hurrengorako laga eta auziari buruz euskaltzainek gogoetak edota proposamenak egiteko aldia ireki da, abenduaren 11ra arte, hain zuzen.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXIII). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Aztergai honi dagokionez, M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu duenez, urriko Osoko bilkuran *korroka* (eta *korroka egin*) formekin batera *zorroka* (eta *zorroka egin*) onartzea hurrengo bilkurarako laga zen. Horrela, *zorroka* eta *zorroka egin* formak (*korroka* eta *korroka egin* aztertzean proposatuak) ez jasotzea erabaki du Osoko bilkurak, erabilera-datuak hutsaren hurrengo direla ikusita. Irizpideei

buruzko eztabaida izan da, baina Batzorde Ahaldunduko idazkariak adierazi du horiek ezin direla nahieran aplikatu, gutxienez ziklo osoak hartu behar dituzte eta.

6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XXIV). Aurkeztu.

Hiru aztergai berri aurkeztu ditu M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, hiru ohargilek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituenak: 1) OEHko azpisarreraren azken atala, X letrakoak biltzen dituenak (A. Iñigoren eta M. Azkarateren oharrak jaso dituenak); 2) ZTHB lantaldearen Lurraren Zientzien Oinarritzko Lexikoa ataletik hiztegirako proposatutako aztergaia (M. Azkarateren eta X. Videgainen oharrak jaso dituenak); eta 3) letra larriak eta xeheak bereizteko egindako saioaren ondorioak biltzen dituen aztergaia (A. Iñigoren oharrak jaso dituenak).

Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, abenduaren 11ra arte.

7. Esku artekoak.

7.1. Euskalkien Sailkapen Berria dela eta, informazioa. A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman duenez, Zuzendaritzak argibideak eman nahi ditu Euskal Herriko Unibertsitateak 2019. urtean argitaraturiko *Euskalkien sailkapen berria* liburuari buruz. Argitalpen horretan, erruz eta Akademiaren baimenik gabe erabili dira Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoaren datuak.

Areago, Euskaltzaindiari baimenik eskatu gabe, liburuan bertan adierazten denez, EHHaren datu guztiak eraman eta Euskal Herriko Unibertsitatean dagoen EUDIA izeneko datu-base eta aplikazio berria sortu da, EHHaren edukiarekin eta Akademiaren jabetza intelektuala urratuz.

Horiek horrela, Akademiaren Zuzendaritzak kudeaketa lana egin du Euskaltzaindiaren ondarea defendatzeko eta babesteko. Izan ere, harremanak izan dira Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta, horren ondorioz, Euskaltzaindiaren eta UPV/EHUren arteko adostasuna erdietsi da. Euskaltzainburuak eta Euskara eta Eten-gabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordeak adostasun-agiria sinatu zuten eta Zuzendaritzaren aktetan dago jasota. Bertan, argi geratu dira ondokoak, labur azal-duta:

UPV/EHUK berariaz aitortzen du *Euskalkien sailkapen berria* lana argitaratzeko EHHA izeneko proiektuaren funtsezko datuak baimenik gabe erabili direla eta, hargatik, Euskaltzaindiaren datu horien gaineko jabetza intelektualeko eskubide eskusiboak urratu direla.

Euskaltzaindiari dagozkiola, era eskusiboan EHHA lan kolektiboaren gaineko jabetza intelektualaren eskubideak.

Euskaltzaindiak eta UPV/EHUK konpromisoa hartzen dutela lankidetzatza politika bati eusteko eta proiektu bateratuak garatu eta argitaratzeko.

UPV/EHUK konpromisoa hartzen duela *Euskalkien sailkapen berria* lanaren edizio berririk ez argitaratzeko.

Agiria Zuzendaritzako agiriak eta aktak kontsultatzeko ohiko baldintzetan azter daiteke.

7.2. A. Arejita EiTBren Administrazio Kontseiluko kide. Eusko Legebiltzarrak eginiko eskariari erantzunez, Zuzendaritzak A. Arejita proposatu zuen EiTBren Administrazio Kontseiluko kide izateko. Eusko Legebiltzarrak Administrazio Kontseiluko kideak izendatu zituen Eusko Legebiltzarrean, azaroaren 19an eginiko Osoko bilkuran.

7.3. Hurrengo bilkurak.

Bilbon, abenduaren 15ean, "Immigrazioa eta euskara: udaletako politika berriak" mintegia egingo da Sabino Arana Fundazioaren egoitzan. Egitaraua iazko mintegiaren jarraipena izango da eta Sustapen batzordearen eta Sabino Arana Fundazioaren artean landu da. Egitaraua era telematikoan eskuratu zaie euskaltzainei. Jardunaldian egongo den pertsona kopurua zaintzeko, izena ematea behar-beharrezkoa da. Euskaltzaindiaren webgunean ageri dira izena emateko argibideak.

Abenduaren 18an, ostiralean, goizeko 10:00etan, Osoko bilkura egingo da Bilbon, egoitzan.

8. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Osoko bilkura

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan

2020ko abenduaren 18an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Gonzalez de Viñaspre, Roberto,
Iñigo, Andres,
Irazu, Jose “Bernardo Atxaga”,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Rekalde, Paskual,
Uribarren, Patxi,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Patxi.

Osa, Erramun eta
Mujika, Alfontso,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Aurelia Arkotxa, Patxi Goenaga, Beñat Oihartzabal, Andoni Sagarna, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Patxi Goenagak ahala Miren Azkarateri; iritsi bitartean, Jose Irazu “Bernardo Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; iritsi bitartean, Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Beñat Oihartzabalek ahala Miren Azkarateri; Andoni Sagarnak ahala Miriam Urkiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Bilbon, egoitzan, egin da, 2020ko abenduaren 18an, ostiralean, 10:00etan.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, abenduko Osoko bilkurari hasiera eman zaio.

1. Osoko bilkurako (2020-11-27) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman duenez, hiru idatzi jaso dira. A. Urrutiak bestelako oharrik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, jasotako hiru oharrak aztertu dira.

Alde batetik, M. L. Oñederrak 7.1. puntuan formazko iruzkin txiki batzuk egin ditu. Guztiak onartu dira.

Beste aldetik, X. Videgainek bilera agirian, 7.1. puntuan, jasotakoari buruz zenbait iritzi jasotzen dituen idatzia aurkeztu du. Nolanahi ere, ez du testu bat beste batez ordezteko edota testu bat gehitzeko proposamenik egin. Azkenik, B. Oiartzabalek eskatu du 2. orrialdeko 3. puntuko amaierako paragrafoaren aurretik, testu bat gehi dadin. Era berean, bilera-agiriko beste pasarte batzuei buruz, azaroko bilkuran esan gabeko iritziak aditzera eman ditu idatziz.

A. Urrutia euskaltzainburuak X. Videgaini galdetu dio ea testu zehatza proposatzen duen, bilera-agirian jasoia izan dadin. Ezetz erantzun du. Horrela, bilera-agiria M. L. Oñederraren iruzkinak sartuta onartzen den galdetu du. Hori horrela, 17 boto jaso dira bilera-agiria onartzearen alde eta 6 boto zuri. Ondorioz, 2020ko azaroaren 27ko Osoko bilkurako bilera-agiria onetsi da.

2. Idatzi behar al dira erdal hitzetako zeinu diakritikoak euskarazko testuetan erdal hitzak erabiltzean? Noiz bai eta noiz ez? Aurkeztu.

Exonomastika eta Onomastika batzordeetako idazkariak, Alfontso Mujikak, egin du aurkezpena, bi batzordeetan eztabaidatutako txostena izan baita. Hasteko, azaldu du txostena ez dela batzordeen urteko lan-plangintzaren emaitza izan, 2019ko uztailera Osoko bilkuran, galdera baten haritik, Osoko bilkurak berak egindako eskari bat baizik. Horregatik, txostena Osoko bilkuraren eskaera hari erantzuteko egin da.

Txostena atalez atal azaldu du: diakritikoak zer diren, zertarako baliatzen diren eta ortografiaren parte direla azaldu du, marka diakritikoa duen grafema hizkuntza bakoitzaren alfabetoaren berezko letra izan edo ez izan. Ondoren, diakritikoak agertzen diren testuinguruak zehaztu ditu, eta bakoitzean nola joka litekeen erakutsi, kontuan harturik zer dioten Euskaltzaindiaren arauak eta nola jokatzeko

duen *Euskaltzaindiaren Hiztegiak*: diakritikoak kanpoko izen arruntetan, pertsonen izen-abizenetan, kanpoko leku-izenetan eta, azkenik, pertsona-izen edo leku-izen ez diren izen berezietan. Kasu bakoitzerako proposatzen den irtenbidea zehaztu du. Ondoren, txostenaren eranskinak azaldu ditu, xehe deskribatzen eta zehazten baitira eranskinetan, batetik, zer dioten euskal estilo-liburuek, eta, bestetik, nola jokutzen den inguruko erdaretan: gaztelania, frantsesa, katalana, eta, xehekiago, ingelesa. Kanpoko hizkuntza-akademia eta erakunde arauemaileek zer arautu duten eta, bestalde, komunikabideetan, testu ofizialetan, hezkuntza-materialetan eta abarretan nola jokutzen den eta estilo-liburuek hizkuntza horietarako zer proposatzen duten ere aztertu da txostenaren eranskinetan.

Amaitzeko, txostenaren eztabaidaren emaitza azaldu du (txostenaren azken orrialdean deskribatzen da zehazki). Exonomastika batzordean, eztabaidatu eta ohar batzuk egin ondoren, puntu batzuetan adostasuna lortu da, eta beste batzuetan ez. Onomastika batzordean, eztabaidatu eta ohar batzuk egin ondoren, P. Salaberri eta A. Iñigo batzordekide ohiei ere bidali zitzairen. Horren guztiaren ondoren, batzordeak moldaketa batzuk proposatu eta ontzat eman du.

Osoko bilkurak eskerrak eman dizkie txostena paratzen ibili diren guzti-guztiei.

M. Azkaratek galdetu du irakaskuntzan, kazetaritzan, itzulpengintzan eta abarretan halako lan baten premia nabaritu ote den. A. Urrutia euskaltzainburuak aditzera eman du gai hau ortotipografiari buruz egin beharreko lan zabalago baten barruan kokatzea komeni dela, eta hori, XXI. Barne jardunaldietan, Zuzendaritzak aurkeztuko duen plangintzaldi berrirako egitekoen artean kokatu nahi duela. R. González de Viñasprek, bere aldetik, gaia lan zabalago batean kokatzearen aldeko iritzia azaldu du, bai eta gaineratu ere aztergai hau ez dela Onomastika batzordearen lehentasunik behinena eta egin bada Osoko bilkuraren eskariz egin dela. Azkenik, M. Urkiak esan du kontu honi buruz argibideak ematea presazkoa ez bada ere bideratzea komeni dela, bereziki, *Euskaltzaindiaren Hiztegiari* doakionez. Horrela, txostenari zer bide eman eztabaidatu da: oharrak egiteko epea zabaldu edo ortotipografiari buruz egin beharko den lan orokorrago baten barnean sartzeko utzi. Azkenean, bigarren aukera hobetsi da Osoko bilkuran.

3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharra (XXIV). Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

Aztergai honi dagokionez, M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak azaldu duenez, azaroko Osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari ez zaio oharrik egin. Ondorioz, batzorde ahaldunduak eginiko oharra bere horretan onartu dira.

4. Euskaltzaindiaren 2021eko egutegia. Jasotako oharra aztertu eta erabakiak hartu.

P. Zabaleta euskaltzainak, euskaltzain urgazleen eta ohorezkoen parte-hartzea sustatzeko eta errazteko asmoz, aurreko Osoko bilkuran irekitako eztabaidaren harira, hiru ekarpen berri jaso dira. Alde batetik, S. Aleman, A. Iñigo, P. Rekalde eta P. Salaberri aurkeztutakoa. Beste aldetik, M. Azkaratek igorritakoa. Azkenik, X. Videgainek bidalitakoa.

Aurrekoan aditzera eman bezala, Osoko bilkuran bildutako guztiak bat datoz esatean euskaltzain urgazleen eta ohorezkoen parte-hartzea ehuntzea, erraztea eta indartzea garrantzitsua dela. Helburu hori lortzeko, egin beharreko bidean asmatzea da kontua: deialdiaren nondik norakoak, gaiak, formatua, ekarpenak jasotzeko era eta abar. Azkenean, S. Aleman, A. Iñigo, P. Rekalde eta P. Salaberri euskaltzainek proposatutakoaren bidetik, onetsi da bilera bat Baionan egitea, urtero Ipar Euskal Herriko euskaltzainekin egiten denaz landa, eta beste bat Bilbon, COVID-19a dela eta, zailtasunik ez bada behintzat. Bilkuren nondik norakoak zehazteko engaiamendua Zuzendaritzak hartu du.

5. Esku artekoak.

5.1. *Etxezarra* etxea baliatzeko, Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak akordioa izenpetu zuten 2020ko azaroaren 11n. Akordio horren bidez, Gasteizko Udalak Euskaltzaindiari lagako dizkio *Etxezarra* deritzon eraikinaren 340 metro karratu. Udalak lekuaren jabari-emakida onetsi du, eta Euskaltzaindiak bere lana egin eta hizkuntza zabaltzeko jarduerak eskaini ahalko ditu bertan. Lagapenak 25 urte iraungo du eta doakoa izango da.

Euskaltzaindiak bere gain hartuko ditu horniduren gastuak, altzarien zuzkidura, garbiketa-, prebentzio- eta konponketa-lanak eta higieztina kargatzen duten zergak eta bestelako gastuak. Akademiak instalazioak egokitzea eta berrantolatzea aurrei-

kusi du. Batetik, Etxezarrak bulego-lanerako gunea izango du, eta, bestetik, kultura eta zabalkunde jarduerak (erakusketak, hitzaldiak...) egiteko gune zabala.

5.2. Oñatin aurkitutako XVI. mendeko testua aztertzeke eskaria egin dio Gipuzkoako Foru Aldundiak Euskaltzaindiari. Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan gordetako notario-protokolo batean jasota dagoen XVI. mendearen hasierako euskarazko testua aurkitu zuen Rosa Aierbe doktoreak. Gipuzkoako Foru Aldundiak duela zenbait egun Euskaltzaindiari igorri zion dokumentua, azterketa sakonagoa egin zezala proposatuta. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eskaria onartu zuen, 2020ko abenduaren 10ean eginiko bilkuran. Zuzendaritzaren asmoa da diziplinar-teko lantalde batek testua aztertzea, eta emaitzak argitaratzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera.

5.3. Gaur banatuko diren argitalpenak. Hiru dira:

Euskararen Herri Hizkeren Atlas XI.

Euskera 2019, 2, 1.

Narrazioak eta olerkiak 2019.

5.4. Hurrengo bilkurak. Urtarrileko bilkurei buruzko xehetasunak eman dira:

- Urtarrilaren 29an, ostiralean, 10:00etan, Osoko bilkura egingo da Donostian, Tabakalerako Kutxaren Kultura egoitzan.
- Urtarrilaren 29an, ostiralean, 12:00etan, 2019. urtearen bukaeran eta 2020an zendutako euskaltzainak gogorarazteko, Ageriko bilkura egingo da, Donostian, Tabakalerako Kutxaren Kultura egoitzan.

6. Azken ordukoak.

6.1. Akademia historikoen arteko agiri bateratua. Espainiako Kongresuan Hezkuntzari buruko Lege berria onartzeko ireki den prozesuaren inguruabarrean, hizkuntza ofizial-kideak direla-eta esan direnei erantzunez, Akademia historikoen artean adierazpen bateratua egin dadin iradoki du Real Academia Galegaren buruak. Zuzendaritzak testuaren zirriborroa Osoko bilkuran bana dadin erabaki zuen, abenduaren 10ean eginiko bilkuran.

Horrela, Osoko bilkuran 2021eko urtarrilaren 21a bitartean oharrak egiteko aldia ireki da. Zuzendaritzak jasotako oharrak aztertuko ditu eta gainerako Akademiakin testu bat adosten saiatuko da.

6.2. *Euskalkien sailkapen berria* argitalpena dela eta, hainbat iritzi agertu dira eta iritzi horiek argitzea garrantzitsua da. Ez da astirik izan horretarako eta 2021eko urtarrileko Osoko bilkurarako utzi da gaia.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 12:15 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Euskaltzaindiaren *Arauak*

2020ko araugintza

Exonomastika batzordea

2020an Osoko bilkuran eztabaidatutako arauak

Urtarrilaren 31n 36. araua eguneratzeko proposamena aurkeztu zitzaion Osoko bilkurari. Otsailaren 28an euskaltzain osoen oharren erantzuna aurkeztu zitzaion Osoko bilkurari, eta, egun berean, arauaren bertsio berria onartu zuen Osoko bilkurak.

2020an argitaratutako arauak

1) Ekainaren 24an, 36. arauaren bertsio eguneratua eta emendatua argitaratu zen (36. araua: ***Frantziako Errepublikako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenak***).

1995ean eman zuen Euskaltzaindiak 36. araua lehen aldiz (*Frantziako Errepublikako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenak*). Handik 10 urtera, 2006an, eguneratu egin zuen, izen ofizialetan izandako aldaketak jasotzeko.

2016ko urtarrilaren lehenaz geroztik indarrean dago Frantziako Errepublikan banaketa administratibo berria, eta aldaketa nabarmenak izan dira, batez ere eskualdeetan: 27 eskualde ziren 2016 arte, eta 18 dira orain. Adibidez, Ipar Euskal Herri osoa *Akitania* izeneko eskualdean zegoen ordura arte. Gaur egun, berriz, lehengo *Akitania*, *Limousin* eta *Poitou-Charentes* eskualdeak eskualde berri batean elkartuta daude, eta eskualde horren izena *Akitania Berria* da. Horregatik, araua eguneratu beharra zegoen.

Arau eguneratzeaz gainera, aldaketa eta doikuntza batzuk egin dira, arauaren barne-kohesioa ziurtatzeko eta toponimiako gainerako arauetik koherentzia zaintzeko. Horretarako, irizpide zehatzak definitu dira, eta irizpide horiek aplika-

tu dira eskualde berrien izenen euskarazko ordainak emateko. Halaber, irizpide horien arabera egokitu dira lehendik emandako departamenduen izenak. Horrenbestez, arauaren 1995eko bertsioan emandako departamendu-izenetan zenbait aldaketa gertatu dira.

2) Ekainaren 29an, 191. araua argitaratu zen (191. araua: ***Artelanen izenak. Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak***).

Munduko artelanak euskaraz adierazteko orduan, zalantzak izaten dira batzuetan: zer edo noiz euskaratu behar den eta zer edo noiz ez, nola euskaratu, letra larriak noiz erabili, letra etzanak erabili edo ez... Horregatik, irizpide nagusiak landu dira arauan. Batetik, eraikin eta monumentuak (*Lehoien atea, Alexandriako itsasargia, Luxoriko obeliskoa, Piramide Makurra, Trajanoren zutabea*), eta, bestetik, eskulturak bereizi dira (*Eskriba Eseria, Belvedereko tortsoa, Diskoboloa, Frantziako Kameu Handia*), jokabide desberdina baitute. Bestetik, artelanaren izendapenaren egitura aztertu da, eta osagai espezifikoak eta generikoak bereizi dira. Egitura horren arabera ezartzen zaio letra larria edo xehea izendapenaren atal bakoitzari.

Eskulturen izendapenetan, halaber, azalpenak ematen dira jakiteko noiz erabili behar den izendapenaren atal generikoa letra larriz (*Delfosko Auriga, Venus Milokoa*) eta noiz ez (*Rodasko kolosoa, Nefertitiren bustoa*).

Irizpide nagusiak emateaz gainera, historiaurreko eta Antzinaroko artelan nagusien zerrendak ere ematen dira arauan. Guztira, 150 artelan (arte minoikoa eta mizenikoa, Mesopotamiakoa, Egiptokoa, Greziakoa eta Erromatar Inperiokoa), eta, euskarazko izendapenaz gainera, gaztelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere ematen dira.

2020ko araugintza

Onomastika batzordea

Osoko bilkuran 2020an eztabaidatutako arauak

Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginen araugaia aurkeztu zen otsaileko Osoko bilkuran. Euskaltzain osoek egindako oharra eta proposamenak batzordean aztertu, eztabaidatu eta erantzunak prestatu eta aurkeztu ondoren, Osoko bilkurak irailaren 25ean onartu zuen.

2020an argitaratutako araua

Azaroaren 2an, 192. araua argitaratu zen (192. araua: ***Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak***).

Duela urte batzuk, Europako hainbat erresumatako errege-erreginen izenak arautu zituen Euskaltzaindiak. Zehazki, 180. arauan (*Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak*), 181. arauan (*Erdi Aroko pertsona-izenak*) eta 186. arauan (*Atzerriko pertsona-izenak. Grafia irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua*), errege-erreginen zerrenda xeheak ageri dira. Haien artean daude gure inguruko erresuma nagusi guztietako errege-erreginak, hala nola Aragoikoak, Frantziakoak, Gaztelakoak, Espainiakoak eta abar. Hala ere, Euskal Herriaren historian hain toki nabarmena izan zuten Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak ez dira arau horietan ageri, izen horiek bereiz eta xeheago landu eta plazaratu nahi baitzituen Euskaltzaindiak. Hutsune hori betetzeko prestatu da 192. araua.

Arauak bi atal ditu. Lehenengoan, izenak emateko erabilitako irizpideak zehazten dira, patronimikoak emateko baliatutako irizpideak barne (*Ramiritz, Gartzeitx...*). Bigarrenean, errege-erreginen zerrenda ematen da, ordena kronologikoan, eta zenbait datu osagarri ere ematen dira izenaz gainera: errege-erregina bakoitzaren dinastia, kronologia-zenbakia, izengoitia(k), bizialdia, erreinaldia, ezkontide(ar)en izenak, semealaben izenak eta errege edo erregina bakoitzaren gaztelaniazko, frantsezko eta ingelesezko izenak. Guztira, 42 errege-erregina izen dira.

Gaztelak eta Aragoik 1512an Nafarroa inbaditu eta konkistatu ondoren, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginak izan ziren Nafarroa Garaiko errege-erregina titularrak Nafarroako Erresuma ofizialki 1841ean desagertu zen arte. Nafarroa Beherean, bestalde, 1620an Nafarroako koroa Frantziako koroari atxikita gelditu zen, eta, harrezkero, Frantziako errege-erreginen noblezia titulua baino ez zen izan Nafarroako errege/erregina izendapena. Errege-erregina horien guztien euskarazko izenak lehendik arautuak daude, 186. arauan. Horregatik, ez dira sartu 192. arauan.

Zerrenda kronologiko nagusiaz gainera, beste zerrenda bat eman da arauan, alfabetoaren ordenan, eta kronologia-zenbakia erantsita, zerrenda nagusian berehala kokatu ahal izateko. Azkenik, gaztelania-euskara, frantsesa-euskara eta ingelesa-euskara zerrendak ere eman dira, alfabetoaren ordenan.

Irizpenak eta txostenak

IKER Saila

Onomastika

Sobre el río *Urogena* (conocido como *Uragona*)

MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, Elena
Euskaltzain urgazlea

0. Introducción

En mayo de 2020, la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco ha pedido a la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, que estudie el nombre de un cauce de agua situado en la zona este de Vitoria-Gasteiz (en el entorno de Arkaia, Elorriaga y Arkauti). El motivo de dicha solicitud es la carta enviada por un ciudadano (Manuel Grisaleña) a la Agencia URA, donde se indica que el nombre de dicho cauce citado en el mapa hidrológico de URA es erróneo.

D. Manuel Grisaleña comunica a la Agencia URA lo siguiente:

En el mapa hidrológico del País Vasco se nombra al río *Uragona* que pasa por Aberasturi, y desemboca en el río *Alegría* en las balsas de Zurbano, *Errekaberri*. Adjunto le acompaño un documento al objeto de que, una vez estudiado, se proceda por ese organismo al cambio de denominación de *Errekaberri* por *Uragona* que es su verdadero nombre. Porque es el Santo Tomás o *Errekaberri* el que fue nombrado así durante siglos hasta finales del siglo XIX. Y nuestro río sólo tomó prestado el nombre de *Errekaberri* a inicios del siglo XX por error, a excepción de la Diputación Foral de Álava que sigue manteniendo hasta nuestros días el nombre de *Uragona*. Por otra parte, también es necesario actualizar los nombres de los arroyos que son tributarios del *Uragona*.

1. Sobre hidronimia

En primer lugar, convendría que mencionáramos ciertos aspectos relacionados con la hidronimia. Así, cabe recordar que los ríos y arroyos, por ser cursos de agua, no se representan en un mapa por medio de un único punto, como sí sucede con otras entidades geográficas (piezas, montes, fuentes o casas, pongamos por caso). Son líneas, y no puntos, que atraviesan, a su vez, diferentes lugares. Este carácter singular provoca ciertos inconvenientes a la hora de nominar los ríos. Citaremos, *grosso modo*, algunos de ellos:

1.1 Algo habitual es que los ríos y arroyos no tengan ningún nombre propio, y que los habitantes los llamen sencillamente *río*, o alguna de sus variantes o derivados, según se considere su tamaño o alguna otra característica. Y, por lo tanto, en los textos documentales, sólo se mencione “río mayor”, “riachuelo”, “arroyo”, “regajo”, “río caudal”, “río grande”, etcétera. Asimismo, en otras ocasiones, se describe como *el río*, *el agua*, o *las aguas* junto a sus diferentes sentidos dentro de una dirección. Por ejemplo: “río que baja de...” “río que viene de...”, “río que va a...”, “las aguas que bajan de...”, “regajo que bajan las aguas al río”, etcétera.

1.2 El río podría no estar identificado con un nombre, sino que en muchas ocasiones se indica el término que atraviesa, como por ejemplo “arroyo que pasa por”, “río del dicho (término)...”, “arroyo que conduce las aguas del término de...”.

1.3 Asimismo, un mismo río puede tener a lo largo de su cauce diferentes nombres que, en ocasiones, como es el caso que nos ocupa, suelen corresponder con algunos de los términos que cruza.

1.4 En sentido inverso, el nombre de un río puede dar nombre a un término, tal es el caso de *Errekabarri*, por ejemplo, que es el nombre de un término de Aberasturi. El propio nombre indica la existencia de un río, a pesar de que no se cite como tal en la documentación de ese pueblo, pero sí en cambio en otros colindantes (véase el Anexo 1 con ejemplos de lo mencionado en la documentación de Aberasturi).

1.5 En los diferentes planos y mapas de un cierto lugar, un mismo río puede ser nominado con nombres distintos, según el criterio, en cada caso, del ejecutor de dicho mapa.

2. Sobre los nombres *Urogena* vs *Uragona*

Respecto al propio nombre del río en cuestión, hoy conocido como *Uragona*, cabe señalar que los testimonios documentales más tempranos de que disponemos sobre este nombre (siglo XVI) rezan claramente *Urogena*, nombre en lengua vasca compuesto de *ur* ‘agua’, ‘río’, y el adjetivo *ogen* con el significado en toponimia de ‘torcido’, con el artículo *a*. Por consiguiente, el nombre de *Uragona* sería una variante desfigurada, a nuestro entender, del nombre *Urogena*: arroyo *Uroguena* (1518), acequia *Uroguena* / *Uroguena* (1577), río *Uroguena* / *Oroguena* (1607), *Uroguena* (1610), *Urhorguena* (1638), *Uroguena* / arroyo *Urunguena* (1842). Es a partir del siglo XVIII, principalmente, cuando comienza a distorsionarse el nombre y en el siglo XX se mencionan los nombres de *Uragona*, *Urugena*, *Uragena* y hoy le llaman *Uragona* o *Uracona* (véase el Anexo 2.1 y 2.2).

3. Ubicación del río *Urogena* (hoy *Uragona*)

3.1 La documentación de esta zona cita este arroyo tanto en la localidad de Aberasturi como en la de Andollu, pero aclararemos que no corresponde con la localización del dicho pueblo de Andollu, sino con su divisa en los Montes Altos de Vitoria, llamada *Coto de Andollu* y que linda con Aberasturi y el Comunal de Iztartza (Ayuntamiento de Arluzea). La zona de su nacimiento (*Iturriago*) está cerca del pueblo de Iztartza si bien se junta con aguas y arroyos, y cuando baja hacia el pueblo de Aberasturi toma el nombre de *Urogena* / *Uragona*, que es también nombre de término (véase Anexo 2).

Las citas con este nombre lo sitúan entre la zona de Montes Altos y el núcleo urbano del propio Aberasturi, principalmente. En la salida del concejo se menciona como río *de Aberasturi* o toma la denominación de los términos por donde pasa, como río *Elorri* o río de *San Lorenzo* (véase Anexo 2.3). Aun así, podemos decir que los ríos y arroyos que atraviesan Aberasturi no son mencionados en la documentación de entre los siglos XVI y XX por un nombre en la mayoría de las citas¹, sino con la designación genérica, como ya se ha dicho más arriba (§1)².

¹ En la base de datos propiedad de Euskaltzaindia, sobre la que se trabaja en el Proyecto del Estudio de la Toponimia de Vitoria, el concejo de Aberasturi tiene 7.281 registros toponímicos. Aproximadamente en 1.200 se cita algún río, riachuelo o arroyo, y entre éstos, únicamente se asigna algún nombre en 30 registros.

² En el trabajo de Manuel Grisaleña (2016) se puede ver que cuando se menciona "el río + un

4. Sobre *Errekabarri*

4.1 En la documentación de Aberasturi, *Errekabarri* se cita como término, pero como su nombre indica (*erreka* ‘río’, *barri*, variante del euskera occidental de *berri* ‘nuevo’ y el artículo *a*) se refiere a un río. Los testimonios no citan expresamente el nombre del río, a no ser de forma genérica. Está ubicado al oeste de *Uragona* (véase Anexo 3.1).

4.2 Los vecinos de Askartza explican que río *Oscuro* y *Errekabarri* es el mismo, al igual que expresan los de Arkauti (véase Anexo 3.2).

4.3 *Errekabarri* está ampliamente atestiguado desde el siglo XVII en la documentación de Arkaia, Arkauti, Betoñu y Elorriaga (véase Anexo 3.3).

5. Información de URA

Con respecto a la información que ofrece la agencia URA, mediante su página web, en dos tipos de soportes (visor y PDF) hemos podido comprobar que los nombres de los ríos no coinciden entre ambos. A saber:

En la versión del Mapa hidrológico del 2017 de la CAPV en formato PDF, el río que aparece desde su nacimiento hasta juntarse con el río *Alegría* se denomina *Errekabarri*. Sin embargo, en la versión del visor se cita *Uragona* y *San Lorentxo* antes del núcleo urbano de Aberasturi (véase Anexo 4).

Conclusiones

El nombre del actual río *Uragona* es *Urogena*, tal y como queda atestiguado en la documentación histórica.

Este río junta sus aguas con otros ríos de los alrededores, de ahí, además de otras causas, el cambio de nombres, según tome uno u otro.

nombre propio" es, principalmente, a finales del siglo XX o principios del siglo XXI.

Es acertado decir que se le ha llamado *Urogena* / *Uragona* hasta llegar al núcleo urbano, y una vez pasado éste, recibe el nombre de *San Lorentzo*, por ser el nombre del término que atraviesa y que evoca la existencia de una antigua ermita con dicha advocación.

Que en Askartza a este río se le llama *Río Oscuro* o *Errekabarri*. Y en los pueblos colindantes, donde está más documentado, se le llama *Errekabarri*, no siendo citado el dicho *Urogena* / *Uragona* en ninguno de los documentos históricos consultados de esos pueblos (Arkaia, Arkauti, Elorriaga, Betoñu).

Aprobado por la Comisión de Onomástica el 11 de junio de 2020.

Anexo 1

He aquí una muestra de varios testimonios documentales de Aberasturi, recogidos en la documentación de diferentes archivos, y publicados (Martínez de Madina 2017):

"Una pieza en termino *Volibarbidea* que linda al camino Real que ba de Aberasturi a Bolibar y por la ondonada al rio caudal" (1604, AHPA, P. 3.917).

"Una pieza en el termino de *Arechagea* al rio que va de la *Deesa de Aberasturi* pueblo" (1608, AHPA, P. 2.634, f. 99).

"Una pieza en termino de *Gamiz videa* que linda por ondonada con el rio que vaja de Averasturi a *Sarasua*" (1680, AHPA, P. 5.993, f. 57).

"Una pieza en el termino de *Zarratea* que linda por la ondonada al regaxo que baxa de *Aberasturi Zarratea* y pegante al rrio que baxa por *Bolibar bidea*" (1697, AHPA, P. 5.990, f. 1.033v).

"Una heredad en el termino de *Uraldea* que alinda por la ondonada al rio que de dicho lugar corre para el de Ascarza" (1741, AHPA, P. 595).

"Otra [heredad] en el término de *Errecabarri*; linda por [...] poniente al rio que baja de *Andicoaranetea* y Norte dicho rio de *Aranetea*..." (1895, AHPA, P. 20.809, f. 656v).

"Una heredad en el termino de *Liriobia* que linda por la cauezera con el rio que vaja de dicho lugar de Aberasturi para el de Ascarza y por la ondonada a un riachuelo; y por medio de la dicha heredad atrauiesa una senda que se ba al termino de *Zarandoa*" (1725, AHPA, P. 131).

"Aprovechamiento de pastos y aguas de los terminos *Aranduia*, *Bassazabala*, *Ynchuribitarte* y confinantes [...] *Yncastobiarana*, *Santipauligana*, *Doñamaria*, *Ocharrachamendia* que actualmente se llama *Velamendi* hasta llegar al rio que baja de *Uregona* que ha servido de mojon divisorio de los terminos propios de Aberasturi y el comunero de ambos y la ladera que se sube de *Uriarte* hacia Oquina es solo de Aberasturi..." (1781, AHPA, P. 1.548).

"Otra [heredad] en el termino que llaman *Recaldea* antes, y ahora por otro nombre *Rio Alduya*, y por el poniente se atiene con regata que bajan las aguas de todo el termino del rio caudal" (1853, AHPA, P. 10.575, f. 118).

"Otra [heredad] en *Elorri*, linda [...] Este al *Rio de Elorri* o *de Aberasturi*..." (1893, AHPA, P. 20.753, f. 2.698v).

Anexo 2

Muestra de los testimonios documentales (siglos XVI-XXI) donde se cita, en esta zona, *Urogena*, tanto como nombre de río y de término, y sus variantes, así como su ubicación en el mapa adjunto y publicados (Martínez de Madina 2017):

2.1 En la documentación del pueblo de Aberasturi:

UROGENA

DOC. *Arroyo Uroguena* (1518, AMV, sig. 10/014/000, f. 63), *Acequia Uroguena / Urogena* (1577, AMV, sig. 10/018/000, f. 63), *Urunguena* (1700-1757, AMV, sig. 10/021/000), *Uregona* (1781, AHPA, P. 1.548), *Uroguena / Arroyo Urunguena* (1842, AMV, sig. 10/023/BIS), *Uruguena* (1862, AMV, sig. 10/024/000), *Uragona* (1888, AMV, sig. 10/025/BIS), *Uruguena* (1889, AMV, sig. C/5/32), *Uruguena* (1904, AMV, sig. 10/025/BIS), *Urugena* (1919, AMV, sig. 10/026/000, f. 76-82), *Uragona* (1934, AMV, sig. 25-33-65), *Uragena / Uragona* (1948, AMV, sig. 47/15/63), *Uragona* (1988, CT), *Uragona* (2017, IO), *Urakona* (2017, IO).

"... fueron a la entrada del monte de entre Villafranca y Troconiz junto al camino real de Andollu a Oquina [...] fueron por dicho camino en la *Dehessa de Villafranca* un mojon [...] fueron por dicho camino mas adelante otro mojon en *Uroguena* [...] fueron a otro mojon [...] fueron a otro mojon termino *Oguena* encima la *Acequia Uroguena* donde acaba la jurisdiccion del Duque con Vitoria y entra la jurisdiccion de Andollu otra vez..." (1577, AMV, sig. 10/018/000, f. 63).

"... Señor de Arraya y su lugar despoblado de *Yzarza* camino que llaman *Crucemendi* donde estan los mojones para con Troconiz y para con Andollu y la dicha ciudad y destos subiendo fazia el monte alto a dar a otro mojon que dizen *Gazalvidea* e dende a otro donde dizen *Videzaballa* [...] a otro mojon que esta pegado a un *Arroyo* que dicen *Uroguena* [...] a otro en el mismo arroyo a otro mas arriba pegado al camino que va a *Urzavalla*..." (1518, AMV, sig. 10/014/000, f. 63).

"Aprovechamiento de pastos y aguas de los terminos *Aranduia*, *Bassazabala*, *Ynchuribitarte* y confinantes [...] *Yncastobiarana*, *Santipauligana*, *Doñamaria*,

Ocharrachamendia que actualmente se llama *Velamendi* hasta llegar al río que baja de *Uregona* que ha servido de mojon divisorio de los terminos propios de Aberasturi y el comunero de ambos y la ladera que se sube de *Uriarte* hacia Oquina es solo de Aberasturi..." (1781, AHPA, P. 1.548).

"Desde este yendo por dicho camino hacia el medio día hasta llegar a un Arroyo en el mismo termino de *Urunguena* se halló junto al mencionado arroyo á la parte del oriente un mojon de piedra arrejola levantado de la tierra ago mas de una vara de pie cuadrado de grueso..." (1842, AMV, sig. 10/023/BIS).

OBS. De *ur* 'agua', con la acepción de 'río', más *ogen* que en toponimia tiene el significado de 'torcido'. Suele tener la acción de 'meandro', al igual que en castellano el conocido *Rituerto*, y variantes. Se trata del río cuyas aguas servían para mover el *Molino de Aberásturi*, tal y como aseguraba Carlos Martín (2002: 280). En la documentación, tanto la presentada aquí como la recogida en Billafranka, se puede ver la desfiguración de este topónimo hasta el actual *Uragona* y *Urakona*.

Mapa Aberasturi. n. 62

Mapa Aberasturi. n. 74

2.2 En la documentación del Coto de Andollu, divisa en los Montes Altos de Vitoria, se cita como río, término y monte, además de haber en dicho término un mojón.

DOC. *Acequia Urogueña* (1577, AMV, sig. 10/018/000), *Río Urogueña / Orogueña* (1607, AMV, sig. 10/018/000), *Urogueña* (1610, AHPA, P. 4.152, f. 113v), *Urhorgueña* (1638, AMV, sig. 10/019/000), *Urungueña* (1700-1757, AMV, sig. 10/021/000), *MontteVrugueña* (1749, AHPA, P. 8.988, f. 320), *Urungueña* (1797, AHPA, P. 1.647, f. 350v), *Ugureña* (1797, AHPA, P. 1.647, f. 351), *Urugueña* (1797, AMV, sig. 10/023/BIS, f. 51v), *Urugueña* (1862, AMV, sig. 10/024/000), *Urugueña* (1904, AMV, sig. 42/10/45), *Uragona* (1934, AMV, sig. 25-33-65), *Urugueña* (1934, AMV, sig. 25-33-65), *Urugueña* (1948, AMV, sig. 47/15/63), *Uragona* (2017, IO).

"... fueron a otro mojon termino *Ogueña* encima la *Acequia Urogueña* donde acaba la jurisdiccion del Duque con Vitoria y entra la jurisdiccion de An-

dollu otra vez...” (1577, AMV, sig. 10/018/000). Es un apero del Mortuorio de Uriarte y Aberasturi.

"... llegaron a un moxon a la entrada del monte entre Villafranca y Troconiz cavo el camino real que va Andollu y Oquina [...] de allí a otro moxon llamado *Oroguena* al lado de un Río pequeño llamado *Uroguena* junto al camino real [...] de allí a otro moxon en el camino real. de Andollu a Oquina [...] de allí a otro moxon en lo alto del cerro que divide el termino de Andollu y Aberasturi [...] de allí fueron a otro moxon llamado *Matucu escarra* en lo alto de una sierra que parte Vitoria y Andollu" (1607, AMV, sig. 10/018/000).

"... y llegaron [...] al Montte y termino de *Vrugena* comun de pastos del lugar de Aberasturi Jur^{on}. de esta dicha ciudad y de dicha villa de villa Alegre de Andollu y al sitio llamado *Contara eche* que cae en una oyada muy cerca del puerto y Montte nombrado *Matauco ciarra* y del camino carretil por donde suben los de Oreitia y Andollu a vaxar leña y los de Troconiz pasan a Oquina, en cuio sitio empieza la diuision y moxonera de las jurisdicciones de esta referida ciudad y de la expresada villa de Villa Alegre...” (1749, AHPA, P. 8.988, f. 320).

OBS. El testimonio documental de 1607 identifica el topónimo como “un río pequeño...”. El de 1749 lo identifica con un monte. Es un término del monte de Andollu, en Montes Altos, y da nombre al río que pasa por Aberasturi.

2.3 Muestra de los nombres que toma el río en la zona más al norte, antes de salir del concejo de Aberasturi: *Río de Aberasturi*, *Río de Elorri*, *Río de San Lorenzo*.

ABERASTURI, río de / *ELORRI*, río de

DOC. Río de Aberasturi (1893, AHPA, P. 20.753, f. 2.698v).

"Una heredad termino de *Elorri* río caudal que va para Ascarza" (1779, AHPA, P. 1.847, f. 172v).

"Otra [heredad] en *Elorri*, linda [...] Este al Río de *Elorri* o de *Aberasturi*..." (1893, AHPA, P. 20.753, f. 2.698v).

"Una heredad en el termino de *Arrazuavide*, que por el Norte confina con arroyo y el camino de *San Juan de Uriarte*, por Este al mismo camino de *San*

Juan de Uriarte, y por Oeste termina en ribazo lindante con senda y el rio de Aberasturi" (1885, AHPA, P. 17.912, f. 980).

OBS. Durante el estudio de los testimonios documentales se ha observado alguna referencia, como la de 1779, a un río caudal que baja a Askartza, o el testimonio de 1893 que identifica este río como el *Rio de Elorri*.

SAN LORENZO

DOC. *San Lorenzo* (1616-1716, AHDV, Parroquia de Aberasturi, n. 10), *San Lorenzo* (1620, AHPA, P. 6.104, f. 391), *Sant Lorenzo* (1630, AHPA, P. 2.597, f. 676), *San Lorenzo* (1669, AHPA, P. 3.218, f. 1.157), *San Lorenzo* (1679, AHPA, P. 6.082, f. 674), *San Lorenzo* (1691, AHPA, P. 9.241, f. 1.536v), *San Lorenzo* (1694, AHPA, P. 5.987, f. 1.390), *San Lorenzo* (1695, AHPA, P. 5.594, f. 638), *San Lorenzo* (1700, AHPA, P. 6.084, f. 253v), *San Lorenzo* (1705, AHPA, P. 9.243, f. 333), *San Lorenzo* (1713, AHDV, Parroquia de Aberasturi, n. 15), *San Lorenzo* (1745, AHPA, P. 851, f. 561v), *San Lorenzo* (1760, AHPA, P. 855, f. 456v), *San Lorenzo* (1779, AHPA, P. 8.876, f. 439), *San Lorenzo* (1793, AHPA, P. 1.811, f. 76), *Coteado de San Lorenzo* (1809, AHPA, P. 10.007-A, f. 45), *San Lorenzo* (1823, AHPA, P. 8.780, f. 219v), *San Lorenzo* (1843, AHPA, P. 8.694, f. 45v), *San Lorenzo* (1868, AHPA, P. 13.752, f. 738), *San Lorenzo* (1883, AHPA, P. 13.365, f. 936v), *Rio de San Lorenzo* (1885, AHPA, P. 17.912, f. 973v), *San Lorenzo / Senda de San Lorenzo* (1922, AMV, sig. 02-14-33, caja: Bolivar, Castillo, Cerio, Crispijana y Elorriaga), *San Lorenzo* (1927, AMV, sig. 02-14-38, caja: Oreitia-Otazu), *Rio de San Lorenzo / San Lorenzo* (1930, AMV, sig. 02-14-36, caja: Abechuco-Aberásturi), *San Lorenzo* (1935, AMV, sig. 02-14-36, caja: Abechuco-Aberásturi), *San Lorenzo* (1988, CT), *San Lorenzo* (2017, IO).

"Un pieza en termino de *Elorria* que linda al camino que bamos a la *Ermita de San Lorenzo*" (1697, AHPA, P. 5.990, f. 1.029v).

"Una eredad en termino de *Padura arratea* que linda por la ondonada al camino y por la cavecera a la senda que se va del a la *Ermita de San Lorenzo*" (1722, AHPA, P. 90, f. 717).

"Una heredad en el termino de *San Lorenzo*, al Sur con el *Rio de San Lorenzo*" (1885, AHPA, P. 17.912, f. 973v; 1887, AHPA, P.19.863, f. 770; 1893,

AHPA, P.20.753, f. 2.697v).

"Término *San Lorenzo*; Sur *Río de San Lorenzo*" (1930, AMV, sig. 02-14-36, caja: Abechuco-Aberásturi)

OBS. Es un topónimo vivo hoy día en el pueblo y que se documenta de diferentes formas, *San Laurentzio*, *San Lorente*, *San Llorente* y *Santilaurenti*. Y los relacionados con él, como *Sanllorentealde*, *Sanlorentzostea*, *Santilaurentialdea* y *Santilaurentiostea*.


"Los nombres de este término recuerdan a la ermita que hubo en el lugar dedicada a la advocación de San Lorenzo".

Mapa Aberasturi. n. 2 y n. 4

Mapa de ABERASTURI

1 Chopera	41 Mendiederra	79 Madurea
2 San Lorenzo	42 Monte Kapilduia	80 Las Redondas
3 Ormatxua	43 La Chabola del Manco	81 Justarrufina
4 San Lorenzo	44 Katazierra	82 Ibarra
5 Elorri	45 La Laguna	83 Errekabarri
6 Iñarea; Iñarrea	46 Barrera los Alberques	84 Artzagaña
7 Durruma	47 Ullibarrialdea	85 Artzapea
8 Liriobi	48 La Balsa	86 Tximixua
9 Estebasolo	49 Los Alberques	87 Juantoloa
10 El Pozo	50 Sagarmina	88 San Juan
11 Camino y Barranco Maurdoa	51 Barranco la Teja	89 Santiago
12 El Coteado de Abajo	52 La Tejera	90 Txirpia
13 El Coteado de Arriba	53 El Cargadero	91 Aretxostea

14 Debajo del Alto	54 El Avellanal	92 La Senda de Askartza
15 Mugaburu	55 Botrujo	93 Zaraondoa
16 Camino de Vitoria	56 Los Dos Ojos	94 Solarana
17 El Alto del Coteado	57 El Patalaburra	95 Arratzubidea
18 Okaranpea	58 La Majada	96 Area
19 La Cruz	59 Aranduia	97 Aretxagea
20 Los Nogales	60 Urogena	98 Donaparaioa
21 Las Basuras	61 La Salera	99 Lakua
22 La Presa	62 Camino de los Alemanes	100 La Carretera
23 Mirantea	63 Belamendi	101 Bagoandi
24 La Landa del Coteado	64 El Cementerio de los Bueyes	102 Askartzabide
25 Maurdoa	65 Monte Santipablo	103 Latronia
26 Fuente de Maurdoa	66 Las Pasadas de Donamaria	104 Las Canteras
27 Estrecho de Maurdoa	67 Oletako	105 Las Pulgas
28 Arrastuia	68 Chojapiedra	106 Descansadero
29 Bolibarbidea	69 Madariaga	107 San Juan
30 Kukubaso	70 Areatza	108 Alto la Quemada
31 Los Piñones	71 Los Vestuarios	109 Txozalde
32 Fuente las Ratas	72 Urogena	110 San Juan de Uriarte
33 Aranetea	73 Gisatxoisa	111 Pozo de los Linos; Linapozua
34 Puente Aranetea	74 Las Pastoras	112 Puente Poza San Juan
35 Los Volantes (y Alto los Volantes)	75 Camino en Medio	113 Urzabala
36 Alto de las Landas	76 Katilutxo	114 Orrubi; Arrobi
37 Las Landas	77 Los Pasiegos	115 La Larra
38 Barranco Aranetea	78 Urgazi	116 Alto Orrubi / Arrobigana
39 Senda de Ullibarri	78,1 Senda Urgazi	
40 La Quemada de Betolatza	78,2 El Alto Urgazi	



Anexo 3

3.1 Testimonios de *Errekabarri* en la documentación de Aberasturi. Se cita como término por donde pasa un río.

ERREKABARRI (en Aberasturi)

DOC. *Recabarria* (1670, AHPA, P. 3.413), *Errecabarri* (1787, AHPA, P. 1.443, f. 1.119), *Errecabarri* (1865, AHPA, P. 13.519, f. 383), *Recabarri* (1871, AHPA, P. 13.763, f. 1.846), *Recabarri* (1883, AMV, sig. 2-14-31, caja: Echa-güe-Fernández de Zuazo), *Errecabarri* (1895, AHPA, P. 20.809, f. 656v), *Errecabarri* (1897, AHPA, P. 22.294, f. 4.071), *Recabarri* (1906, AMV, sig. 2-14-32, caja: Abechuco-Aberásturi), *Recabarri* (1915, AMV, sig. 02/014/032), *Rekabbarri* (1922, LE), *Recabarri* (1923, AMV, sig. 02/014/031), *Recabarri* (1927, AMV, sig. 02/014/033, caja: G), *Recabarri* (1927, AMV, sig. 02-14-36, caja: Abechuco-Aberásturi), *Recabarri* (1936, AMV, sig. 02-14-36, caja: Abechuco-Aberásturi), *Errecabarri* (1988, CT), *Rekabbarri* (2017, IO).

“Una heredad en el termino de *Errecabarri*, norte regajo que bajan las aguas al río del termino” (1865, AHPA, P. 13.519, f. 383).

“Una heredad en el termino de *Recabarri* o *Bolibarribide*” (1871, AHPA, P. 13.763, f. 1.846).

“Otra [heredad] en el término de *Errecabarri*; linda por poniente al río que baja de *Andicoaranetea* y Norte dicho *Rio de Aranetea...*” (1895, AHPA, P. 20.809, f. 656v).

OBS. De *errika* ‘arroyo’, ‘río’, más *barri*, variante del euskera occidental de *berri* ‘nuevo’. Es decir, ‘el río nuevo’. En varios testimonios se documenta *Reca-* con aféresis de vocal inicial en origen protética, tal y como suele suceder en otras ocasiones (cfr. *Errota*, *Rota*).

Mapa Aberasturi. n. 85

3.2 Testimonios de *Errekabarri* en Askartza, donde es llamado río *Oscuro*, recogidos en la documentación de diferentes archivos, y publicados (Martínez de Madina 2017, se adjunta mapa).

RÍO OSCURO y ERREKABARRI (en Askartza)

DOC. *Camino del Río Oscuro* (1700, AMV, sig. 8/15/2), *Puente de Río Oscuro* (1851, AHPA, P. 13.244, f. 513), *Camino del Río Oscuro* (1853, ATHA, Ref. D. 1.392-5, f. 3), *Río Oscuro* (1910, AMV, sig. 2-14-32, caja: Armentia, Arriaga, Ascarza, Berrosteguieta, Betoño), *Río Oscuro* (1916, AMV, sig. 2-14-32, caja: Armentia, Arriaga, Ascarza, Berrosteguieta, Betoño), *Río Oscuro* (1927, AMV, sig. 02-14-37), *Río Oscuro* (1956, TA), *Ríoscurro* (1988, CT), *Río Oscuro* (2017, IO en Askartza). *Recaberri y Río Oscuro* (2015, IO en Elorriaga).

"Una heredad en el termino de *Ozalarrina* linda por poniente al camino que del *Puente* titulado de *Río Oscuro* dirige para el termino de *Petriqueiz*" (1851, AHPA, P. 13.244, f. 513).

"... otro Monte llamado el *Alto de Mendiluze* y por la oiada de *Durruma* doscientas y trece fanegas [...] este alinda por el norte a el mencionado *Camino del Río Oscuro* por el Oriente a otro monte del Pueblo de Argandoña y heredades labradas, por mediodía a camino nuevo que esta construyendo la Provincia y se dirige este de Elorriaga para *Yguileta* y por el poniente a otras heredades..." (1853, ATHA, Ref. D. 1.392-5, f. 3).

"Término en que radica *Río Oscuro*. Linderos Sur camino, Este *Río Oscuro*" (1927, AMV, sig. 02-14-37).

OBS. Este topónimo se ha documentado y presentado en Arkauti, donde también se recoge *Errekabarri(a)*. Los vecinos de esos pueblos indican que *Errekabarria* y el río *Oscuro* son dos nombres para el mismo río, que recorre Zurbano y Arkauti por debajo del monte.

Mapa Askartza. n. 7

3.3 *Errekabarri* en Arkaia, Arkauti, Betoño y Elorriaga (Martínez de Madina 2015, se adjunta mapa).

ERREKABARRIA

DOC. *Errecabarria* (1633, AHPA, P. 3.731, f. 181), *Errecabarria / Rio de Errecabarria* (1680, AHPA, P. 6.068, f. 491), *Rio de Errecabarria* (1692, AHPA, P. 6.083, f. 1.298), *Errecabarri* (1827, AHPA, P. 8.582, f. 255v), *Rio Recabarria* (1830, AHPA, P. 8.787, f. 1.024v), *Regajo de Recabarria / Recabarria* (1830, AHPA, P. 8.787, f. 1.025v), *Rio Errecabarri* (1847-1871, AMV, sig. 10/024/000), *Rio Recabarri* (1853, ATHA, Ref. D.1.392-5, f. 9), *Rio Errecabarri* (1856, AMV, sig. 10/024/000), *Recabarri* (1891, AMV, sig. 54-21-19), *Recabarri* (1892, AMV, sig. 54-11-17), *Recabarri* (1894, AMV, sig. 46-32-14), *Recabarri* (1899, AMV, sig. 44-23-42), *Recabarri* (1899, AMV, sig. 44/23/41), *Monte Recabarri* (1903, AMV, sig. 42- 20-50), *Recabarri* (1929, AMV, sig. LI/29/1), *Ricabarri* (1933, AMV, sig. 33/036/045), *Recabarri* (1957, AMV, sig. LD40-12).

"Apeo de la jurisdiccion de Vitoria, Zurbano, Arcaya, Elorriaga y Arcaute [...] en vn moxon gesta en el termino llamado *Larrabea* que es propio de dichos lugares de Lorriaga y Arcaute y se alla juntto al Rio que llaman los vecinos de dichos lugares *Errecabarria* y los de Çurbano el *Rio de Arcautte* a veinte pasos de la canja que biene de la balsa de dicho lugar de Curbano a dicho rrio..." (1680, AHPA, P. 6.068, f. 491).

"Otro campo que se halla enseguida del anterior hacia la parte oriental, alinda por oriente con la mojonera que divide el campo que es comunero con Zurbano, por Norte a heredad concejil de estos pueblos y por mediodia al Rio llamado *Errecabarri*" (1811, AMV, sig. 8-16-2, f. 1).

"Desde el precedente mojon (en el termino de *Larragana*), se paso a otro que está pegante al Rio llamado *Recabarria* que hace escuadra el mismo rio, y sube acia los montes de Zurbano y Arcaute a distancia de 80 pasos del anterior..." (1830, AHPA, P. 8.787, f. 1.024v).

"... la misma direccion termino y acequia a su terminacion y la que empieza

de la parte de oriente o Balsa de Elorriaga y Arcaute otro mojon a 155 m. 50 cm [...] Formando escuadra al oriente siguiendo un *Rio* titulado *Errecabarri* atravesando la divisoria de los montes de Zurbano, Arcaute, Elorriaga y Arcaya al mediodia de dicho rio donde titulan *El Espinal* y da conclusion el arbolado de dichos montes se halla el mojon a 1.5150 m. 30 cm..." (1856, AMV, sig. 10/024/000).

"... continuando al mediodia por el termino de *La Regana* tambien con Betoño hasta el mojon 269 en que se cambia de direccion al oriente y con la comunidad de Elorriaga, Arcaute, Arcaya y la representacion de Zurbano. Se recorre un trayecto de 1.515 m. por campos y montes de referidos pueblos, terminos *Las Balsas* y *Recabarri*..." (1899, AMV, sig. 44/23/41).

OBS. Según Martínez de Madina (2015) los testimonios que conocemos en la documentación de Betoño se presentan principalmente con aféresis de vocal inicial, en origen protética ante vibrante múltiple, *Recabarri(a)*. Sin embargo, en los pueblos colindantes, así como en la documentación consultada del cercano Zurbano, se presenta el topónimo como *Errecabarri* hasta bien entrado el siglo XIX (cfr. *Rio Erracabarri*, 1856). Asimismo, en el texto de 1680 se dice que a este río los de Zurbano le llaman *Río de Arcaute*, y los de Elorriaga y Arkauti *Errecabarria*.

"Los vecinos de Askartza hoy día dicen que *Errekabarri* y el *Río Oscuro* son el mismo y añaden que el río recorre Zurbano y Arkauti por debajo del monte."

Mapa Elorriaga-Arkauti. n. 41

Mapa de ASKARTZA

- 1 Monte de Abajo
- 2 Otsalarrina
- 3 Fuente el Pastor
- 4 Pozo Manzanal
- 5 Okaranpea
- 6 Aretxandia
- 7 Río Oscuro
- 8 Petrikiz
- 9 La Dehesa
- 10 Larratxo
- 11 Basagutxi
- 12 Larraokelu
- 13 Tablado
- 14 La Larra
- 15 Bidebarri
- 16 Arkaiabidea
- 17 Sarrinkoa
- 18 Alto el Muro
- 19 San Román
- 20 Pozueta
- 21 Lanbarrieta
- 22 Coteado
- 23 Durruma
- 24 Las Canteras
- 25 Mendiluze
- 26 Txaraka
- 27 Las Charcas

Irizpenak eta txostenak



ASKARTZA



Mapa de ELORRIAGA-ARKAUTI

- | | |
|--|------------------------------|
| 1 Alto las Neveras | 41 Errekabarri / Río Oscuro |
| 2 Camino de Elorriaga | 42 Balsas de Betoño |
| 3 La Farola | 43 La Caja (Caja de Ahorros) |
| 4 El Cascajal | 44 La Granja Modelo |
| 5 Errekaleor | 45 Kastrua / Krastua |
| 6 Debajo de Santa Lucía | 46 Txorrotea |
| 7 Eskalerea | 47 Río Santo Tomás |
| 8 Berdotza | 48 Las Piezas de la Granja |
| 9 El Puente Caído | Modelo |
| 10 Detrás de las Juntas / Malferría | 49 Petrikiz |
| 11 El Camino Hondo | 50 El Espinal |
| 12 Río Errekaleor | E Ermita |
| 13 Santa Culi | M Molino |
| 14 El Aeropuerto | F Fuente |
| 15 Zalburu | |
| 16 Los Alticos | |
| 17 Monte de Sarburua | |
| 18 Gardiduiá | |
| 19 Río Arkatxa | |
| 20 Kabazarra | |
| 21 La Dehesa Pequeña | |
| 22 Urondoa | |
| 23 Arkaiatea | |
| 24 Arkautira bidea / La Casa del Americano | |
| 25 Basazarra | |
| 26 Perranzarra | |
| 27 Fresnal | |
| 28 Larragana | |
| 29 Iturgutxi | |
| 30 El Montecico | |
| 31 La Dehesa Grande | |
| 32 Puente Uriarte | |
| 33 Martzaia | |
| 34 Marikatea | |
| 35 Los Hoyos | |
| 36 San Pedro | |
| 37 El Canal de la Balsa | |
| 38 La Balsa de Zurbano | |
| 39 El Monte | |
| 40 El Monte Grande | |

ELORRIAGA-ARKAUTI



Anexo 4

Información de URA agentzia.

4.1 Versión en PDF: *Errekabarri* hasta el río *Dulantzi* / río *Alegria*.



4.2 Información en el visor: *Uragona* y *San Lorenzo*, antes del casco urbano.



Abreviaturas principales

AHPA: Archivo Histórico Provincial de Álava.

AMV: Archivo Municipal de Vitoria.

DOC.: Documentación. Datos documentales.

OBS.: Observaciones.

IO: Información oral suministrada por los vecinos de cada pueblo.

Bibliografía

GONZÁLEZ SALAZAR, José Antonio (1988). *Toponimia menor de Vitoria-Gasteiz, Cuadernos de Toponimia 5*, Vitoria: Diputación Foral de Álava [CT].

GRISALEÑA, Manuel (2016). *Aberasturi. Pueblo rico, pueblo de ganado*.

LÓPEZ DE GUEREÑU, Gerardo (1989). *Toponimia alavesa seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses*, Onomasticon Vasconiae 5, Bilbo: Euskaltzaindia, [TA].

MARTÍN, Carlos, (2002). *Ruedas y molinos de Álava, Ohitura 10*, Vitoria: Diputación Foral de Álava.

MARTÍNEZ DE MADINA, Elena (2015). *Gasteizko toponimia V, Arratzua I*, Onomasticon Vasconiae 31, Bilbo: Euskaltzaindia.

————— (2017). *Gasteizko toponimia VI, Arratzua II*, Onomasticon Vasconiae 32, Bilbo: Euskaltzaindia.

————— (2019). *Gasteizko toponimia VII, Arratzua III*, Onomasticon Vasconiae 33, Bilbo: Euskaltzaindia.

URA [www.uragentzia.euskadi.eus].

JAGON Saila

Sustapena

Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak, 2020ko abenduaren 15ean, "Immigrazioa eta euskara. Udaletako politika berriak" jardunaldia antolatu zuten. Hitzaldi-sorta oparoa entzun zen eta haieratik hiru testu edo artikulua jaso ditugu, hain zuzen ere, hona bilduta argitaratu ditugunak. Lehenbizikoa, Xabier Aierdi soziologo eta Begirune fundazioko kideak idatzia; jarraian, Álex Vadillo eta Elena Urzelai Gasteizko Udaleko Euskera Zerbitzuko teknikariek idatzi dutena, eta azkenik, IKUSPEGL-OBSERVATORIO VASCO DE INMIGRACIÓN erakundetik iritsi zaiguna. Esan gabe doa, hirurak jardunaldiaren haria jarraitu dutela eta immigrazioa eta euskara aldagaiak uztartzen eta aztertzen ahalegindu direla.

Immigrazioarekiko ikuspegia. Herrietako esperientziak biltzeko egitasmoa. Euskara non dago?

AIERDI URRAZA, Xabier
BEGIRUNE Fundazioa

Abiapuntua

Jardunaldi hauetako gaia oso garrantzitsua da, zeharka euskararen egoera erakusten digulako eta euskaratzearen agenteak eta erantzukizun publikoaren eginbeharrak eta mugak arakatzen direlako. Immigrazioaz ari gara, baina bide batez gizarte osoak euskararekin duen harremanaren inguruko hausnarketa da.

Immigrazioa errealitate estrukturala dela aipatu da aurreko edizio batean, dagoe-neko EAEn 260.000 pertsonak etorkin-osakinen bat duelako (1. taula), zortitik batetik. Immigrazio hau:

1. Edo atzerrian jaio da, eta bertan kokatu ondoren, bertan zehaztu du erresidentzia, eta inkesten arabera bertan geratzea du helburua. Hauetatik herena nazionalizatuta dago.
2. Edo bertan jaio da, immigratzaileen seme-alabak dira, guztiz gazteak, eta nazionalitate atzerritarra dute.

1. taula. Biztanleria banaketa EAEn nazionalitatearen eta jaioterriaren arabera, 2020, kopuru absolutuak eta erlatiboak

Biztanleriaren banaketa EAEn	Kopurua	%
Bertakoak eta espainiar nazionalitatea	1.961.091	88,3
Bertakoak, bertan jaioak eta atzerritar nazionalitatea	17.689	0,8
Atzerrian jaioa, espainiar nazionalitatea eskuratu dutenak (nazionalizatuak)	79.161	3,6
Atzerrian jaioa, oraindik atzerritar izaten jarraitzen dutenak	162.563	7,3
EAeko biztanleria	2.220.504	100
Espainiar nazionalitatea dutenak (bertakoak + nazionalizatuak)	2.040.252	91,9
Atzerritar nazionalitatea (atzerrian jaioak eta bertan jaioak)	180.252	8,1
Atzerrian nahiz bertan jaioa, atzerritar nazionalitatea dutenak = [2] + [3] + [4]	259.413	11,7

Immigrazioa, aniztasuna eta hizkuntzen eremua kudeatu egin behar da, euskararen zentraltasuna kontuan hartuta, baina posizio zentral hori mantentzeko dau den zailtasun ugarien kontzientziarekin. Edonola ere, immigrazioa seriozki hartzeko momentu atzeraezina da hau.

Immigrazioaren kudeaketan aurrean oro har bi bide daude: 1) gestio publiko liberala egitea (*laissez faire, laissez passer*) eta prozesuak berez garatu daitezela erabakitzea; edo 2) nolabaiteko gestio publiko sozialdemokrata hautatzea, prozesuak instituzionalki bideratuz. Besteak beste, euskarari eta immigrazioari dagozkien arloetan badirudi gestio liberala ez dela aproposena.

Liberaliki tratatzea bat-bateko neurriak (ez) hartuta, gizarte ondorioekin axolagabea izatea da: ikasleak ahal den moduan zentroka banatu, *white flying*¹ edo eskola segregazioa permititu gizarteak halaxe nahi duelako, immigrazioari ezarriak dau den bide estandarizatuak eskaini eta hauetara egokitzea behartu, eskola-porrota- ren gainean utzikieriaz jokatu, ibilbide akademiko neurtuak ez eskaini, etab.

¹ "Azal zuriek" edo bertakook immigrazio- kontzentrazioetatik alde egitea.

Modu sozialdemokratak —edo soilik erantzukizunaren etikan oinarritzeak— kontrakoa eskatzen du, eta neurri bideratzaile batzuk aurreikustea eta aplikatzea.

Aurrekoa laburtuta, immigrazioa bertan dago, aurrerantzean ere egon egingo da, eta instituzionalitate indartsu eta bideratua behar da gurea bezalako testuinguruetan erronka ezberdinak daudelako jokoan: etorkinen integrazio ziurtatua edo ahula, lan-mundutik datozen berri txarrak —enplegu ahul batekin ezin liteke gizarte indartsurik eraiki —, hezkuntzaren berraristokrazizazioa eta goranzko mugikortasunaren ahultzea, enpleguak eskainiko ez dituen errotzeetan hezkuntzak ez laguntzea, eta kontu hauen guztien erdian euskararen zeharkakotasun itzela.

Beste bi edo hiru datu: azken urteotan EAEra 20.000 pertsona inguru etortzen ari da urtero. Gainera, bertan jaiotzen direnak gehitu behar dira. Iaz, pandemiari ezean, 25.000 pertsona inguru helduko zen. Adibidez, iazko urtarril eta otsailean 5.000 heldu ziren. Gero, dena gelditu zen. Horrelako kopuruen etorrerak argi erakusten du bertan dauden premiak asetzeko —zaintza eta erresidentzietan gertatutakoa ikustea besterik ez dago— immigrazioak etortzen jarraituko duela.

Immigrazioaren errealitatea neurri handi batean autokudeatu egiten da: etorriak ez dira sekula kontrol bakoak izaten, beti bere premien arabera finkatzen ditu hartzaileak,² hala kopuruan nola jatorrien osieran. Beti, bertan bizi den norbaitek deitzen du etorri gura duen norbait, eta halaxe hasten da katea. Kudeaketa sozial horrek semaforo baten antza du eta seinaleak bidaltzen ditu. Berdea, etortzeko, lan-baldintza onak daudelako. Gorria, migrazio-fluxua gelditzeko, egoera ekonomikoak bermerik eskaintzen ez duelako. Anbar kolorekoa, egoera argi ez dagoenean eta arriskuak hartzen direnean baina neurtuak.

Gestio sozial horrek neurri batean ez luke halabeharrez eskatuko ekimen publiko-politikoak, eta hala izan da urte eta mendeetan. Migratzaileek euren toki sozialak bilatu dituzte eta euren sorterrikoekin batera ahal izan duten erako egunerokotasuna eraiki dute. Baina prozesu horren guztiaren bermea lan-mundutik zetorren segurtasunean zetzan. Gogor eginda etorkizuna irabazten da, seme-alabentzako baldintza egokiagoak sortzen dira eta hurrengo belaunaldiek pobrezia/eskasia intergenerazionala apurtuko dutenaren itxaropenarekin ekiten diote. Eta hala gertatu izan da, eta lortu ere bai, neurri handi batean. Horixe da euskaldunek emigratu dutenean egin dutena, eta hori bera da gurerako etorritakoek egin dutena. Belaunaldi batek, pare batek edo hiruk lortu du horrela izatea.

² AEBn artzainak behar ziren eta halakoxe premia betetzera joan ziren guretik. Ez zituzten ingeniariak eskatu eta, eskatuta ere, gure lurraldean ez zeuden.

Egoera aldatu egin da zeharo. Ez ikusiarena egin gabe, Euskal Herriko aginteak adi egon beharko luke eta neurriko erantzuna eman. Bestela, euskal gizartea bera eta euskara izango dira galtzaileak. Bat, programak ondo egin ezean, porrota areagotu egingo delako eta, bi, hizkuntza-lorpenik etorriko ez delako.

Errealitate soziolinguistikoa eta immigrazioa adinaren arabera

Kudeaketa honetan, errealitate soziolinguistikoa abiapuntu izanik, beharrezkoak dira hausnarketa ugari, froga gehiago eta hezkuntza-esperimentazioa.

Hezkuntza-hizkuntza (euskara) joko-zelai honetan datu bat eskaintzea guztiz beharrezkoa da: kasurik onenean hezkuntza sistematik EAEn ezarri den immigrazio guztiaren % 15 baino ez da pasatuko (2. taula). Zati handi bat, gainera, faseren batean bakarrik sartuko da, eta, oro har, bertakoentzat ezarriak dauden ibilbide estandarizatuak berrikuspen nabarmena behar dute immigrazioaren kasuan. Goazen datuetara:

2. taula. Atzerri biztanleria nazionalitatearen, jaioterriaren eta adinaren arabera, 2020. Kopuru absolutuak

	Bertan jaioak / Atzerritarrak	Atzerrian jaioak / Nazionalizatuak	Atzerrian jaioak / Atzerritarrak	Guztira
0-5	9.844	1.065	3.118	14.027
6-15	6.264	4.349	9.756	20.369
16-17	236	1.941	3.290	5.467
18-24	276	9.107	19.071	28.454
25-44	634	27.974	88.447	117.055
45-64	277	28.232	33.950	62.459
65-74	71	4.173	3.593	7.837
75...	87	2.320	1.338	3.745
	17.689	79.161	162.563	259.413

Derrigorrezko hezkuntzarekin gehienez 35.000 ikasle potentzialek izango dute harremana, 0-15 urte tartean daudenek, eta batxilergorako, beste 5.500 inguruk. Era berean, esan liteke, 18-24 urte tartean dauden artean ere, zenbaitzuk dagoeneko unibertsitate edo lan-heziketako ikasketetan egon daitezkeela, baina esandakoaren haritik, goitik jota oro har immigratzaileen % 15ek harremana du hezkuntza sistemarekin, eta gutxiagok euskararekin. Eta gerta liteke euskararen eta immigrazioaren artean talka-egoera nabarmenak gertatzea, euskara ikaste-prozesuan traba gisa hautematen bada.

Nortzuk dute hezkuntza sistemarekin harreman arrunta? Soilik bertan jaio izan direnek, bertako gainerako ikasleen moduko ibilbide akademikoa egin dezaketenek. Ikus ditzagun immigrazioaren azpikolektibo honen zenbait ezaugarri (3. taula):

1. Derrigorrezko eskolatze-adinean 16.344 ikasle potentzial leudeke, hau da, 18 urte baino gutxiago dutenak, eta kolektibo osoaren % 92,4 da.
2. Zehazki, adin egitura honako hau da:


3. taula. Bertan jaio eta atzerritar direnak adinaren arabera, 2020. Kopuru absolutuak eta erlatiboak

Adina	Bertan jaioak / Atzerritarrak	%
0-5	9.844	55,7
6-15	6.264	35,4
16-17	236	1,3
0-17	16.344	92,4
18-24	276	1,6
25-44	634	3,6
45-64	277	1,6
65-74	71	0,4
75...	87	0,5
Guztira	17.689	100

- a. Jatorriei dagokienez, % 42 afrikarrak dira (magrebtarrak —% 28— eta Afrikako gainerako lurraldeetakoak —% 14—), errumaniarrak —% 17 —, asiarrak —% 13— eta amerikarrak —% 13—. Hau da, nazionalitatea eskuratzea oso zaila duten herrialdeetakoak, edo oraintsu heldu berri direnak Ameriketatik edo nazionalitatea behar ez duten errumaniar komunitarioak.
- b. Oro har, baliabide gutxien, zaurgarritasun gehien duten neska-mutikoak dira azpikolektibo honetan ditugun ikasle atzerritarrak.
- c. Horrek guztiak ez du aurretik ezer epaitu nahi, ibilbide akademikoek eskola-proiektu eta borondatetik ere asko dute eta, baina kontuan hartzekoa da egoera hau, kapital sozial eta kultural gutxien duten jatorrietakoak direlako.

Edonola ere, 18 urtetik beherako ikasleria potentzial osoaren jatorriari erreparatzen badiogu, ondoko grafikoan aurkitu dezakegu distribuzioa. Hego Amerikakoek eta magrebtarrek pisu berdintsua dute, bakoitzak ikasleriaren % 20 duelarik, eta gero elkarren antzekoak diren beste hiru jatorri ditugu (EB 28 edo Errumania, Erdialdeko Amerika eta gainerako Afrika), bakoitzak % 10 inguruko ikasle kopuruaren ekarpenarekin, eta hortik aurrera ehunekoak txikituz doaz: EB 25, Txina, gainerako Europa, Pakistan, gainerako Asia eta Ipar Amerika. Guztien artean, 40.000 ikasle potentzial dakartzate.

1. **grafikoa.** Ikasle atzeritar potentzialak (0-17 urte tartekoak) nazionalitatearen arabera. Bertan eta atzerrian jaioak, 2020. Kopuru erlatiboak



Esan den moduan, batzuek eskolarekin edo hezkuntza-sistemearekin intentsitate gutxiagoko harremana izango dute, batez ere familia berrelkartzeen ondorioz eskolaratu direnean, adinean gora etorrira. Epez kanpoko matrikulazioa oso ohikoa da, *gap akademikoa* ere bai, immigrazioaren denborak ez baitira denbora administratiboak.


Euskaratzeko tresnarik egokiena eskola da, baina ikusi dugun moduan materialki oso mugatua da, etorkin-kopuru eskas batera heltzen delako, eta, beraz, testuinguru soziolinguistikora jo beharra dugu ea zelako laguntza eskaintzen duen ikus-teko. Horretarako, euskaldunak eskualdeka zelan banatzen diren ikusiko dugu (2. grafikoa).

Grafiko horrek erakusten du euskaldun kopururik handiena Bilbon kokatzen dela (97.300). Gero, Donostia (81.300) eta Gasteiz (64.300) datoz. Donostiak inguruan beste 75.100 hiztuneko udalerriak ditu —Donostialdea—. Bilbok inguru-

tik hitzunen laguntza gutxiago jasotzen du, eta gainera hauek sakabanatua daude. Gasteizek, uharte baten gisara, ez du inguruko hizkuntza-ekarpenik. Bilbori hitzun kopuruan inguruak lagundu diezaioke; eta Donostiak gizarte-dentsitatea gaineratzen dio.

Euskararentzat, beraz, Gipuzkoak ekosistema lagungarria eskaintzen du, eta orobat euskarak eta immigrazioaren errealitate eta egunerokotasunak elkar aurkitzeko parada. Gainera, topaketa horren aukera euskararen presentzia sozialak ematen du, ez horrenbeste immigrazioarenak. "Desberdintasun indizea" delakoaren arabera, eskualdeka, immigrazioa euskara baino modu homogeenagoan bananduta dago. Euskarak lurraldeka gorabehera nabarmenak dituen bitartean, immigrazioak % 11 eta % 15 tarteko pisu erlatiboa du ia lurralde osoan. Gainera, euskaldunen presentziaz gain, ia-euskaldunena ere ekosistema honetan geruza lagungarria izan liteke.

2. **grafikoa.** Euskaldunen banaketa eskualdeka. Bi urtetik gorakoak. 2016, kopuru absolutuak




4. taula. Immigrazioaren (2020) eta euskaldunen (2016) eskualdekako banaketa eta ondoriozko intentsitate-indizeak. Kopuru erlatiboak

	Euskaldunak		Immigrazioa		Euskaldunak		Immigrazioa	
	%	Kokapena	%	Kokapena	Dentsitatea		Dentsitatea	
Bilbo	29,0	10,9	12,8	18,7	315	6,5	239	21,0
Donostia	46,0	9,1	11,8	9,3	417	8,6	110	9,6
Donostialdea	53,2	8,4	9,7	5,8	446	9,2	56	4,9
Gasteiz	27,3	7,2	14,4	14,8	196	4,0	213	18,7
Urola	78,0	6,4	9,4	3,0	498	10,3	28	2,5
BH. Ezkerraldea	25,6	6,1	8,9	8,2	157	3,2	73	6,4
Durango	52,2	5,6	10,0	4,2	292	6,0	42	3,7
BH. Eskualdea	33,9	5,2	10,1	6,0	175	3,6	61	5,3
Goierri	63,4	4,6	11,9	3,4	295	6,1	40	3,5
Debagoiena	66,3	4,5	8,9	3,2	300	6,2	28	2,5
Tolosaldea	73,8	3,9	9,8	2,0	288	5,9	20	1,7
Bidasoaldea	45,8	3,8	13,6	4,5	176	3,6	61	5,4
Debarrena	61,8	3,7	11,7	2,7	229	4,7	32	2,8
Gernika-Bermeo	73,6	3,7	10,2	2,0	269	5,6	20	1,8
BH. Nerbioi garaia	35,2	3,6	6,9	2,7	128	2,6	19	1,6
Mungia Plentzia	53,2	3,3	8,4	2,1	174	3,6	18	1,5
Markina-Ondarroa	80,8	2,3	10,7	1,2	185	3,8	13	1,1
Arratia-Nervión	58,4	1,5	8,7	0,9	88	1,8	8	0,7
Arabako kantaurialdea	34,0	1,3	7,6	1,1	43	0,9	8	0,7
BH. Meatzaldea	29,7	1,3	4,5	0,7	37	0,8	3	0,3
BH. Txorierri	49,8	1,1	7,9	0,7	57	1,2	6	0,5
Enkarterriak	28,7	1,0	8,7	1,2	29	0,6	10	0,9
Lautadako gainerakoa	33,6	0,6	14,0	1,3	21	0,4	18	1,6
Gorbeialdea	46,6	0,4	7,6	0,3	21	0,4	2	0,2
Arabako Errioxa	22,6	0,3	13,5	0,6	6	0,1	8	0,7
Arabako Haranak	19,8	0,1	9,9	0,2	3	0,1	2	0,2
Arabako mendialdea	25,1	0,1	7,6	0,1	2	0,0	1	0,1
CAE	42,2	100	11,8	100	4.847	100	1.140	100

Euskaldunen eta immigrazioaren dentsitate-indizea kalkulatu dugu, eskualde bakoitzeko kokapena eta ehunekoa biderkatuz eta 100 oinarrira laburtuz, eta hau da lortu dugun grafikoa euskararen eta immigrazioaren dentsitateak non kokatzen diren hobeto ikusteko eta hizkuntza-kontaktu aukera zein izan litekeen arakatzeko (4. taula).

3. **grafikoa.** Immigrazioaren eta euskaldunen eskualdeko banaketa eta bakoitzaren intentsitate-indizea



Euskararen ikuspegitik intentsitaterik handiena Urola eskualdearena da. Immigrazioarenetik, Bilbo eta Gasteizena. Grafikoak (3. grafikoa) erakusten duen moduan, euskararen edo immigrazioaren presentzia nabarmena dagoenean, batarrenak ez du lortzen bestearenak modu bertsuan laguntzea. Kontaktuaren probabilitatea azken finean euskararen presentziaren mende dago. Euskarak presentzia apala badu, orduan ez da hizkuntz-kontakturik gertatuko. Kontaktuak ez ditu aparteko egoerak eskatzen, egunerokoak edo errutinan oinarritutakoak baino.

Kontaktu sozialen faltan, instituzioek indartsu sartu behar dute. Hezkuntza sistemak, ikusi dugun moduan, eragin mugatua du. Sistema honek bertako biztanlerian eragin nabarmenegia izan ez badu azken 40 urteetan, immigrazio atzeritarraren kasuan antzeko indarra izango du.³ Agian pixka bat anibalentea izango da: alde batetik, eragin handiagoa egun D eredua nahiko unibertsalizatua dagoelako, baina, bestetik, txikiagoa, ikasle batzuek ez baitute ibillbide guztia sisteman egingo.

Eskolak ezinezkoa badu, eta testuinguruak lagundu ezean, instituzio politikoek dute, eta batez ere udalek, zeresan handia, baina hemen ere ahulezia nabarmenak sumatuko ditugu. Alde batetik, oso gutxi dira immigrazio teknikariak dituzten

3 Edonola ere, esan beharra dago, intentsitate ezberdinekin, azken 30 urteotako ikasle ia gehienek euskararekin nolabaiteko harremana izan dutela.


udalak, nahiz eta udal askotan beste arlo batzuetako teknikariek —euskara arlokoek, gizarte-zerbitzukoek edo kulturakoek...— lan ikaragarria egin duten arlo honetan.

Bestalde, ideologikoki, aukera inplizito baten aurrean aurkitu izan dira askotan immigrazio kudeatzaileak, lehentasuna zeri eman behar zioten jakin gabe, immigratzaileen egoera estruktural baztertuari ala horiek bertan kulturalki murgilarazteari. Ez dira errazak dilema hauek, eta, gainera, hizkuntza-lehentasunen aurrean zein hobetsi, euskara ala gaztelania? Zenbait udaletan egin izan diren hizkuntza-bikoteetan arazo hori oso nabarmena izan da. Askotan, lehentasuna, komunikazioaren printzipioaren izenean, gaztelaniak hartu du.

Udal teknikaria duten herrien egitura linguistikora jauzi bat eginez gero, datu hauek ditugu: euskaldunak % 34 dira, ia euskaldunak % 19, eta erdaldunak % 42. EAEko batezbestekoa baino txikiagoa oro har. Grafikoan (4. grafiko) agertzen diren guztiek ez dute teknikaririk, batzuetan eskualdekoak direlako eta, horregatik, Busturialdeaz gain, Bermeo edo Gernika-Lumo aipatzen ditugu. Horrez gain, teknikarien figura ere oso modu ezberdinetan erregulatua dago, eta batzuetan udal teknikari bat da edo eskualde batekoa da. Teknikarien kostuen kasuan % 70 Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du eta % 30 udalak (TEC Laguntzak). Horrez gain, erakunde eta udaletarako dirulaguntza lerro berezia dago (LOC Laguntzak).


Udalerri edo eskualde horien artean, Gipuzkoan, Errenteria, Pasaia, Donostia, Eibar, Hernani eta Zarautz daude. Horrez gain, Ordizia eta Tolosaldea beste modalitate batean ari dira garatzen. Bizkaian, Barakaldo, Getxo, Bilbo eta Ermua daude. Horrez gain, Basauri eta Busturialdeko Partzuergoa dauzkagu.

4. grafikoa. Immigrazio udal-teknikaria duten udalerri edo/eta partzuergo-en euskara ezagutzaren egitura, 2016. Kopuru erlatiboak



Trakzioaren norabidea baldintzatzeko gaitasuna ezagutze aldera, udal hauetako euskararen eta immigrazioaren ezaugarri soziologikoen arabera hiru egoera ditugu (5. grafikoa). Euskara oso presente dagoenekoetan (% 60 baino gehiago) immigrazioa erakarri egingo du, praktikan arnasmune itxurako udalerri edo eskualdeetan gaudelako. Beste toki batzuetan, euskara % 40-60 ezagutzen dutenekoetan, trakzioa aldebikoa izan liteke. Durango izan ezik, gainerakoak Gipuzkoan dauden udalerriak dira. Eta euskararen ezagutza mugatua denean, immigrazioak euskara irentsi dezake. Kasu honetan, Gasteiz izan ezik, gainerakoak Bizkaian daude, eta aurrez Espainiako immigrazioa jaso zuten udalerri oso esanguratsuak edo esanguratsuenetarikoak dira.

5. **grafikoa.** Teknikaridun udal eta partzuergoetako euskaldunak (2016) eta leku horietako immigrazio-tasak (2020), eta balizko trakzio gaitasuna. Koprur erlatiboak.



Udal eta partzuergoetara jaitsiz, egin izan diren praktikekin bi mutur ditugu. Alde batetik, euskarari atentzio handia eskaini diotenak, beraien harrera-protokoloetan euskara erdigunean jarri izan dutenak eta batez ere arnagune itxura hartzen duten eremuetan kokatuta daudenak. Eremu horietan euskararen presentzia sozialak eta dentsitateak arreta berezia inposatu egiten duela esan liteke, Durkheim edo Bourdieuren soziologia oinarriak jarraituz. Gizartean hedatua eta askotan hautemanezina den dentsitate sozialak agindu egiten du euskara erdigunean jartzea. Emaitzak ez dira nahi edo xedeen araberakoak izan, baina ez dira gehiegi urrundu ere.

Beste muturrean, euskara zenbait ekimen sakabanatutara mugatzen dutenak, kasurik onenean. Hor kasuistika ugaria da: zenbait udaletan ez da euskararen aldeko hauturik egin, beste zenbaitetan euskara zerbitzuak arduratu dira haietaz, beste zenbaitetan gizarte-zerbitzuetako eta euskara- eta immigrazio-teknikarien artean ez da zeharkakotasunik eraiki, bai beste batzuetan, etab.

Badago tartean hirugarren jarrera bat: teknikari jakin batzuen jarduna haien arduen gainetik egon denena. Kasu hori oso interesgarria da, baina zoritxarrez ez du eredurik sortu edo pertsona horien baldintzapekoa da. Teknikaria desagertuz gero, adio ereduari ere.

Azken adibide hau nahikoa da egoera orokorraren ahuleziaren tamaina ikusteko. Hala ere, asko dira garatutako ekimenak, gehienak nahiko ondo hausnartuak, baina, oro har, bi arazo dituzte: 1) egitura instituzional sendo baten faltan garatu dira, eta 2) ekimenen iraupena. Jakina, ekimen hauek guztiak eskolaren lagungarriak dira edo osagarriak, eta immigrazio guztiari zuzenduak. Besteak beste, honako hauek aipatuko ditugu:

- ✓ "Ongi etorri eskolara" programan harrera-plana (udal edo eskolakoa), hizkuntz-errefortzua, kulturarteko guneen sorrera eta beste eragile sozial batzuk gehitzea lortzen da; besteak beste, ikasleriaren gurasoak. Honen ondorioz, familia-laguna programa ere sortzen da, boluntarioen bidez etorkinei ingurua ezagutarazteko (aukerak, zerbitzuak...) konfiantza eta laguntza-sareak eskainiz. Hainbat eskolatan ezarri da eta ia 60 erakundek parte hartu dute.
- ✓ Migratzaile helduentzako euskara ikastaroak, AISA programaren aldaeren bidez.
- ✓ Lanbideetara egokitutako euskara ikastaroak.
- ✓ Helduen alfabetatze-zentroak.
- ✓ Hizkuntza bikoteak, hainbat izenekin.
- ✓ Euskara eta aisialdia uztartzen dituzten programa ugari: "Ongi etorri gazte!", "Harrera on!", "Kuadrillategi!", "APPaGazte!" Kulturarteko gune ugari sortu da, biztanleria osoari, emakumeei eta beste talde batzuei zuzenduak.

- ✓ Hamaika kulturarteko gune sortu da, biztanleria osoari, emakumeei eta beste talde batzuei zuzenduak.

Sintesi modura, programa gehienek xedeak sailkatuta, ezaugarri batzuk nabarmendu behar dira: ikasle etorri berrien euskara errefortzua, ikasle etorri berrientzako aisialdi ekimenak euskara indartzeko eta gizarte integrazioa sendotzeko, helduentzako euskara ikastaroak, helduentzako euskara modu informalagoan ikasteko ekimenak, eta euskal eta atzerriar biztanleriaren hizkuntza- eta kultur-trukeak.

Ekimen gehienak euskararen oinarri sendoagoa izan duten udalerrietan garatu dira, baina baita euskara dentsitate eskasagokoetan ere. Hau da, erakunde gehienetan ekimen-katalogoa oso antzekoa da, mimesi egoera batean oinarrituta, baina gero aukera linguistikoak eman zaizkie udalerri batzuei, horiek beste udalerri batzuek baino gehiago garatzeko. Udalek ez dute hezkuntza eremuan eskuduntzarik, beraz gizarte- eta kultura-elkarteak erabili dituzte programa osagarrien bidez hezkuntza formala osatzeko. Askotan, programa horien atzean Eusko Jaurlaritza edo beste maila instituzional politiko bateko bultzada eta mezenasgoa ere badute, zuzenean edo zeharka.

Ekimenen itu-publikoa atzerriko gazteria da, besteak beste, helduengana heltzea askoz zailagoa delako. Helduek euskarara helduko dira, soilik egoera linguistikoak agintzen duelako edo seme-alabak eskola-adinean dituztelako. Familia horien lehen helburua egoera sozioekonomikoa egonkortzea da, gero etortzen da hizkuntzarekiko kezka, helduengan behintzat. Gazte eta eskola-umeen artean, kokapen- eremuak edo udalerriak baldintzatuko du hasierako euskararekiko harremana.

Immigratzaile helduen eta euskararen arteko harremanean faktore situazional oso zailak daude: 1) bizi diren testuinguruetan euskarak dentsitate eskasa izatea, 2) merkatu/enplegu eremuetan gaztelania euskara baino “ekonomikoagoa” izatea, 3) gaztelaniaren premia horrek euskararekiko kontaktua guztiz eragozte, 4) prestakuntza eta kualifikazioa dakarten pertsonekin aurreko egoera sarriago aurkitzen denez, harremana okertzea euskara euren ibilbide profesionalerako traba gisa ikusten badute, eta 5) migrazio proiektua zehaztugabea izatea eta bertan geratzeko asmorik ez dutela esanez euskara baztertzea.

Egoera horrekin konparatuta, gazteenak errazagoa dirudi, baina honetan ere hainbat salbuespen eta ñabardura sartzea gomendagarria da, gazteak ere askotari-koak daudelako: ez da berdin EAEn jaiotzea edo familia berrelkartze baten ondorioz heltzea, *curriculum gap* handi batekin hezkuntz-sistemara sartzea, edo ibilbide segregatuak eta aldebiko zubi eskasekin biografia garatzea.

Zailtasunak zailtasun, gazteriaren eskolatzea unibertsala denez, egoera hauek konpontzeko eta interakzioa suspertu aldera gune interkulturalak sustatzen dituzten ekimenak jarri dituzte martxan udalek.

Azkenik, udal askotan "Harrera-planak" deituriko mekanismoak berpizten ari dira. Gehienetan, euskararen garrantzia aipatzen da, eta, bide batez, immigratzai-leek dakartzaten hizkuntzen inguruko informazioa biltzen da, abegia erakutsi, eta euskara ikasteko dauden errekurtsoak aipatu eta katalogoa eskaintzen zaie. Ezar-penerako behar dituzten baliabideen inguruan dauden zerbitzuen informazioa, elkarte sozial eta kulturalen katalogoa eta eremu soziokulturalak artikulatzeko eredua ere eskaintzen da, eremu honen helburu garrantzizkoena kohesioa, kultu-rartekotasuna eta bizikidetzaren bermatzea baita.

Etorkizunari begira

Etorkizunari begira, badago abiapuntu bat eta zenbait erronka hainbat planotan: hezkuntzan, instituzioetan eta gizartean.

1. Immigrazioa egitate estrukturala da, eta halaxe jarraituko du. Haren aurrean badaude zenbait trataera alternatibo:
 - a. **Ezarpena berez gestionatuko dela uste izatea.** Enplegu eremua emankorra bada, hala gertatuko da, eta agian ez da beharrezkoa izango esku-hartze instituzional eta politikoa. Enplegua sortu, immigratzaileak instalatu, seme-alabak ikasten hasiko dira eta goranzko mugikortasunak egingo du gainerakoa. Hau izan da nazioarteko eredu arrunta.

- b. **Instituzionalki ere gestionatu litekeela uste izatea.** Aurrekoaz gain, instituzioen aldetik neurriak jarri beharko lirateke prozesu horren efektu negatiboak aldatze aldera, eta egoera zuzentzeko.
 - c. **Zer-nolako partaidetza instituzionala?** Tokian tokikoa ala amankomuna? Badirudi amankomuna izatea gomendagarriagoa dela, eta ahal den lerratuena helburu bateratu batzuen inguruan. Kasu horretan, gobernuak, aldundiek eta udalek helburu zehaztuak behar dituzte, eta bakoitzak bere eremuan lankidetzan parte hartu behar du.
2. Hezkuntzari dagokionez badirudi bi kontu bereiz daitezkeela: hezkuntza eta prestakuntza bera, eta euskararen zeregina arlo honetan. Estatua den herrialdea bagina, hainbat galdera egitea ez zen beharrezkoa izango, baina ez garenez, planteatu egin beharko dira. Beraz, prestakuntzari dagokionez eta tartean euskara eta immigratzaileak daudelarik, panorama zaildu egiten da:
- a. Immigratzaileak eta oro har sektore subalterno guztiak segregazio prozesuen logikapean utz litezke, eta onartu gizarte berean dauden dinamikek bueltatuko dizkiguten emaitzak. Ikuspegi liberala azken muturreraino eraman. Egun hezkuntzaren inguruan egiten ari diren ikerketetan bi ondorio nabarmentzen dira: gizarteak albo batera utzi du meritokrazia, berraristokratizazioari bati eutsi dio eta belaunaldien artean pobretzea transmititzen ari da, eta joera hori handituz doa.
 - b. Eskola-kontzentrazioa egitate nahiko saihetsezina da, baina segregazioa ez. Kontzentrazioak gutxienez bi determinante ditu: 1) kokapenaren arabera osoa dago eskoletan, eta 2) kontzentra-

zio hori areagotu egiten da “zuriek hegaz egiten” badute immigratzaileekin gela barruan ez kointziditzeko.

- c. Segregazioari aurre egiteko modu eraginkorrak bilatu behar dira, are gehiago gurea bezalako errealitate batean. Alde batetik, gizarteak ez du zertan lagundu, arrazoi ezberdinak direla medio joera kontzentratzaile eta segregatzailea baitu. Hezkuntzaren bidez, bere baliabideen arabera, familiak seme-alaben etorkizuna erabakitzen ari dira, haien bidaide nortzuk aukeratu gura dituen erabakiz. Planifikazio horretan agian ez da etorkinen presentzia nahi.
 - d. Beraz, instituzioek eskola kontzentrazioetan hezkuntz-proiektu sendoak garatuz erantzun behar dute. Ezin dute utzi zentro batzuetan, baztertuak izateaz gainera, euskarak ere porrot egin dezan, ezta euskara porrotaren kausa izatea ere. Azken ikerketek D ereduaren ahultzea erakutsi dute, eta euskararentzat ere ez litzateke egokia izango zentro arrakastatsuak euskara sustatzen dutenak soilik izatea, eta alderantziz. Egoera horrek euskara etsai bilakatuko luke.
 - e. Beraz, hezkuntzan, ikerkuntza asko eta ibilbide ezberdinak ezarri behar dira premia ezberdinei erantzuteko; agian, batzuetan, euskara ezinbesteko izatea eskatu barik.
 - f. Hau guztia, ikasleria kopurua jaisten ari den momentu batean egin behar da, eta hezkuntza-sareen artean borroka ezkutu/nabariarekin.
3. Tokiko gune eta erakundeetatik, adostu behar den plangintza orokorra lagundu behar da. Ez da sistema perfekturik jarraitu ez amestu behar, bide on bat bilatu baino. Ahal den inklusiboena.

- a. Orain arte, lan ikaragarria egin da, eta eraginkortasuna, neurri batean, jarri diren ekimenekiko autonomia da, ekimenak baino testuinguruak agintzen du eta. Neurrien eraginkortasuna euskarak intentsitate soziala duen tokietan ernalduko da.
- b. Immigrazioak ez dizkio arazo berriak sortzen euskarari, zituenak intentsifikatu eta agian argiago ikus ditzagun laguntzen du. Neurririk hartu ezean, eta kopuruak hazi ahala, arazo berriak ere sor daitezke.
- c. Udaletan, gainerako eremu instituzionaletan bezalaxe, immigrazioak, haren integrazioak eta euskarak zehar-lerro bat osatu behar dute. Aspalditik dakigu euskara ez dela beharrezkoa gizarte integrazioarako, beraz, abiapuntu horretatik abiatuta, ahal den politika onenak ezarri behar dira.
- d. Askotan aipatzen da euskara kohesio hizkuntza dela, baina hori erretorika baino ez da. Euskarari errelatoa beste nonbaitetik bilatu beharko zaio.
- e. Egin den guztiaren sistematizatzeko egokia beharko genuke, adanismoan ez erortzeko eta egin izan diren ekimen onuragarriak berreskuratzeke. Etorkizunekoak ez dira martxan ipini direnetatik gehiegi urrunduko. Dena ez dago asmatua, baina bai zati handia, eta aspaldiko ekimenei ondo letorkieke baldintza hobea goekin eta tresneria instituzional sendoarekin laguntzea.

Hartzen den bidea hartzen dela, azken finean hauek dira baldintza ezinbestekoak: instituzioak, helburuak, gizarte partaidetza eta lankidetzak, eta orotan lehena immigrazioaren egitatea onartzea.

ANHITZAK

Gasteizko hizkuntza-aniztasuna

2020ko topaketa

VADILLO, Álex - URZELAI, Elena

Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua

Artikulu honetan Gasteizen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren testuinguruan aniztasuna lantzeko jorratu diren ekintzen berri eman nahi izan dugu eta, bereziki, Udaleko Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuarekin batera, eta Topagunearekin lankidetzan, antolatu dugun ANHITZAK topaketaren berri. Ekintza horrek, bere sinpletasunean, aniztasunaren inguruan defendatzen dugun ikuspegia ondo bildu duela uste dugu.

1. Zeharkakotasuna

XXI. mendean esku artean ditugun arazorik gehienak arazo konplexuak dira. Ertz eta korapilo ugari dituzte, eta Administrazioari kosta egiten zaio halakoxeei irtenbidea ematea. Administrazioa, oraindik orain, ez dago konplexutasunerako ondo prestatua. Kontrako bidea da, ordea, bere lan-estilo klasikoa: arazoa sinplifikatu egin, harik eta esku artean ditugun tresnekin arazo horri aurre egiteko modua izan arte. Logika sektorialak aplikatzen ditu, dimentsio bakarra duten arazoei erantzuteko.

Immigrazioarekin eta aniztasunaren gestioarekin zerikusirik duten arazoak, berez, horrelakoak dira, izatez eta egitez. Arazo «gaiztoak» edo «korapilatsuak» esaten diete ingelesez: «*wicked problem*». Izan ere:

- Normalean ez dugu arazoa ondo mugatzeko behar den informazio guztia, edo ditugun datuak nahasiak eta kontraesankorrak dira.
- Tartean dauden eragileak asko eta askotarikoak dira. Interes komunak dituzte batzuetan, baina kontrajarriak ere bai besteetan.
- Arazoa ezin da bakartu; multzo baten parte da. Irtenbide bakoitzak arazo berriak dakartza bere baitan. Arazoak askotarikoak dira, eta denak elkarri lotuta daude.
- Zaila da arazo horiei guztiei batera ekitea. Ez ditugun baliabideak beharko genituzke horretarako.

Zeharkakotasuna bada, geure ustez, egoera horri erantzuteko bide bat. Erakunde osoaren engaiamendua ziurtatzen duen kontzeptua da. Erakundearen atal soil batek helburuak bere gain hartzerik ez daukanean, erakunde osoak ekiten dio, eta horretarako estrategiak, tresnak eta bitartekoak antolatzen ditu.

Kontzeptuak, beraz, inplikazio eta aukera interesgarriak ditu, eta horrelaxe jaso genuen Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren testuan:

- Zeharkakotasunak aukerak zabaltu egiten ditu, sail eta zerbitzu guztiek hizkuntza irizpide egokiak barneratzeko.
- Era berean, zeharkakotasunak hizkuntza-normalkuntza sail guztion eginkizuna dela barneratzeko aukera dakar, eta jardun osoari dagokiola ohartzeko, eta ez kanpo komunikazioei soilik.
- Zeharkakotasunak lankidetzarako aukerak ugaritu egiten ditu, eta ekintza eta programa batzuk era bateratuan eta partekatuan lantzeko aukerak eman.

Baina, hitz *fetitxea* ere izan daiteke, benetan operatibizatzen ez bada, hau da, proiektu eta lan egiteko modu jakinetan gauzatzen ez bada.

2. Aniztasunaren lanketa hainbat zerbitzutan

Aukera hau baliatu nahi izan dugu, era berean, atzera begira jartzeko eta egin-dako lanari buruzko gogoeta egiteko, aniztasunaren gaiak zein bilakaera izan duen 2003. urtetik hona Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuan, alegia. Adierazgarria

da gai horren bilakabidea, hau da, *nola*, *norekin* eta *zertarako* hasi ginen lanean eta gaur egun *nola*, *norekin* eta *zertarako* ari garen, ordea.

2.1. Aniztasuna Euskara Zerbitzuan

Euskara Zerbitzuak bi ildo izan ditu aniztasunari dagokionez:

Informazioa eta sentsibilizazioa, atzerriko jatorria duten herritarrei begira.

Euskara ikasteko eta hizkuntza aniztasuna lantzeko baliabideak.

Lehenengo ildo horri dagokionez, hortxe kokatu behar dugu harrera linguistikoarekin izan dugun kezka. Izan ere, harrera plan baten beharra aldarrikatu izan dugu, beti ere kontzienteak ginela, langintza horretan ezin ginela bakarrik aritu. Noiz edo behin, besteen gaitan ez sartzeko ere esan izan digute («Haur ola, zirola») edo, artez esan gabe ere, horrela pentsatu izan dute.

Zeharbidez hainbat ideia zabaldu nahi izan dugu:

- Etorkinak Euskara Zerbitzuaren xede-talde bat izan badira, geuri dagokigu euskarari buruzko informazioa ematea eta harrera definitzea.
- Gainera, aniztasuna onarrarazi ta ikusarazi nahi diegu. Euren beharrei duintasunez eta kalitatez erantzuteko baliabideak eskaini nahi dizkiegu, eta hori guztia diskurtso positibotik egin nahi dugu.
- Eleaniztasuna nahitanahiezko utopia dugu: geurea defendatu baina *beste guztiari* irekita gaudela egin defentza hori. Hizkuntzak kultura unibertsalerako sarbideak dira. Eleaniztasuna aberasgarria dugu.
- Gasteizko errealitatea eleanitza irudikatu behar dugu, eta euskara kohezio-hizkuntza izatea nahi dugu, identitate plurala helburu dugula.

Esan bezala, zeharbidez landu nahi izan dugu hau guztia. 2011n antolatu genuen komunikazio-kanpainan («Elebiduna naiz, aberatsa naiz»), esate baterako, arreta berezia jarri genuen, protagonistak Gasteizko jatorri askotako lagunak izan zitezen: Gasteizkoak, Aljeriakoak, Kolonbiakoak, Ingalaterrakoak... Elebidunak/eleanitzak ziren eta euskara ikasten ari ziren.

Baliabideei dagokienez, euskara ikasteko dirulaguntzak eskaini ditugu eta AISA programa antolatu izan dugu. Gainera, EUSKALTZALEEN TOPAGUNEarekin batera, bi programa antolatu ditugu, berariaz aniztasuna lantzeko helburu dutenak: AUZOKO eta LINGOLANG, biak ala biak aski ezagunak. ANHITZAK programak bide horretan sakontzeko asmoz sortu zen, baina horretaz aurrerago hitz egingo dugu.

AUZOKO programari buruzko xehetasunak ematea merezi du, geure ustez, ezau-garri oso interesgarriak dituelako eta neurri batean hirian egonkortu egin delako. Euskara, aniztasuna eta bizikidetza oinarri dituen programa da AUZOKO. Hiru helburu ditu:

Euskaratik urrun bizi direnak euskarara hurbiltzea.

Herritarrak gure herrietako hizkuntza-aniztasunaz jabetzea.

Hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jartzea, norberarena aintzat hartuta, euskara kohesio hizkuntza izan dadin.

Horretarako AUZOKO taldeak sortzen dira, eta bertan bi perfileko parte hartzaileak biltzen dira: «Auzotarrak» (euskaraz dakitenak) eta «Auzokideak» (euskaraz ez dakitenak). Taldekoak astean behin biltzen dira dinamizatzailer baten eskutik, elkar ezagutzeko, bakoitzaren kultura besteei erakusteko eta oinarri-oinarrizko kontu batzuk euskaraz ikasteko.

Egitasmoa Gasteizen 2016an sortu zen RAMÓN BAJO IKASTETXEko guraso elkartearen lankidetzaz eta Gasteizko Udalaren laguntzaz. Handik Gasteizko alde zaharrera zabaldu zen, eta orduz geroztik urtero sortzen da talde hori, nahiz eta gorabehera handiak izan.

Saiakerak egin dira dinamika hori beste auzo batzuetan zabaltzeko ere: Aranbizkarra auzoan (2016), Zabalgana auzoan (2016), Salburuan (2019)... Horietan taldeak sortu egin ziren baina, egonkortzera iritsi ez.

2020-2021 ikasturtean, esate baterako, 26 lagun ari da programan parte hartzen, gehienak emakumezkoak. Jatorriak honakoxeak dira: Euskal Herria (2), Ukraina (1), Kolonbia (1), Sahara (1), Rifeko Errepublikak (1), Bolivia (1), Frantzia (1), Brasil (1), Afganistan (1), Andaluzia (1), Venezuela (2), Ginea Konakry (1), El Salvador (2), Osetia (1), Bielorrusia (1), Maroko (6), Italia, (1), Georgia (2).

2.2. Aniztasuna gizartegintzan

AISA ikastaroak 2006an antolatzen hasi ginenean, Gizartegintza Saileko Oinarriko Gizarte Zerbitzuen laguntza izan genuen. Ikastaroen zabalpena haien bidez egin zen, egin ere, baita ikasleak eskuratu ere, gizarte-prestazioak izapidetzeko eta eskatzeko unean AISA ikastaroak, besteak beste, eskaintzen zizkielako, gizarteratzeko edo lanbideratzeko laguntzarik beretu nahi bazuten.

Garai hartan, gainera, etorkinei harrera egiten dien NORABIDE zerbitzuarekin lan-kidetzan beste hainbat AISA talde antolatu zen, baita kulturartekotasuna ardatz izan zuten udalekuak eratu ere.

2.3. Aniztasun zerbitzua

Gasteizko Udalean horren aurrekariak baziren ere, gaur egungo Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua 2015ean sortu zen. Gasteizko Bizikidetza eta Aniztasun Plana prestatzea izan zuen lehen eginkizunetako bat. Bertan, euskararen balioa, printzipio gidari gisa, komunitatea eraikitzeko erronkaren baitan jaso zuten. Helburuen artean, honakook:

Irakaskuntzari dagokionez, unibertsitate eskolako irakasle tituluduna izan zen 1986-1996 urteen artean, Zaragozako Unibertsitatean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan. 1996-2008 urteen artean NUPko Euskal Filologiako irakasle tituluduna izan zen, eta 2008tik aurrera katedraduna. Era berean, Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko buru izan zen bi aldiz (2002-2003 eta 2008-2010 urteen artean). Euskal Filologia eta Hizkuntzalaritzako doktorego eta master ikas-taroak eman ditu, orobat, EHUUn.

Nafarroako Unibertsitate Publikoan hurrengo karguak beteak da: Ikerketa Batzordeko kidea (1993-1997), UBIko Euskara ikasgaiaren arduradun irakaslea

(1992-1999), Giza eta Gizarte Zientzietako Fakultateko idazkaria (1996-1999) eta Hizkuntza Plangintzarako errektorearen ondokoa (2003-2005). Halaber, Hizkuntza Normalizatorako batzordekidea izan da bi aldiz.

Vianako Printzea Erakundearen *Fontes Linguae Vasconum*eko zuzendaria da, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina 2003an hil zenetik. Euskaltzaindiaren *Euskerako* (2009) idazketa kontseiluko kidea izateaz gain, beste hainbat aldizkaritako batzordekidea ere bada: NUPren *Huarte de San Juan. Filologia eta hizkuntzaren didaktika* (1995), EHUren ASJU (2001), Eusko Ikaskuntzaren *Oihenart* (2009) eta Udako Euskal Unibertsitatearen *Uztaro* (2010) aldizkarietakoa, hain zuzen ere.

Manuel Lekuona Saria 2020 jaso du Jose Ramon Etxebarriak

Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazleak Manuel Lekuona Saria 2020 jaso du. Epaimahaiak baloratu du gernikar horrek unibertsitateko ikerketa eta irakas-kuntzaren arloan euskararen normalizazioari egindako ekarpen garrantzitsua, komunitate zientifikoarentzat lexikografia ezartzea ahalbidetu baitu, komunikazio globalaren teknologia berrien laguntzaz.

Jose Ramon Etxebarria euskaltzain urgazlea da 2006tik aitzina. Ingeniaria, fisikari doktorea, irakaslea, euskaltzalea, idazlea, itzultzailea eta politikaria da. Zientzia eta teknologia gaiak euskaraz ezagutarazteko testuak egiteko lanean nabarmendu da.

1966an Bilboko Santutxu auzoan, helduen euskara irakasle ibili ondoren, ikas-tolen mugimenduari eta, gero, unibertsitateari loturik, zientzia arloko material didaktikoak sortu eta terminologia landu zituen. Udako Euskal Unibertsitatean hasieratik aritu zen, Euskal Herriko euskarazko unibertsitatea dinamizatzen eta irakasle-lanetan.

1975etik 1992ra arte, berriz, fisika-irakasle jardun zuen Euskal Herriko Unibertsitatean (hasieran Bilboko Unibertsitate Autonomoa izan zena).

2007tik 2018ra bitartean Testugintza Teknikoko irakaslea izana dugu, unibertsitate bereko Bilboko Ingeniaritza Eskolan.

Hilberri txostenak

Juan Antonio Letamendiaren hilberri txostena (1940-2019)

MUJICA, Jose Antonio
Euskaltzain urgazlea

Gaztetan euskaldundu zen Juan Antonio Letamendia, Seminarioko ikaskide euskaldunak laguntzaile zituela. Ondoren, emaitza bikainak eskaini zituen euskalgintzan. *Idazle* izan zen hasieran; *irakasle* gero, *metodogile* trebe; *itzultzaile* eta *ikertzaile* ere izan zen neurri batean; eta ekarpenak biribiltzeko, euskarazko *komikigintzan* ere ale bikainak eskaini zituen.

IDAZLEA. Ikasketak amaituta, bost urte egin zituen Bergarako Angiozar auzoan, apaiz. Han hasi zen euskarazko lanak idazten eta kaleratzen. Ipuinak idatzita, sariak irabazi zituen, Arrasaten, Durangon eta Erreterian. *Zeruko Argia* eta *Jakin* aldizkarietan ere idatzi zituen artikuluak. Batzuk aipatzearen, "Oteiza gizon ikaragarri bat da" izenburua duena eta Aldaba herriko eliza berezia diseinatu zuen arkitektoari egin zion elkarrizketa, 'Estetika berria elizgintzan' izenburua duena.

Urte haietakoa da, halaber, Arthur Milleren *All my sons* antzerkiaren itzulpena, *Denak nire semeak* euskaraz, Jarrai taldeak antzeztu zuena. Ikusle batzuei "modernogia" iruditu zitzaion obra hau, beharbada. Baina horixe zen, hain zuzen, antzezleek bilatzen zutena: euskarari modernotasunaren prestigioa ematea.

Modernotasunarena ez ezik, euskararen batasunaren kezka ere bazuen Juan Antoniok urte haietan. 1968an, Arantzazukoaren aurretik Ermuan egin zen idazleen batzarrean "Zenbait iritzi batasunari buruz" izenburuko txostena aurkeztu zuen, euskararen batasunari buruz urteetan zehar egindako proposamenak biltzen eta azaltzen zituen.

IRAKASLE ETA TESTUGILE TREBEA. Angiozarko urteen ondoren, bide berriak urratzeari ekin zion Juan Antoniok. Apaiz izateari utzita, irakaskuntzara begira jarri zen, Filologia Erromanikoa ikasita. Donostiako Santo Tomas lizeoan egin zituen urte batzuk, euskarazko ikasleei *Euskara* irakasgaia ematen. Antolatu-

tako material gutxi zegoen horretarako. Hutsunea betetzeko *Euskara 6* testuliburua prestatu zuen han, txukun eta egoki, gerora etorriko ziren testuliburuaren aitzindari bikaina.

Hurrena, Donostiako Irakasle Eskolan egin zituen lau urte. Maisu-maistra euskaldunen beharra ikusita, eraginkorrena euskaldunak alfabetatzea zela uste zuen Juan Antoniok, baina frankismoaren garaitik zetorren zuzendaritzak ez zion horretarako aukerarik eman. Ikasle denak batera hartu behar zituen, eta euskalduntze arin bat eskaini: “Tú enseñas un poco para que puedan hablar en la plaza, para cuando van a comprar algo...” esan omen zioten. Juan Antonio ez zen, ordea, euskalduntze arinera mugatu. Hizkuntza modernoaren metodologiak aztertu eta haietako bat euskarara egokitzea erabaki zuen. Talde bat antolatuta, Jalgi Hadi metodoa landu zuten. Metodoa Irakasleen Eskolarako egin bazegoen ere, asko zabaldu zen handik kanpora ere. Juan Antonio izan zen eragile nagusia.

Hurrena, berriz, Hondarribiko institutuan lortu zuen katedradun lanpostua. Hala ere, sei urte egin zituen Donostiako Urrutiko Batxilergoko Institutuan, zerbitzu eginkizunean. Testuliburu bereziak erabiltzen ziren institutu horretan, ikasleak bere kabuz urratsak egiteko modukoak. Euskararena falta zen, eta Juan Antoniori egokitu zitzaion hori egitea. Metodogile, ostera ere. Horrela sortu ziren arrakasta handia lortuko zuten *Bakarka* saileko liburuak. Lehenbiziko hirurak egin zituen Juan Antoniok. Berez institutuan erabiltzeko liburuak ziren, baina, Elkar-ek argitaratuta, handik kanpora ere asko erabili dira, eta are erabiltzen dira oraindik ere. Euskalduntzen hasitako asko eta askorentzat lagungarri ona izan dira. Letamendiaren *bestsellerrak* izan direla esan daiteke.

Ikusten den bezala, irakasle lanetarako beharrezkoa zuen materiala prestatzeari ekin zion Juan Antoniok beti. Ez zen, alegia, bestek egin zezan eskaka ibili, maiz gertatu ohi den bezala. Berak ekiten zion, emaitza bikainak eskainiz.

ITZULTZAILEA ere izan zen Juan Antonio, neurri batean. Ez zuen itzulpen asko egin, baina egin zituenak aipagarriak dira.

1970eko udaran hitzaldi batzuk eman zituen Koldo Mitxelenak Donostiako EUTGn, linguistika gai hartuta. Hitzaldiak, entzule asko bildu zituztenak, gazte-leraz eman zituen. Letamendiak magnetofonoan hartuta, euskarara itzuli eta liburu gisa antolatu zituen, *Zenbait hitzaldi* tituluarekin. “Liburutxo polit, mamitsu eta argia” dela idatzi zuen Patxi Goenagak, honako hau erantsiz: “J. A. Letamen-

diak euskaratu eta paratu zigun lana, egileak erabiliko zukeen moldea eta hizkera maixukiro gordeaz”.

1977an argitaratutako *El libro blanco del euskeran* Mitxelenak idatzitako hitzaurre mamitsua, askotan aipatua, *El largo y difícil camino del euskara*, Juan Antoniok euskaratu zuen, *Euskararen bide luze bezain malkarrak* euskaraz.

Urte batzuk geroago José Ortega y Gasseten *La rebelión de las masas* liburu ezaguna euskaratu zuen *Klasikoak* bilduman, *Masen errebolta* tituluarekin.

IKERTZAILEA. Ikerkuntzarako ere hartu zuen beta Juan Antoniok bestelako lanen artean. Lizentziako memoria, *Equivalencias léxicas vasco-latinas en el Gero de Axular* izenburua zuena, ASJUn argitaratu zen.

Axularri buruzko beste lan interesgarri bat idatzi zuen, Erretorika Klasikoak haren itzulpenetan izan zuen eragina aztertzen zuena. Leizarragari buruz, berriz, gramatika-azterketa bat egin zuen, partizipioaren erabileraz, Euskaltzaindiak Arrasaten 1980an egin zuen biltzarrean aurkeztu zuena.

Eta Hondarribiko euskarari buruz ere bi lan argitaratu zituen: bokalismoari buruzkoa bat, eta Roque Jazinto Salazarren predikuaeren hizkera aztertzen zuena bestea, Txomin Sagarazarekin batera egina, Euskaltzaindiak antolatutako Nazioarteko Dialektologia Biltzarrean aurkeztu zutena.

MARRAZKILARI ETA KOMIKIGILEA. Orain arte aipatu ditudan Juan Antonioren lanak ezagunak dira, gutxi edo asko, euskaltzaleen artean. Ez hala, nire ustez, orain aipatuko ditudanak. Marrazkigintzan eta komikigintzan egin zituenak, alegia.

Trebea zen Juan Antonio txiste grafikoak asmatzen. Umore finekoa. Honela zioen *Komikeri* aldizkariak, haren lana azalduz: “Gaur egun komikizaleen artean arras ezezaguna den arren, gure ustez talentu handiko egilea da. Euskal komikiaren zuzia 60. hamarkada osoan zehar piztuta mantendu zuen egile bakarra izan zen”.

Komikigintzako lehen lanak 1960 eta 1964 urteen artean argitaratu zituen Panpin komiki gisakoan, "Leta" izenpearekin. *Zeruko Argian* hamar urtez aritu zen, "Lerro", "Neu" eta "Geu" goitizenak erabiliz. *Garaia* eta *Muga* aldizkarietan, berriz, "Fits" ezizena erabiliz argitaratu zituen ilustrazio batzuk, bineta bakarrekoak zein istorio luzeagoak.

Sinpletasun zorrotza omen zuen Letamendiaren komikigintzak ezaugarri, *Komikeri* aldizkariak dioenez.

EUSKALTZAINDIAN gaudenez, ez nituzke aipatu gabe utzi nahi Juan Antoniok Akademia honetan egin zituen lanak. Batzuk, bederen. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1975ean, eta egiaz ‘laguntzaile’ izan zen erakundean. Ondoko urteetan honako batzorde hauetan hartu zuen parte: Gramatika, Aditza, Elebitasuna eta Irakaslegoa. 1978an, Arantzazukoaren hamargarren urteurrenean, batasuna gai hartuta Bergaran egin zen batzar jendetsuan idazkari lanak egin zituen Juan Antoniok, Mitxelenak proposaturik. Eta hurrengo urtean gramatika lanak bultzatzeko Arrasaten egin zen Biltzarrean ere Hizkuntza batzordeko kide eta idazkari izan zen.

1981ean Irakaslego eta Gramatika batzordeak utzi, eta bere lana batez ere Dialektologia batzordera bideratu zuen. Hala ere, Gramatika batzordeak EGLU saileko lehen liburukia argitaratu zuenean, 1985ean, hari buruzko iritzi kritikoa eskatu zion, aditu gisa, Juan Antoniori. Bai honek zehatz eta argi erantzun ere. Liburua- ren ekarpena eta balioa aipatu zituen, ASJUn agertutako artikulu batean, baina ustezko hutsuneak eta desorekak ezkutatu gabe. Esan gabe doa eskertu egin ziola batzordeak bere eskariari emandako erantzuna.

1981etik aurrera, esan bezala, Dialektologia batzordeko kide izan zen. Eta hor ekin zion Atlasgintzako lanetan parte hartzeari. Inkesten plangintza aztertze- ko egin ziren jardunaldietan partaide, zenbaitetan idazkari, izan zen. Inkestetan ere parte hartu zuen. Aurrerago, berriz, Hondarribiko irakasle postuan izandako bigarren parentesian, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* agerpenak prestatu zituen taldean aritu zen, 1998tik 2003ra bitartean. Dударik ez da mapen moldaketan eta gainerakoetan Juan Antoniok izaten zuen zehaztasun irizpidea baliagarri izango zutela taldekoek.

HONDARRIBIKO udalean, bestalde, zinegotzi izan zen lau urtez, euskara azpi- batzordeko buru eta *Hondaribia* aldizkariko zuzendari. Artikulu labur asko idatzi zituen aldizkarian, bai orduan eta baita ondoko urteetan ere. “Aldizkarietako arti- kulu apalok huskeria izaten dira –esaten omen zuen Juan Antoniok–, baina den- boraren buruan hondar nasaia pila dezakete”.

Hona, bada, gaztetan euskaldundu zen Juan Antonio Letamendiak euskalgintzan utzi dizkigun emaitzak, ugariak eta balio handikoak. 2019an hil zen, Gabon egu-

nean, abenduaren 24an. Hura hil berritan artikulua batean idatzi nuena errepika dezaket hemen oroitzapen txosten hau amaitzeko. Honela nioen: “Aipatutako alor horietan guztietan maila handiko lanak egin zituen Juan Antoniok, txukun eta bikain betiere (...). Ondo irabaziak ditu, bada, zalantzarik gabe, euskaltzaleon eza-gutza eta esker oneko aitortza”.

Jean-Baptiste Etxarren-en hilberri txostena (1928-2020)

DIRASSAR, Janbattit
Ohorezko euskaltzaina

Agur bero-bero bat Donostian bilduak zirezten guzieri. Nihaurek ere nahiko nuen segur zuekin izan, bainan, eta barkatu otoi, Ziburutik arras guti ateratzen naiz, ez izurrite tzar horrengatik baitezpada, nahiz hori ere hor dugun, bainan belaun batetako artrosiak trabatzen nauelakotz gero eta gehiago. Bainan xo!, ez dut besterik erranen jasaiten dutan zailtasun hortaz, badakit asko eta asko ni baino makurrago dabiltzala. Ezinbestean ez naiz beraz Donostian, alta aski maite dutalarik hiri hori, bai eta Orio, Zarautz, Zumaia eta oroz gaineratik Getaria, bere saguarekin...

Behar dizuet goraipatu Janbattitt Etxarren euskaltzale guziz suharra, edo hobeki erraiteko Janbattitt Etxarren-Lohigorri, amaren aldeko izena ere sartuz, gauza bat ez duguna aski egiten Iparraldean. Janbattitt Etxarren-Lohigorri iaz zendua da Donibane Garazin, haren ehorzketak urtarilaren 31n iragan ziren Auritzen, emaztea, Hilaria, lau haurren ama, 2010ean zendua, hangoa baitzuen. Bera Donazaharren sortua zen 1928an, irailaren 26an, etxeondoa zuelarik Uharte-Garaziko Etxarrean. Deitura ere handik heldu.

Hitz xoil batez erran behar banu nolako gizona ginuen, erran nezake biziki erro azkarrak zituela. Erro batzuk berenaz azkarrak, eta bera alde bat ari oraino heien azkartzerat. Ikasketa ederrak eginik gazte denboran, beti segitzen zuen ikas eta ikas, lehiatuz ikasia zuen hura partekatzerat bere bidean kausitzen zituen guziekin. Ez espantuka, bainan adiskidetasunez. Maiorga ikastegian izan zen erakasle, gaztelera erakatsiz, eta gero han berean urte askoz zuzendari. Denek laudatzen zuten haren lana, denek ikusten baitzuten nolako sail baliosa zeraman. Hein bat larderiarekin orobat, batzuk hala zioten behin, bainan ikastegi handi batean ez ote zira galdua ez baduzu larderia poxi bat agertzen?

Erakasle arraroa, ez da dudarik, bainan bestalde ere asko sailetan ausart eta trebe. Euskal Herria maitez, eta bereziki Nafarroa. Mugaren bi aldeetan, xoko gehienak ezagutzen zituen, bazter ederrak preziatuz eta jendearekin zernahi harreman ukanez. Historiari buruz egin ditu gaitzeko ikerketa baliosak, ainitz baliatu direnak Nafarroa Zaharraren Adixkideak izeneko elkartean, frantsesez “Amis de la Vieille Navarre”. Lehengo gertakari zonbat ez ditu arta handiarekin aztertu, Konpostelareteko beilariak gogoan, edo karlistada delakoak, eta geroztikako gorabehera frango ere, hala nola, 40etako gerla denboran alemaneri eskapatu nahi zirenen laguntzeagatik, beren bizia irriskatuz ibilki ziren mugalari atrebituak. Gai hortaz hitzaldi bat bazuen ere egina ez hain aspaldi, 2018an. Historiaren arrangura hori bazuen jadanik arras gaztea zelarik ere, eta ez dute ahantzia hor gaindi nolako ikerlan aberatsa plazaratu zuen, lehen saria lortuz, Zangozan muntatu zirelarik fama handiko lore-jokoak. Karia hortarat molde onenean oroitarazten zuela nor izana zen Juan de Huarte hamaseigarren mendeko humanista handia, bera ere sortzez garaztarra.

Ikerketa sakonak akulatu ditu lehengo bizimoldeez, lehengo lanez, lehengo besta, ikusgarri eta gaineratikoez. Bai eta eragin zabala ukan duten asko jenderen biziaz.

Urteak jin eta urteak joan, Janbattitt-Etxarren-Lohigorri beti ari izana da nafartar guzien arteko elkartasunaren sustatzaile, gisa hartako harremanak ukanez bereziki Iruñearekin.

Historiaren axola handi bati josia bazaukan jendetasun argi eta sano baten grina, bere giristino fedearen argitarat. Ez dugu ahantziko euskal ondarea zoin maite zuen, ez ahantziko ere zoin idazle fina ginuen, euskaraz ala frantsesez berdin trebe, gazteleraz ere ba. *Herria* astekariari ere igortzen zizkion lan asko biziki interesgarriak, eta bistan da Euskaltzaindiak ere etzuela ustegabetarik hartua bere urgazle bezala, gisa hartako merezimenduak ba-eta...

Angel Ibisateren hilberri txostena (1932-2020)

MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, Elena
Euskaltzain urgazlea

Agur, guztioi.

Euskaltzaindikiko kideen artean, ez da oso ohikoa izaten gasteiztar akademiko askorik aurkitzea, eta askoz gutxiago Gerra Zibila baino lehen sorturiko akademi-korik. Bai, jakina, euskara maitatu eta bultzatu dutenak. Eskerrak azken urteotan kopurua handituz doan. Horien artean dugu Angel Ibisate Lozares, euskaltzain urgazle gasteiztarra, apaiza, euskaltzalea, liburuzaina eta ikertzaile nekaezina.

Gasteizen jaioa, 1932an, hiriaren bihotzean, Hedegile kaleko Vegako Andra Mariaren bigarren auzune edo bezindadean, *La Corre* deitzen diogun horretan; Gasteizen bertan utzi gintuen 2020ko martxoaren 6an, pandemiaren lehen berriak izan genituen garaitsuan. Gasteiztar peto-pettoa, hortaz. Miel A. Elustondo kazetari eta idazleak Ibisateri egindako azken elkarriketa, argazkiak lagundurik, argitaratu zuen handik gutxira, martxoaren 21ean, *Berria* egunkarian: Angelek ez zuen ikusterik izan, beraz. Eta heriotzaren zain balego bezala, honako hau galdetu zion Elustondori: «Zein argazki jarriko zenuke zuk, ni hiltzen naizenean?».

Angelengandik belaunaldi-jauziak urruntzen baninduen ere, aldi berean, elkarre-kiko maitasunak, errespetuak eta harreman estuak hurbiltzen gintuzten. Ezagutzen zuten guztiek trebetasun eta adimen handiko gizona zela nabarmentzen dute¹; bai-ta berezia ere.

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet Gasteizko Apaiztegiko Amaia Gallego eta Santos Ros lagunei, eman didaten informazio guztiagatik.

Oso gazterik hasi zen Gasteizko Seminarioan ikasketak egiten, eta bukatu ere egin zituen, apaiza izateko adina baino bi urte lehenago. Bitartean, Erromara bidali zuten eta Soziologia Eklesiastikoan lizentziatu zen. Baina Doktorego tesia egin gabe Gasteizera itzuli behar izan zuen Peralta gotzainak hala agindurik. Badirudi ez zirela oso adiskide onak.

Zenbait herritan izan zen apaiz: Uribarri Jauregi, Gereñu, Matauku, Ibisate, Areatza eta, haren hitzetan, Sabandora, Mendialdeko herrira, erdi zigorturik bidali zuten, baina zorionez, bere bizitzako urterik zoriontsuena bizi izan zuen han. Orduetik, oso lotua sentitu da Juan Bautista Gamiz poetaren sorlekuari. Behin baino gehiagotan bete du gure arteko solasaldia herri horretako toponimiak.

Hirurogeiko hamarkadaren bukaeran, Gasteizko euskaltzaleen giroa pil-pilean zegoen. Alde batetik, Andoni Urrestarazu, «Umandi», Peli Presa eta Izaskun Arrue (Arabako lehenengo ikastolaren sortzailea, Olabide Ikastola) ari ziren euskara irakasten; eta bestetik, elizaren inguruko mugimenduak, eta haietan murgildu ziren Oñatitik Gasteizko apaiztegira etorri berri ziren gazte euskaldun agustindarrak. Gasteizko apaizgai gazteak erakarri zituzten, eta 1972 inguruan², *Juan Bautista Gamiz* izeneko taldea osatu zuten zenbait euskaltzalek, Eusebio Osa gidari zutelarik. Partaideen artean, Ibisate, Ros, Fontaneda eta beste batzuk izan ziren, euskara ikasten eta irakasten, hala nola mezak euskaraz ematen. Horiek izan ziren AEK Araban sortzeko lehenengo haziak erein zituztenak.

Ibisatek beste esparru batzuetan ere parte hartu zuen hirurogeita hamarreko hamarkadan, Gasteizen bizi zen giro politiko eta sozial gorrian, esaterako. 1976an, martxoaren 3an hilketa latzak gertatu ondoren, hileta-elizkizunaren homilia Angelek idatzi zuen. Eta honela adierazi zion Elustondo kazetariari:³

Hor bada historia bat oraindik idatzi ez dena... Hileta horrena. Homiliari dagokionez, neuk idatzi nuen. Egun hartan [1976, martxoak 5] apaiz batzar bat egin zen, arratsaldeko meza prestatzeko; homilia, batez ere. Gotzainak, batzarrak prestatutako homilia irakurriko zuela hitz eman zuen. Nik, bezperan, hainbat ordu kendu nizkion loari, neure buruarentzat idazten jardun nuen, nik egoera hartan zer esango nukeen paperean jartzen. Bilkuran, homiliaz ari ginela, bezperan idatzitakoa irakurri nuen denen aurrean. Eta batzarrak erabaki zuen gotzainak [Peralta] huraxe irakurri behar zuela. Eta irakurri zuen, baina aldaketa batzuk eginda [...]. Azkenean, nekez bada nekez, eta geuk behartuta, Peraltak uko egin zuen karguari.

2 Elustondo, M. A., 2005, *Eusebio Osa. Bidegileak*, Vitoria: Eusko Jaurlaritza.

3 Elustondo, M. A., *Berria*, 2020ko martxoaren 21ean.

Elizaz eliza ibili ondoren, 1985. urtean, Ángel Ros adiskidearen laguntza estimagarriari esker, Gasteizko apaiztegiko liburutegian leku hartzea lortu zuen, eta orduan hasi zen haren ikerketa-lana. Artxibategiko liburuen artean igaro zituen ondorengo urteak, eta liburutegiko ondarearen ezagutza izugarria lortu zuen, batez ere inkunableena eta XVI. eta XVII. mendeetako lanena. Gaur egun haren falta sumatzen dute liburutegiko zenbait lanetan.

Zehatza eta zorrotza zen datuen bilketa-lana egiterakoan; idatzi zituen artikulua ez dira oso luzeak izan; bai, ordea, xehetasun handikoak. Haren hitzetan, gauza handirik ez, baina ahal izan duen ekarria egin die euskarari eta euskal historiari. Gustura sentitu zen «Formula del Juramento en Álava en el siglo XVI (El testimonio de Fray Juan de Victoria)»⁴ artikulua argitaratu ziotenean. Araban erabiltzen zuten zin egiteko euskarazko esamoldea azpimarratu zuen: «Bai, ziurtu [Vay çiertu]».

Iturrien ezagutza handiari esker, beste autore batzuen lanak datu berriez apaindu zituen. Besteak beste, «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiarán de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado»⁵ edo «¿Ergoienak alavesas? La Hergoiena salvaterrana. Las Ergoienas de Salvatierra. Nueva luz sobre un texto del P. Kardaberaz»⁶ artikulua ezagunak.

Beste lan bitxi batzuk ere aurkitu ditzakegu haren ekoizpenean, betiere lurrari lotuak. Badirudi datu galduen bila aritzea zuela helburu nagusizat, horrela erakusten baitu hainbat artikulutan. Idazlan horiek izenburu luzeen bidez iragartzen ditugute aurkituko dugun mamia. Adibidez: «El moribundo, el cura, el intérprete y la casera. Un dato para la historia del euskara en Álava en el siglo XIX. Apostillas a un documento»⁷, edo «Una bula de difuntos a favor del hospital de Sancti Spiritus de San Adrián, impresa a principios del siglo XVI»⁸. Horietan argi utzi nahi izan

4 Ibisate Lozares, A., 1985, «Fórmula de juramento en euskera en Álava en el siglo XVI (El testimonio de Fray Juan de Victoria)», *Scriptorium Victoriense*, 32, 433-442.

5 Ibisate Lozares, A., 2001, «El euskera en Álava a fines del siglo XVIII. Un artículo de Don José Miguel de Barandiarán de 1926. Anotaciones actuales sobre el documento publicado», *Euskera*, 46-2, 783-803.

6 Ibisate Lozares, A., 2008, «¿Ergoienak alavesas? La Hergoiena salvaterrana. Las Ergoienas de Salvatierra. Nueva luz sobre un texto del P. Kardaberaz», *Euskera*, 53-2, 281-295.

7 Ibisate Lozares, A., 2002, «El moribundo, el cura, el intérprete y la casera. Un dato para la historia del euskara en Álava en el siglo XIX. Apostillas a un documento», *Sancho el Sabio*, 17, 183-196.

8 Ibisate Lozares, A., 2000, «Una bula de difuntos a favor del hospital de Sancti Spiritus de San Adrián, impresa a principios del siglo XVI», *Sancho el Sabio*, 12, 220-230.

zuen, datuak berrikusiz ondorio berriak atera zitezkeela Arabako lurretan euskarak izan duen iraupenari buruz.

Zergatik ekin zion euskara ikasteari Angel Ibisatek, ez dugu inoiz jakingo. Honako hau adierazi zion Elustondori: «Inoiz ez diot inori esan, eta ez diot esango. Eta idatzita ere ez dut utziko, ez dezan inork testamentutzat hartu. Ez dut esango. Nire sekretua izango da, betiko».

Halere, eta arrazoiak arrazoi, Angel Ibisatek gure lurra eta hizkuntza biziki maite zituela garbi adierazi zuen. Agur Angel, zuk egindako bideari jarraituko diogu. Bai, ziertu!

Piarres Andiazabalen hilberri txostena (1923-2020)

ARBELBIDE, Xipri
Ohorezko euskaltzaina

Piarres Andiazabal Urruñan sortu zen duela 97 urte. 1947an, apeztu eta Hazparnerat joan zen, Elizako eskolan errient, apezak tole baitziren garai haietan. Hortik Uztaritzeko seminariorat 1953an, irakasle. Han biziko zen 26 urtez Piarres Lafitte eta Etienne Salaberri idazle ezagunekin. Seminario handirat igorri zuten, kontulari 1979an. 1994an Katedraleko kalonjeetan sartu zen. 1998an Apezpikutegiko astekariko zuzendari. Apez xaharren etxerat joan zen 2015ean. Hori bizi ofiziala, baina hezur idor horien inguruan nolako giharra!

1939-1945eko gerlatik landa hasi zen Elizaren iraultza. Ordukoak dira lanerat joan ziren apezak: horietan, Iparraldeko 33. Ordukoa ere gure herri guziak hunki zituen iraultzaren beste alde hau: liturgia euskaraz izatea eta ez dena latinez ordu arte bezala. Hor du Piarresek egin gaitzeko lana, inguruan zeukan apez multxoarekin. Liburu guzien itzulpena behar zen, eta, horretarako, itzultzaileak. Hamar urteren lana izan zuten. 2.300 orrialde irakurgaietan beretan. Beste 800 bat aldareko liburuan.

Bi talde izan ziren lanaren egiteko. Bat Beloken, Martzel Etxehandi eta Iratzerren inguruko fraideekin. Artetik errateko Martzeli zor diogu bestalde Biblia osoaren itzulpena. Bigarren taldea Andiazabal eta Lafitten inguruan Uztaritzen biltzen ziren diozesako apez batzuk. Astelehen guzietan denak elkarretaratzen ziren Beloken, bakoitzak bere alde egin lana denen artean orraztatzen. Bilkurak hasi ziren 1964ko apirilaren 6an. Hegoaldean ez zen oraino itzultzaile komisio bihirik.

Bezperak euskaraz kantatzen hasiak ziren Mugerreko elizan 1963an, Iratzederrek kantatzeko moldean antolatu salmoekin, Gabriel Lertxundiren aireetan. Gero, herri guzietan bide bera hartu zuten jendeek, apuñatik ematen zituztela. Oraino ere ikusten dira gure elizetan *Igandetako bezperak* liburuxka gorriak, ez baitute deus

ikustekorik garai haietako beste liburu gorri famatu batekin. Mezarentzat, bezperentzat ez bezalako lana izanen zen.

Belokek sortua baitzuen *Othoizlari* aldizkaria, fraideen adiskideentzat, Elizaren aro berria eta liturgiaren itzulpenen zerbitzuko eman zuten. Aldizkari honen gehigarri bezala agertu ziren itzulpenen liburuxkak, bata bestearen ondotik. 796 orrialde orotara. Lehena 1964ko Mendekosterako plazaratu zen eta orduan hasi ginen irakurgaiak euskaraz ematen.

Gipuzkoan, Bizkaian, bai eta Venezuelan ere beren itzulpenak egin zituzten, aherentzi gabe Xiberoa. Bost itzulpen euskararentzat! Lana bururatu eta Vatikanotik jin zen manua, mintzaira bakoitzak itzulpen bakar bat baizik ez zuela behar, ñabardura zenbait gorabehera. Dena berriz haste! Oraingoan Hegoaldearekin. Andiazabal izan zen bilkuretan Iparraldearen izenean. Eta, prest izan ginen... Frantzia handia baino lehen!!!

2008an atera zuen Piarresen 540 bat orrialde dauzkan irakurgaien edizio berri eder bat (21x30 cm), testuei han-hemenka hobekuntza zenbait ekarri, frantseseko edozein libururi ez baitio zorrik. Hori, irakurgaiei doakienaz. Mezaren aldi geroxeago.

Hasi ziren beraz Hegoaldeko eta Iparraldekoen bilkurak. Lehenak Ibardinen egin ziren, Urretxun gero, eta azkenik Donostian. Irakurgaiarentzat batasun laxo bat izan bazen, gaineratikoentzat ala Hegoaldean ala Iparraldean, kasik itzulpen berak ditugu. Gure Aita, osoki berdina. Eta hori, Euskaltzaindia euskara batuaz mintzatzen hasia baizik ez zelarik.

Andiazabali zor diogu ere nik dakita zenbat dozena mila aletan zabalduta, eliza guzietan ikus daitekeen *Igandetan Elizan* liburuxka (192 or.) mezako otoitz eta kantuekin. Edizio berri bat atera zuen duela 15 bat urte *Kanta Jaunari herrix herri* euskarazko 350 kantikarekin bai eta frantseseko beste 180 batekin, frantximentei tokia eman behar baitzaie Euskal Herri barnean, ordainik gabe hirialdeko euskaldunentzat.

Andiazabal ez zen horretan gelditu. Sei liburu atera zituen (biga urte bakoitz) *Igandetako salmo leloak*, lehena irakurgaietarik landako salmoekin, oraino ere baliatzen duguna. Bigarrena, *Mezetako Deiak*.

Irakurgaiek irakurleak behar zituzten. Horra beste iraultza bat! Ordu arte jendeek beren tokian egoten ziren xintxo-xintxo, eta hona non apeza zen isildu, laiko bat mintzo zela denen aitzinean. Kuraia behar zen aitzin hartan agertzeko! Ikusi ditugu irakurtzen, zangoak dardaran! Horien formatzeko ikastaldiak antolatu zituen Andiazabalek Uztaritzen. *Meza hizlariak* deitu zituzten irakurleak.

1984tik honat Euskal Herri osoarentzat Loiolan antolatu Gogoeta Astearen sortzaille eta animatzaileetarik izan zen ere, bai eta 1990tik 2011ra arte Euskal Telebistako mezen arduradun, Iparraldetik zirelarik.

Lapurdi Irratia sortu zelarik 1992an, aste guziez bere gain hartu zuen kronika baten segurtatzea. Artikulu ainitz idatzi du ere bereziki *Herria* astekarian. Apezpi-kuen gutunen itzulpenak bestalde.

Elizako mundutik kanpo ere ari izan da. 1963ko azarotik 1964ko uztaile radino, Euskal Idazkaritzako bulegoan Iparraldeko lau gizon (Pierre Andiazabal, Jean Hiriart Urruty, Roger Idiart apezak eta Jean Louis Davant) eta Hegoaldeko beste lau (Solaun, Eneko Irigarai, Telesforo de Monzón eta Txillardegi) bildu ziren azken honen gidaritzapean, 1964an Arantzazuko biltzarrak hartuko zituen erabakiak lantzen, euskara batuari buruz. Piarresen ez zuen bilkura bat huts egiten.

Ez da harritzekorik Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu bazuen. Baina, gure elizkizunen ospeak hainbeste zor diolarik, Txinako sukarra dela eta, Piarresen ehorzketetan hamabost bat adiskide baizik ez da bildu ahal izan. Bere biziaren araberako ehorzketa isilak: idatzi dituen liburuetan ez duzue haren izenik ikusiko. *Associated Press* Ameriketako agentziak erran duenaz, aingeruen ostea handiagoa baizik ez da izan Zeruetako ongietorrian.

Joan Mari Torrealdairen hilberri txostena (1942-2020)

AGIRREBALTZATEGI, Paulo
Ohorezko euskaltzaina

Euskaltzainok, agur! Agur, lagunok. Eta agur berezia Beatriz Gorriti, Joan Mari Torrealdairen alargunari.

Hasteko, eskerrak Euskaltzaindiaren zuzendaritzari Joan Mari Torrealdai zena-
ren oroitzapen eta testigutza hau zuen aurrera ekartzeko aukera eman didalako.

1954ko udazkenean ezagutu nuen aurrenekoz Joan Mari Arantzazuko kolegio
edo seminarioan (Oñati). Txapel eta guzti agertu zitzaigun, harridura eta agian
mirespena piztuz beste mutikoongan. Hamabi urteak betetzeko zituen artean. Mu-
tiko bizia zen Joan Mari: argia eskolan, trebea kirolean. Arantzazun ikasi zuen
mendiaz gozatzen, gero hain gogokoa izango zuen kirolaz. Futbolean ere bai: Se-
minariotik hiru bat kilometrora, mendi tarteetan, genuen futbol zelaia -belar baino
harri-koskor gehiago zoruan-; erdian jokatzen zuen berak.

Arantzazun hasi zuen, bada, garai hartan fraidegai apaizgaiok egiten genuen ha-
mahiru urteko ikasketen ibilbide kurrikularra: hiru urte Arantzazun eta bi Foruan
(Humanitate ikasketak), urtebete Zarautzen (fraide nobizio), hiru urte Erriberrin
(Humanitateak eta Filosofia) eta Arantzazun azken lau urteak (Teologia). Arantzazun
bertan egin zuen fraide profesioa (1965) eta apaiztu zen (1967).

1954 hartatik hasita, bada, urte asko emanak gara elkarren ondoan edo in-
guruan: elkarrekin biziz aldika (ikastetxez ikastetxe, bera ni baino urtebete geroa-
go; eta gero Tolosan eta Donostian; denetara, 20 urtetik gora); elkarrekin lankide
Jakin taldean eta aldizkarian (1970-2020: 50 urte). Gehienetan bulego soilean
-hainbatetan bazkari eta guzti-, bilera asko egindakoak gara, Jakin taldearenak.
Baita ibilerak ere elkarrekin: mendiko ibilaldiak, kanpoko bidaiak.

Hainbat oroitzapen hurbileko eta gozo! Anaia, lagun, lankide, adiskide: Egun Handira arte, Joan Mari!

1942an jaio zen Joan Mari Torrealdai Foruan. 2020ko uztailaren 31n hil zen Usurbilen. Seminarioko Humanitate, Filosofia eta Teologiako ikasketatik harantz, Okzitaniako Tolosan atera zuen Teologiako lizentzia; ondoren Pariseko Institut d'Études Sociales-en Soziologiako lizentzia, doktoretzarekin burutua gero Deustuko Unibertsitatean; geroago, Informazio Zientzietako lizentzia, EHU.

Berririk gutxi ekar dezaket zuen aurrera Joan Mariri buruz, lehendik ez dakizue-nik. Asko dago esanda eta idatzita berari buruz: Dozenaka iritzi-, oroitzapen- eta testigutza-idazlan hedabideetan beraren heriotzaren inguruan, bilduta eta irakurgai daudenak; zenbaki monografikoa eskainia dio *Jakin* aldizkariak, 2020ko iraila-urriko 240.a, “Torrealdai euskara herri” titulupean. Haren pentsaera, euskarari eta euskal kulturari buruzkoa, haren ikerlana eta idazlana, euskal kulturgintzako haren ekarpena, horrelakoak daude bertan zehazkiago eta zabalago azalduta, alorrez alor: euskararen batasuna (normalizazioa eta modernizazioa), euskal kazetaritza, euskal prentsa eta liburuaren zentsura, euskarazko liburugintzaren soziologia, Biblioteka nazionalaren aldeko ahalegina. Bertan duzue Joan Marik berak idatzitako bere ibilbidearen azalpen bio-bibliografikoa ere, 20 orrialdetan emana, titulu iradokigarri honekin: “Katea ez dadin eten”. Eta bertan duzue, Joan Mariri buruzko testigutza ere, *Jakin* taldeko bere lagunek elkarrizketan eskainia.

Joan Mari Torrealdai, “Euskal kulturaren gidaria”: horrelaxe izendatu zuen hedabideren batek haren heriotzakoan; euskal kulturako erraldoia deitu zuen batek baino gehiagok. Euskal kulturaren behatzailea, gaineratuko nuke nik...

Gehienek azpimarratuak dituzte haren ibilbidearen eta lanaren dimentsioak. Kazetaria, idazlea, irakaslea, ikertzailea, kultur sustatzailea izan zen, eta aldizkarien zuzendaria (*Gure Izarra*, *Anaitasuna*, *Jakin*), eta euskal kulturako kudeatzailea izan zen (*Euskaldunon Egunkarian* Administrazio Kontseiluko kidea eta Editorial Kontseiluko burua, *Jakin* Fundazioko lehendakaria, .EUS Fundazioko lehendakaria). Eta beraren ibilbide osoaren eta ekimen guztien ardatzetan ardatz nagusia, bere-berea, eutsiena eta luzeena, *Jakin*: *Jakin* taldean 53 urte, eta 42 aldizkariaren zuzendari, berak aitortzen digunez 2015ean idatzitako “Katea ez dadin eten” aipaturiko testu autobiografikoan (141. or.). Eta geure aldetik gainera dezagun: sei urte gehiago *Jakin* Fundazioaren lehendakari.

Torreal dai idazlea, esan dugu: liburuak eta artikulua zabal eta ugari. Jakin Fundazioak eskaneatuak eta digitalizatuak ditu haren idazlan argitaratuak. Interneteko Jakin.eus atarian kontsultatu eta irakur daitezke denak: 24 liburu, obra kolektibotako 47 lankidetzak, 517 artikulua, 3 itzulpen-lan, 2 edizio-lan... 13.614 orrialde, denetara.

Joan Marik berak lau epigrafe –“ardatz nagusi”– hauetara biltzen du bere ibilbidea eta bere ekarpen intelektual eta bibliografikoa euskararen eta euskal kulturaren munduan, gorago aipaturiko bere idatzian (139-150. or.): Kazetaritza, Soziologia, Euskaltzaindia, euskal kulturaren transmisioa –“katea ez dadin eten”–.

Hortxe idatzia du, hain zuzen, honako hau ere: “60ko hamarkadan hurbildu nintzen Euskaltzaindira, bi zio tarteko: alfabetatzea eta euskara batua” (147. or.). Eta jarraian dator bi sail horietan berak egindako lanen berri. 1975ean izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle eta 2009an euskaltzain oso. Argitalpen-batzordeko kide eta Azkue Bibliotekako zuzendari akademikoa izan zen. Euskaltzaindiaren historia idatzi zuen (2009), zuzendaritzak eskatuta, Imanol Muruarekin batera: *Euskaltzaindia. Ekin eta jarrai*. 2017an Euskaltzain emeritu bihurtu zen; Miriam Urkiak hartu zuen haren aulkia: 29.a.

EUSKARA – EUSKALTZAINDIA – JAKIN... Triangelu modukoa eratzen dute hiru hitzok Joan Mariren bizitzan eta lanean; hiruki horren barruan jardun zen bera, hiru aldeei tinko oraturik bere ekimen eta lanarekin. EUSKARA... Euskara batua, esan nahi da, Euskal Herri osoaren eta euskal kultura modernoaren oinarri, adierazgarri eta euskarri. EUSKALTZAINDIA... Euskararen eta horren batasunaren diseinatzaile, berme eta bultzatzaile: horrela ikusten zuen bereziki Euskaltzaindia Joan Marik. JAKIN... Euskal kultura modernorako tresna: horrelakotzat hartzen zuen *Jakin* aldizkaria, Euskal Herriaren zerbitzuko. Hirurak bereizezinak dira beraren bizitzako ikuspegian eta ibilbidean; hirurak lotuz, hirurak elkarreraginean ipiniz, jardun zen ia 60 urtean Joan Mari “triangeluarra” eta “trilateralra”.

Euskara batuaren historian, horren sozializazioaz ageri zaigu Joan Mari Torreal dai bereziki arduratuta –sarritan kezkatuta–, egile eta eragile, *Jakin* aldizkari eta taldearekin batera eta Euskaltzaindiaren gidaritzapean. 1964an Jakin taldeko zuzendaritzak erabaki zuenean euskal idazleek Baionan hartutako irizpideak bete teko eta betearaziko zituela, aldizkariko zuzendaritzakoa zen Joan Mari –berak bizkaieraz idazten zuen garai hartan *Anaitasuna* aldizkarian; baina *Jakinen* euskara

batuan (edo baturanzkoan– idatzi zuen hasieratik bertatik). 1968ko udazkenean Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarrean hartuko zituen erabakiak onartu eta beretzako arautzat joko zituela aldarrikatu zuen alde aurretik *Jakin* aldizkariak, Joan Mari zuzendari zelarik –horren testigu da Euskal Idazleen Ermuako bilerako akta, Joan Mari idazkariak jaso–: “Yakin aldizkaria oraindexek lotzen da Iraillean Euskaltzaindiak artuko dituen erabakietara”. Euskaltzaindiaren Biltzar hartan *Jakin* aldizkariaren zuzendari bezala hartu zuen parte Torrealdaik; eta aldizkariaren hurrengo zenbakiko editorialean idatzi zuen honako hau: “Harek [Euskaltzaindiak] esandakoa betetzea, derrigorrezkoa zaigu guztioi...”. Eta horri eutsi zion *Jakin* talde osoak, eta bereziki *Jakin* aldizkariak Joan Mariren zuzendaritzapean, ondorengo 50 urteetan: Euskaltzaindiaren gidaritza onartuz eta horren arauak betez eta bete beharra aldarrikatuz. Hainbat artikulu idatzi izan du Torrealdaik euskara batuaren inguruan, *Jakin* aldizkarian batez ere, ikuspegi soziologikotik begiratuta. 1978ko urte hartan editorial berezia eskaini zion aldizkariak gaiari, “Batasuna batasunean” titulupean (8, 1978, 11-13. or.). Euskara batuaren aldeko defentsako iritzi-artikulu laburrak idatzi zituen, –“Batasunaren erasoak eta prentsa” (8, 1978, 123-124. or.), “Bizkaitarrak barriro” (25, 1982, 125-126. or.)–, “*Jakin* talde historikoa: Euskara batuaren memoria eta etorkizuna” (225, 2018, 17-20. or.), “Erria eta Herria” (225, 2018, 109-110. or.). *Euskera* aldizkarian argitaratu zuen Bergarako Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarrean aurkezturiko “1967-1977: liburuak eta batasuna” txostena, bi zatitan (23-2, 1978, 503-522. or. eta 24-1, 1979, 339-352. or.).

Aurkeztu, bi txosten aurkeztu zituen Bergarako Biltzarrean, urte haietan euskararen batasunerako emandako irizpideak eta arauak kazetariak eta idazleek zenbateraino jarraitu zituzten aztertzen zituztenak: liburuetan batetik, eta aldizkarietan, bestetik. Joan Mariri eman zion Euskaltzaindiak euskara batuaren aldeko aldarria irakurtzeko eginkizuna eta ohorea 2018ko Arantzazuko Biltzarrean, urte luzetan euskara batuaren sozializazioaren alde *Jakin* aldizkariak eta Joan Marik berak izandako jokabide leiala eta egindako lana aitortuz. Euskaltzainburu Andres Urrutiak esandako hitzak datozkigu testigu: “Guztiok ulertu genuen norbaitek merezi baldin bazuen hori irakurtzea Joan Mari Torrealdaik merezi zuela, besteak beste *Jakin*-eko zuzendaria izan zelako, eta *Jakin*-ek beti eutsi ziolako Euskaltzaindiak harturiko euskara batuaren bideari” (Maddi Ane Txoperenak jaso: “Euskara batu, kontatu eta biltzea”, in *Berria*, 2020ko abuztuaren 1ean).

Euskara batuaren bidea egin, Euskaltzaindiarekin, eta neurri batez erakundearen barruan, egin zuen, beraz, Joan Mari Torrealdaik. 1956ko irailean Euskaltzain-

diak berak Arantzazun antolaturiko Euskaltzaleen Biltzar hura ikusgarria eta harri-garria gertatu zitzaizen bertako fraide eta mutiko ikasleei: hainbeste euskaltzale eta euskalari, adineko beneragarri nahiz gazte sutsu, Arantzazun elkartuta astebetez! Joan Mari Torrealdai hamahiru urteko mutila zen eta orduantxe jakin zuen behar-bada lehenbizikoz Euskaltzaindiaren berri. Gerora erreferentzia eta autoritatetzat onartuko zuen erakundea Jakin taldeak, eta taldearekin batera Joan Marik, beren euskalgintzako jardunean. 1960ko ekainean “Euskaltzaindiaren Laguntzailleak” izeneko elkarte berriaren alde agertu zen bero Jakin, eta bere gertutasuna erakutsi zion, aldizkariaren gehigarri moduan atera ohi zuten orrian –lagunen artean Yakintxo ere deitzen zuten garai hartan–: “Jakin bezate ‘Euskaltzaindiaren laguntzailleak’: YAKIN’ez baliatu nai badezate, ateak zabalik duzkaguna”.¹

1968ko Arantzazuko Biltzarraren ondorengo editorialean, gorago aipatuan, honetara zioen *Jakin* aldizkariak: “Euskaltzaindia. Honekin konta dezagun. Euskaltzaindia da, benetan, erabat euskalduna dan erakunde bakarra, bere baitan Euskal Herri guziko ordezkariak biltzen ditu-ta”. Joan Mari Torrealdai zuzendaria zegoen, jakina, horren atzean.

1975ean euskaltzain urgazle izendatuta –2007an euskaltzain oso–, Euskaltzaindiari atxiki zitzaion 45 urtez Joan Mari Torrealdai bere euskalgintzako lanean. Horren adierazgarri da, orain arte esandakoez gain, 1979an argitaratu zuen “Euskaltzaindia eta kultur mugimendua” artikulua (*Común*, 2. zenb., 75-79. or.). Aipatuak ditugu Euskaltzaindiarentzat edo horren baitan idatzitako eta egindako lanen batzuk, baita bere gain harturiko ardura zenbait ere. Bere kultur jarduneko kezka eta amets nagusietakoa izan zuen Euskal Bibliotekaren inguruan idatzitako beste bi lan ditugu gogoratzekoak, biak Euskaltzaindiaren itzalpean landuak eta aurkeztuak: “Bibliografiatik Bibliotekara. Esperantzari leihoa”, bere Euskaltzain-sarrerako hitzaldia (2009), eta “Azkue Biblioteka eraberritzeko proposamena” txosten mardula (2012, argitaragabea), Euskaltzaindiaren batzar osoak onartu eta bere plan estrategikoan sartu zuena, autoreak berak idatzia duenez.

¹ Urte horietan Euskaltzaindiaren Laguntzailleak elkarteak suspertzeko ahaleginen eta horren gorabeheren historia xeheki kontatuak ditu J. M. Satrustegik bere “Euskaltzaindiaren laguntzailleak (1959-1963)” artikuluan (*Euskera* 37, 1992, 557-571 or.).

a) Euskara batuaren aldeko ahalegina eta lana, b) Euskaltzaindiaren gidaritzapean eta babesean, c) *Jakin* aldizkaria plataformatik: triangeluaren hiru aldeak eta hiru angeluak direla esanda geratu da gorago. Hirugarrenaz zerbait gehiago, beraz; beste biei lotuta betiere. Ezaguna da 1956an Euskaltzaindiak Arantzazun antolatuturiko Euskaltzaleen Biltzarrean egin zuela lehen agerraldia *Jakin* aldizkari berriak; ikusgai eta salgai ipini zuten bertako partaideentzako; bertan behera agortu omen zen lehen edizioa; eta bigarrena atera behar izan zuten, Biltzarraren kronika eta guzti. Uste izatekoa da, L. Villasantek, Biltzarreko protagonistetakoak eta seminarioko euskara-irakasleak, horren berri eman ziela bere ikasleei –Joan Mari Torrealdai mutikoa zen horietako bat–.

Zazpi urte geroago, berriro Arantzazura itzultzean, fraide gazte, Teologiako lau ikasturteak egiteko, buru-belarri lotuko zitzaion *Jakin* aldizkariari, zuzendaritza taldean berehala (1964-1966) eta zuzendari 1968tik aurrera. Hantxe hasi zen Joan Mariren *Jakin* taldeko eta aldizkariako historia, 57 urtez barrutik biziko eta egingo zuena. *Jakin* aldizkariaren historia Joan Mariren biografiaren alderdi nagusietakoa da, nagusia seguruenik.

Bi urteko isilaldiaren ondoren berriro kaleratu ahal izan zutenean aldizkaria, hantxe argitaratu zuen bere lehen artikulua, ondorengo ia 60 urteko ibilaldian aldizkari berean –bere aldizkarian– argitaratuko zituen 233 idazlanetan aurrena. 2019an argitaratu zuen bere azken idazlana, 2017ko euskal liburugintzari buruzkoa.

Urtebetez, 1967an, zuzendaritzatik eszedentzia hartu bazuen ere, idazten jarraitu zuen bertan; eta 1968an, aldizkariaren arduradun eta zuzendari izendatuta, ildo berria ireki zion horri, seminariotik aterata, eta euskal kulturako bestelako jende ezaguna erredakzio-taldera inguratuz. 1969an aldizkaria legez kanpo utzi zutenean, Frantziara aldatzea erabaki zuen Unibertsitateko ikasketak egitera; baina hurrengo urtean Joseba Intxaustik berrantolatu eta osaturiko *Jakin* taldeko lankide natural gertatu zen Joan Mari, Joxe Azurmendirekin batera. Eta horrelaxe bere bizitzako ondorengo urte guztietan; bereziki atzerrian bost urteko ikasketak burutu ondoren, 1975ean Hego Euskal Herrira itzuli, eta 1978an berriro heldu zionean *Jakin* aldizkari berpiztu berriaren zuzendaritzari, 2014ra arte.

Bere bizitzako parterik handiena eta kulturgintzako lanik oparoena *Jakini* eman zion, beraz. Gorago aipaturiko bere testigutza, 2015ekoa, berriro hona ekarriz itxi-ko dugu Joan Mari Torrealdai “triangeluar eta trilateral” izendatu dugunaren hiru-

garren aldearena: “Jakín taldean 53 urte daramatzat, eta 42 urtez izan naiz aldizkariaren zuzendari”. Esaldi zehatz horrexek adierazten du egokien, zein jabeturik zegoen Joan Mari bere kultur ibilbide luzeko ikur eta ezaugarri nagusiaz: JAKIN.